# Kakaoaren ibilia:

## Pasaia eta Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra

Ramón Aizpurua Aguirre
David Zapirain Karrika



# Sorginarri bilduma 9

# Kakaoaren ibilia:
## Pasaia mundu-ekonomian Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarraren bitartez

**Ramón Aizpurua Aguirre**
**David Zapirain Karrika**

**Koldo Izagirrek euskaratuta**

PASAIAKO UDALA

**2018**

**Azala:** Album del Marqués de la Victoria. 1719.
Untzi Museoa, Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia.

**Diseinu eta maketazioa:** eragin.com

**Inprenta:** Alzate Grafikak

**Euskara:** Koldo Izagirre

**ISBN:** 978-84-937701-7-4

**Lege gordailua:** SS 166-2018

# Hitzaurrea

Pasaiaren eta itsas-kulturaren arteko lotura goratzeko urtea izango dugu 2018koa.

Ezin egokiago dator beraz Pasaia eta Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra uztartzen eta aztertzen duen lan hau.

Mediterraneoan eta Ipar Atlantikoan itsaskatu eta arrantzatu ondoren, euskal marinelak Ameriketako bidaian trebatu ziren. Itsasketa berri horretan erreferentziazko portua izan genuen Pasaia: globalizazioaren hastapen haietan, gure portuan izan zuen Konpainiak egoitza, eta gure portuan eraiki zituen ontziolak, eta gure portura zetorren kakaoa.

Historia handiaren osagarri den bertako historia hori ez da soilik erakunde ekonomiko batena, jende xumeena ere bada, aipatua izan ez den pasaitar askorena. Jende anonimo askok egin du historia Pasaian. Baita Caracasen ere. Eta baita XVIII. mendean ere.

Haiek denak oroitu nahi izan ditugu La Guairaren eta Pasaiaren arteko joan-etorri honetan, 2018ko ospakizunetara ekarriz.

**Izaskun Gómez**
Pasaiako Alkate Anderea

**1. PASAIA NAZIOARTEKO PORTU** ..........11
1.1 Baina… Zer ote zen akzio konpainia bat XVIII. mendean? ..........12
1.2 Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra ..........16
1.3 Konpainiaren eragina gure gizartean ..........19

**2. VENEZUELAKO BIDAIA** ..........23
2.1 Marinelak eta Caracasko Konpainia ..........24
2.2 Venezuelako bizipena ..........27
2.3 Itzuliko ez direnak ..........30
2.4 Venezuela berri bat ..........33

**3. KONPAINIA GIPUZKOARRA PASAIAKO BADIAN** ..........37
3.1 “Tratu gozoa” eta bere arazoen mikatza ..........38
3.2 Ez bakarrik batelari ..........41
3.3 Armadaren aurka Konpainia ..........43

**4. KONPAINIAREN HERENTZIA MATERIALA PASAIAKO BADIAN** ..........47

**5. CARACASKO KONPAINIA ETA PASAIA** ..........55

**ERANSKINAK** ..........59
1: Ferrer astronomoa ..........60
2: Lafayette: bi munduetako heroia ..........66
3: Piarres Topet Etxahun: *Montevideorat joaleak* (1853) ..........67
4: Portuaren erabilerako araudia (1751) ..........67

**BIBLIOGRAFIA** ..........72




# PASAIA NAZIOARTEKO PORTU




La Guairako ikuspegia Maiquetiatik. *Henrique Neumen grabatua, Album de Caracas y Venezuela*. (1877-1878).

Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra, legez, 1728an sortu zen. Guretzat, Caracasko Konpainia; amerikarrentzat, Gipuzkoarra, *La Guipuzcoana*. Pasaia du Europan arribatzeko portua. Konpainia berri batek hartuko zuen haren lekua 1785ean, Filipinetakoak.

Baliteke bi Konpainia hauen eragina erkatu edo alderatu ezina izatea, ekonomia alorrean, Europako beste merkataritza konpainia batzuek izan zutenarekin. Baina ez liteke uka gainezka bete zituztela sortzean ezarritako helburuak, Caracaskoak bereziki, lehen epean. Helburu hauek ez ziren merkataritzakoak soilik. Politikoak eta militarrak ere baziren. Bi helburuok bete ezean, noski, zaila izango zen ezer lortzea. Baina, kasu honetan, tresna berean eta pertsona berdinetan gauzatzen dira gerra eta merkataritza: Konpainian.

Agian hauxe izan liteke ezaugarririk harrigarriena, gure ikuspuntutik, merkataritzako mentura hauetan estreinakoz abiatzen diren erakundeetan. Atlantikoaren beste ertzean ordea, venezuelarren artean alegia, gurean baino askoz garatuagoak eta errotuagoak daude Gipuzkoarrari buruzko ikerketak, eta ez bakarrik merkataritza mailari dagokionez. Probintzia haietan, Venezuelan (egungo Errepublikaren laurdena hor nonbait), Maracaibon eta Cumanan, ekonomian, gizartean eta politikan Konpainiak eduki zuen garrantziaz ere hainbat lan burutu dute[1].

Egun, XXI. mendean, Guyana bat, Surinam bat eta Herbehereen menpeko diren uharteak egoteak XVIII.eko jokalekura garamatza, eta aipatu helburu horietara: kakaoa garraiatzeko eta Iberiako Penintsulan saltzeko monopolioez gain, Konpainia honen xede nagusia, armaz eta Europako ekaien hornidura ugariren bidez, kontrabandoa eragoztea da, holandarrena batik bat.

Ekin honek iraun zuen laurogei urteetan, ontziratzeko, lehorreratzeko, zamatasun handiko ontziak egiteko eta konpontzeko gunea izan genuen Pasaia. Honek denak utzi behar zukeen arrastoren bat gure inguruko zokoren batean, eragin sozialen bat portualdean. Alabaina, eskura dauzkagun agirietan (Sevillako, Venezuelako eta Herbeheretako artxiboetatik at alegia) mingarri egiten zaizkigun hutsuneak baino ez ditugu aurkituko 1770 arte, eta portuaren egoera soziala eta materiala ezagutzeko batere daturik gabe utzi gaituzte. Portuak 1870ean hasi zuen industriatzeak ezabatu egin zituen aurreko ezaugarriak, eta Konpainiaren pasarte historiko honen nondik norakoa oroitaraz liezagukeen ez zurik ez harririk, deus ez daukagu.

1 - Testuaren amaieran liburu zerrenda bat erantsi dugu gaia sakondu nahi izan ezkero baliagarri

Argi daude, beraz, gure lan honen erronkak:

- Batetik, badiaren eta bere inguruko jendearen bizimodua irudikatzea Konpainiaren ekinak iraun zuen artean: zer zekarren halako ontzietan bidaiatzeak, nolako egoeratan zetozen itzultzen zirenak, sortutako aberastasunari zeintzuek ateratzen zioten mozkina ontziratu behar izan gabetarik, zer aldaketak gertatu ziren portuaren itxuran nazioarteko itsas merkataritza honen ondorioz, zenbat gatazka piztu zituen…

- Bestetik, Errege Konpainiak Karibeko bazterretan nolako jarduera zeukan argitara ekartzea.

Horrela, Atlantikoaren hango ertzari begira arituko gara. Ez dugu ahaztera utzi behar merkatari-kostazainen egitekoak (kontrabandistak ere baziren) eremu geografiko eta politiko zehatz baten barruan eratu zirela. Hainbesteraino non ikerlari venezuelarren idazkunak ezinbestekoak zaizkigun Caracasen, La Guairan, Puerto Cabellon, Maracaibon, Macuton, Curaçaon eta beste hainbat tokitan Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarrak egindakoen ikuspegi osoa hartuko badugu. Gaur egun urrun eta exotikotzat dauzkagun bazterrok indartsu eta nabarmen izan ziren Pasaiako badiaren bizimoduaren zati XVIII. mende osoan.

## 1.1 Baina… Zer ote zen akzio konpainia bat XVIII. mendean?

Gisa honetako konpainiak XVII. mende hasieran azaldu ziren, Europako monarkien eraginez: Ekialdeko Indietako Konpainia Britainiarra (1600), Ekialdeko Indietako Konpainia Herbeheretarra (1602), Mendebaldeko Indietakoa (1621). Mendean zehar, gainerako monarkiek ere antzeko ekimenak babestu zituzten, Portugalek 1628an, Danimarkak 1616an eta 1671an, Frantziak 1664an… Sistema berdina ezarri zen Ipar Amerikan, Afrikan eta geroago Australian eta Ozeanian egin beharreko merkataritzarako, ustiagarri zeukan lurraldearen izena hartuz. Konpainiaren kapitala partzuer guztiek ezarritako diruaz osatzen zen, eta monarkia horiek denak ere, eragile eta babesle ez ezik, gainerakoak bezalako partzuerrak ziren beren partxoarekin. Bakoitzak ezarritakoaren arabera banatzen ziren irabaziak.

Baina, aldi berean, konpainiok lekuan lekuko agintaritzarekin sinaturiko hitzarmenen araberako ekina abiatzen zuten, jarduteko baimena lurralde zehatz baten mugapekoa baitzen.

Merkataritza konpainia hauek, hala ere, ezaugarri bertsuak zeuzkaten: kapitala akziotan metatua izatea, pribilegioa, monopolioa, kolonialismoa, Koroaren babesa. Konpainiotan mozkin mota bakarra nagusitzen da, kontaduriakoa, diru jakin eta jorian. Urrun daude, beraz, "tratua" hitzaren adiera jatorretik eta gizalegearen barruan zegoen "konpentsazio" zeritzanetik, Konpainion lanak ez du zer ikusirik ohiko merkataritzarekin. Baldintza berriok bestelako jarduera




*Garai hartan Venezuelako itsasertza bost probintzia edo gobernazio desberdinetan banatua zegoen, eta erdigune politiko-administratibo zehatzik gabe iraun zuen XVIII. mendeko azken laurdena bitartean. Venezuelan zen kolonia europar handiaren erdigune politikoarena, nolabait, Caracas-La Guaira ardatzak egiten zuen, eta nukleo hartara eta Puerto Cabellora bideratu ohi zuen Konpainiak bere jarduera, azken portu honetan artatzen baitzituzten ontziak Venezuelako egonaldian, eta huraxe baitzen korsoa edo kostazaintza egiteko basea. Hiru puntu hauetan, Caracasen, La Guairan eta Puerto Cabellon merkaturatzen zen Europara bidali beharreko ekoizpena (Cadizera eta Pasaiara gehienbat), eta Amerikako beste portuetarakoa ere bai. Coro, Barquisemito eta San Felipe bezalako hiri txikiagoek bazituzten biltegiak, bulegoak eta merkataritzako agenteak. Baita Maracaibok ere 1752tik aurrera, eta Barcelonak eta Cumanak 1761etik. Lekuotatik guztiotatik ontzi arinagoek egiten zituzten manufakturen garraioa, haizete eta korronteei buruz itsaskatu beharrez sartalderantz La Guairatik eta Puerto Cabellotik. Beste norantzan, Puerto Cabellorantz eta La Guairarantz, laburragoak eta seguruagoak ziren bidaiak. Ekialdera samur, eta sartaldera, Cumanara eta Barcelonara, beti zakar itsasketa.*

ekonomiko bat, bestelako harreman mota bat iragarri zuten nazioartean. Geure hauxe, gaur egunekoa.

Oro har eta Atlantikoari dagokionez, harremanok triangelua osatzen dute: Europak ekai landuak Afrikara (burdina, kotoi oihalak…), Afrikan esklabo truke saldu, esklaboak Amerikara eraman lehengaiak ateratzeko eta ekoizteko, Amerikako lehengaiok Europara ekarri. Europak lehengaiak kontsumitu edo landu, landutakoak berriro sartu zirkuitu berean. Horra triangelua ostera.

Hau dena ez litzateke posible izango komunitatean eta ordainaren trukean edo oinarrizko beharrizanetarako antolatua den sistema ekonomikoan. Merkataritza mozkinkorra da halako trafikoa sortu zutenen helburua, eta horretarako lankostu albait urrienak ezarri zituen eta atertu gabe sustatu zuen bere ekaien demanda.

Salgaiekin batera, eta Konpainien ordezkarien manupeko, kolonoak ere garraiatzen zituzten ontziek. Mota guztietako propagandaz gain, ezagunak ziren herriz herri ibiltzen ziren "gakoak" paradisua predikatzen, ontziratzeko kontratuak eskuan. Ameriketan ez omen zegoen izerditu beharrik, naturak berak ematen zuenez ugari eta urririk.

Paradisurik ez eta baldintza tamalgarritako bidaiak. Bermudetako horretan, Virginia Companyko *Sea-Venture* ontzia hondoratu zen 1611n. Bitxia izan zen, lehorra onik zapaldu ahal izan zutenek bizimodu hobea aurkitu zuten askoz Bermudetan bertan, Virgianara heldutako kolonoek aurkitu zutena baino. Baldintza gogorrenetan egin behar zen lana, bizia galtzeko arriskuan. Kolonizazio honen laudatzailea izan genuen William Shakespeare izeneko hura *Ekaitza lanean (The Tempest*). Hain zuzen, Virginia Companyko akzioduna zen.



La Guaira, 1887. urtean. *Martin, K. Westindische Skizzen. Reise-Erinnerungen. Separatausgabe des 1en Theils von Bericht über eine Reise nach Niederländisch West-Indien*

Kolonietara joateko prest zegoen multzo handia, Europak jasaten zuen langabeziak sortua zen. Teoria, hitzarmen eta lege bidez, langabetuen multzoa "jende alferra" izendatu eta sailkatu zuten, eta horrenbestez, lanera bortxaz behartu zitekeena lanindar merkea bilakatzeko. Langabezia hori ekarri zuena herri lurrak jabedun bihurtzea izan zen Peter Linebaugh-ek eta Marcus Redikeri-k azaldu duten bezala, eta jende alferra beti dago eskura hala moduzko paradisuren batera bidaltzeko[1]. Milaka pertsona ogibiderik gabe utziz, horrelakoak justifikatzeko ideologia erlijioso-ekonomikoa garatuz eta bideragarri egingo duten legeak aprobatuz eta pobretu nahi ez duena zanpatuz, etsi-etsian edozer onartzeko prest dagoen lanindarra ugaritzeko tresneria eraikitzen da. Aldi berean, lurra ustiatzeko sistema berriek irabazi handiagoak ematen dituzte, alegia, kolonietan ezartzeko edo kolonietatik ekarritako luxuzko edo kontsumoko ekai berriak erosteko balia litekeen kapital bat.

Aipatu autore biok dioskutenez, kolono izateko asmoz ontziratu ziren haientzat, bidaia ikastaro trinko bat bihurtzen zen, heziketa moduko bat lanaren, kooperazioaren eta diziplinaren bitartez, esklabotzaren antzeko zer edo zer.

Zinemak ospetsu egin zuen Bounty ontziko motina (1789) eredu bikaina da, "helburu zientifikoak" zituen arren, itsasketa eta antolamendu garratz haiek ikusteko: egun idilikotzat hartzen ditugun uharte haietako batean jarri behar izan zuten bizitzen, eta gizarte hartan, jabego pribaturik gabe, merkatuaren legerik gabe, kontsumoaren logikarik gabe bizi ziren tahitiarren artean ezin zuten moldatu mundua eta giza harremanak bestera ulertzen zituen bertako gizarte berri hartan[2].

2 - Horrelako egoerak islatzen dituzten artelanak ditugu Simon Leys-en *Les naufragés du Batavia* nobela edo Peter Andrikidis-en *The Incredible Journey of Mary Bryant* filma.

Paradisuko bidea arriskuz betea egon zitekeen. Bountyrena bezalako zenbat ez ote ziren gertatu? Ezin konta ahala. Azken finean, gure arbasoen oldar atabikoa eta hori dena, itsasorako grina ospetsua… egia ote? Ez ote dago hurbilago Mediterraneoa pateretan trabeskatzen saiatzen direnen odiseatik?

Ez dugu ahaztu behar gure Konpainiaren historiak merkataritzatik adina daukala gerratik. Eta ez bakarrik ontziaren antolamendua kostazain-kortsaria zelako, XVIII. mendeko gerraren testuinguruak mundu mailako gatazka dirudielako baizik zenbait urtetan. Bistan da, beraz, zaila dela aurkitzea hondamendien berri ematen duen paperik. Amerikako karrerak zeuzkan arriskuak aipatzen dituztenen artean aurkitu dugu bat, bitxia, larrialdiak arren onik amaitutakoa. Lekukotasun hau Maria Abaria jiren gutun eta oharretan aurkitu dugu[II]. Jose Joakin Mendizabal aipatzen du, Baionaren eta Donostiaren artekoa egiten zuen ontzi bateko kapitaina. Mendizabal itsastar eta gerlari garratza dela dio, Europakoak ez ezik Ameriketako itsasoak ere ezagutzen dituela, eta uko egin diola armadak eskaintzen zion karguari, ez omen zelako bere emaztearen atsegineko lanbidea. Gaztetan katigu egon zen Aljerren, baina itsasoan hain trebea izanik, hango uretan ibili zuten kristauen kontra borrokan, kortsari gisa: “Morroi honek, marinel handia eta gerlari handia izanik bere ibilietan gertatu zaizkion topaketetan erakutsi duen bezala, ezetza eman zuen Errege Armadak ontziko kapitaina izatea eskaini zionean, emazteak ez omen zuelako nahi eta berak ere nahiago omen zuelako bere sorterrian bizi. Hainbeste itsasketa egin ditu non Europakoak eta Ameriketako itsasoak osotoro ezagutzen dituen, eta gaztetxoa zelarik mairuak baitzuten atzitu, Aljerrera eraman zuten, han zortzi urtez egon zen morroilope, baina itsasoan zeukan trebetasuna jakinik, pilotu hartu zuten mairuek beti kristauen aurka, eta azkenik ihes egin ahal izan zuen bere sorterrira etortzeko, eta hemen Konpainiaren zerbitzuan dago itsasontzi kapitain…”[III].



La Guaira 1911 urtean.
*Cassier's magazine.*
*en.wikipedia.org/wiki/File:La_Guaira,_Venezuela_(1911).jpg*

## 1.2 Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra

Europak XVIII. mendean eta munduan barrena hedatzen duen ekoizpen eta merkataritza molde horretan sortu zen 1728an Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra. Izenak berak erakusten du:

- Gipuzkoarra, sustatzaileak hala zirelako (Donostiako Merkataritza Kontsulatua eta probintziako elitea), eta hala berean eraman eta ekarri egiten zen portua (Pasaia).

- Caracas, ematen zaion ekinaren eremuagatik: Venezuela probintzia (Caracas hiriburu), haren itsasertza eta baita barrena ere hantxe baitago holandarren esku, Espainiako Errege Ogasunaren kontroletik kanpo, trafiko horretaz ximikorik ere jasotzen ez duela.

- Erregenekoa, Koroak hainbat interes dituelako bertan, Konpainiako akziodun handiena izanik.

Espainiako Koroare ikuspuntutik, Konpainiak ahalegin berri bat suposatzen du potentzia aurkariek kontrola ez ditzaten Indietan, alegia, Amerikan bildutako aberastasuna. Honako honetan, Herbehereetako merkatariek. Horrela, Konpainia Gipuzkoarra sortu eta garatu bitarteko gertakarietan aipatzekoa da 1729an, alegia, ofizialki sortutzat eman eta berehala, Patiñok, Espainiaren Marinako Intendente Nagusia 1717az geroztik), bertan behera utzi zuen "baimendutako ontzia". Utrecht-eko Bake Itunaren ondorioz

Casa Zuloaga, Hondarribian.



lortutako agiri honekin, ingelesek, Hegoaldeko Itsas Konpainia tarteko, merkataritza konboiak bidaltzen ahal zituzten Ameriketara, Espainiako ogasunak ardit bat bera ere jasotzen ez zuela, negozioa bere lege eremuan gauzatzen zen arren[IV].

Gipuzkoako eliteek ere bazuten eskurik jabego eta kapital metaketan oinarritutako ekonomiaren praktikan eta proiektu ideologikoan, beren ikuspuntutik aukera bikaina zen Europako beste leku batzuetan ekinean ari ziren gainerako konpainien sistema eredutzat harturik jarduteko. Hala ere gogoan hartzekoa da, lehenik, ekinbide hau jauntxo ilustratuek sortutako *Euskalerriko Adiskideen Errege Elkartearen* aurrekoa dela, eta bigarrenik, Konpainiaren sustatzaile gehienak Donostian finkaturiko merkatariak zirela, eta berauen interesak ez zetozela beti bat probintzia barneko jauntxoenekin. Donostiarren lehentasuna, itsasoko merkataritzan Bilbok eta Baionak kendua zieten lekua berreskuratzea zen, Jesus Astigarragak argitaratutako lanek argitzen duten bezala[V].

Bestalde, herri basoen ondasunetarako eskubideak galdu dituztenei edo baserriaren banaketatik kanpo geratutakoei mentura interesgarria zaie "Indietarako bidaia" lanik eta dirubiderik gabeko egoeratik irten ahal izateko.

Une sozial hau zehazteko, ezin genezake aipatu gabe utzi Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarra sortzeko prestakuntzak 1718ko matxinadan jabetzak eta ondasunak erre zizkieten zenbait jauntxok abiatu zituztela, alegia, oinarri liberaleko ekonomia berriaren eta Konpainiaren beraren sustatzaile eta ideologoek.

Venezuelako ekimen kolonialaren ikuspegi orokorrerako ezinbestekoa zaigu 1720az geroztik Pedro Jose Olabarriagak burututako ikerketa eta balioztatzea. Zalantza izatekoa  baldin bada ere Konpainiaren eta txostenaren arteko kausatasuna ("Jakinarazte Orokor eta Banakoa Venezuelako Probintziaren oraingo egoeraz"), "bideragarritasun plan bat" dute Olabarriagarena Caracasko merkataritza enpresek, Venezuelako naturaren emanak mozkin fiskal eta komertzial bihurrarazteko aukerak agertzen dituenez. Kakaoa ez ezik, anila, ke-orri edo tabakoa, larrua, Brasilgo zura, kotoia eta beste aipatzen ditu. Bada, beraz, zer ekoitzi eta zer merkaturatu. Bere kalkuluetan, Olabarriagak barne hartzen ditu bertako agintariek, esklaboen lanindarraren eta kontsumorako ekoizpenen truke, merkatari holandarrekin eta ingelesekin darabilten gisa guztietako kontrabandoaren nolakoa eta zenbatekoa. Horrela, iragarri egiten ditu Konpainiak hartu beharko zituen funtzioak (ustiaketakoak, baina baita kontrabandoaren aurkakoak ere), ekina errentagarria izango bazen.

Salmenta prezioaren garestiak eta bereziki Europako eliteen demandak bermatzen dute kakaoaren mozkina. Gorago aipatu dugun bezala, ekai hau nazioarteko merkataritzak oinarri daukan kontsumoko ekonomian kokatzen

da, beraz. Baina, azukrearekin gertatu antzera, kakaoaren ekoizpen kostu murritza esklaboek egindako lanaren ondorioa da. Hainbesteraino non enkomienda delakoen antolamendu koloniala ordezkatzen duen. Adituek diotenez, XVIII. mendean Ameriketara heldutako esklaboen %10 kakao landetan aritzeko zuten ekarri[VI]. Konpainiak indartu egin zuen giza-trafiko hau eta, hala berean, handitu egin zuen kakaoa esportatzeko landarediek eta etxaldeek hartutako lurren eremua[VII]. Azkenik, aipatzekoa da ekaiaren errentagarritasuna ez zela esklaboen lanak bakarrik emandakoa, salmenta prezioak ere bazuen bere munta, garestia baitzen oso Europan.

Aldi berean, Europa mailan gorago ohartarazi ditugun ezaugarrietatik bi ari ziren gauzatzen Gipuzkoan: batetik herri ondasun eta baliabideetarako eskubidea murriztea, horrek dakarren pobreziaren ugaritzearekin, eta bestetik ohiturak, usadioak, legeak eta ekonomia aldatzen dituzten zenbait familia bakanek metatzea jabegoa eta kapitala.

Hain da antzekoa jauntxo gauen jokabidea Atlantikoaren bi bazterretan... Gipuzkoako Batzar Nagusiek ez zuten alboratu ordaindu behar gabeko lanindarra ekartzea Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarraren ontzietara. Hots, bortxazko langileak, derrigortuak, doakoak. Horrenbestez, noski, probintzian ugaritzen ari ziren lurgabetu eta etxegabetu arloteak armadarako diziplinatzeaz gain, irabaziak gizenduko zituzten akziodunek. Ez dugu begi bistatik urrundu behar XVIII. mendeko lehen urteetan hasia zirela probintziako agintariak teorizatzen nork merezi zuen erakunde publikoen laguntza eta nork ez, laguntzaren kontzeptua berrituz eta, honenbestez, zigorrarena[VIII]. Kasualitatea ote den gaur egun ezaguna egitea kontu hau? Ezta hurrik eman ere.

Ontzietara bortxazko marinelak ekartzeko asmo honek ez zuen guztizko arrakastarik izan. Patiñok eragotzi zuen arloteen atxilotze orokor hura, presondegiaren adinako zigorra izango litzatekeela argudiatuz, eta ez zela onargarri Aldundiak kolektibo oso bat izenda zezan alfertzat. Definizioa zehaztea eskatu zuen Patiñok, "alferra" izenda zitekeena, zenbaitetan, ontzietako lanera zigortzen ahal zela erantsiz, baina ez epaiketa batean entzuna izan gabe zegokion auzitegian: mutil alferrak, lanbidera gabe nahikoa ez edo ezer egiten ez dutenak, emazteei bizimodu zabarra emanik etxekalte bizi diren ezkondu alprojak, galduan bizi diren edo halako susmoa ematen dutenak, jadanik kaletxakur dabiltzanak… Baina ez, oro har, Aldundiak alfertzat hartu nahi lituzkeenak. Asmoaren ondorioa Gipuzkoako agintariek espero zutena baino murritzagoa izan zen[IX]: urteak ziren erabakia zutela eskean zebiltzan hamar urtetik aurrerako umeak arrantzara, baleatara edo kortsaritara behartzen ahal zirela, bizimodua ateratzeko lanbideren bat ikas zezaten.

Gipuzkoak helegiteak bidali zituen Madrilera, baina Estatu Kontseiluak ez zuen amore eman, ez zuen begi onez jotzen lapurrak edo lapur izan zitezkeenak gerraontzietako



San Pedro de Tunasanen, Biñan eskualdean Konpainiak zeuzkan kakao mintegiak (1745). *Archivo General de Indias*. MP-FILIPINAS, 158.

eskifaian sartzea, zeren, aipatua dugunez, gogor edo apal, gori edo epel, gerra baitzen Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarraren egitekoetatik bat[X].

Ez da akordutik galtzekoa kakaoaren uzta antolatu eta Iberiako Penintsulara merkaturatzeko monopolioa edukitzeaz beste[3], Konpainiak kortsari edo kostazain lanak egin behar zituela, baimendua zegoela, agindua hartua zegoela, kontrabando mota guztiak armaz eragozteko. Gainera, Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarrak bere manupean zeuzkan Gipuzkoako armaginak Deba aldean, bereziki Soraluzeko Errege Arma Fabrikaren bitartez[XI].

Konpainiak zintzoki jokatu zuen jazarpen hauetan, eta kontrabandoaren galera honek ekarri zituen Konpainiaren aurka altxatutako bi matxinada (Andresote-rena 1730-32an eta Juan Francisco de Leon-ena 1749-52ean), jokabide hori kaltegarria zelako holandarrekin aspalditik egiten zen traturako, eta gainbehera eragiten zuelako ekoizle kontrabandisten ekonomian, koloniako agintea zeukaten erakundeetatik lekutuz. Katramila asko argitu eta ñabardura asko

3 - Venezuelatik ateratzen zen kakao gehienak, guztiaren herena eta erdia bitarte, Veracruz-Nuevo Mexico zuen helmuga.



1743ko jazarra La Guairako badian.. *Diary of Caracas 1743 (Engraving of La Gauria 1743) [Public domain], via Wikimedia Commons*

erantsi behar zaizkion arren, oro har esan genezake lehendik Venezuelan errotua zegoen bertako eliteak ez zuela sarrerarik izan Konpainiako kargu nagusietan, bere kasa baitziharduen, eta neurri handi batean bere bururako araudian. Konpainia Gipuzkoarraren aurkako tenkadurak hainbesteraino jo zuen non Koroak amore eman behar izan zuen Konpainiaren egitura alda zedin, esate baterako, egoitza ofiziala Madrilera eramanez. Arestian aipatu Astigarragak dioenez, neurri horien ondorioz Konpainiak, adiera zehatzean, utzi egin zion akziodun konpainia izateari, "sasipublikoa" izatera etorriz. Zeukan pribilegiozko merkataritzari eutsiko bazion, onartu beharra izan zuen Amerikako koloniak hornitzea ez Europako ekaiekin, Frantziako oihalekin adibidez, baizik Espainiako erresuman ekoitzitakoekin, kalitate txarragokoak eta garestiagoak izanagatik. Gipuzkoan, aldaketa honek bi eliteen hurbilketa ekar zezakeen, probintziakoena eta Donostiakoarena: Konpainiaren azken urteetan, adibidez, Euskalerriko Adiskideen Errege Elkartearen babespean sortua zen Bergarako lantegian egindako labanek irteera aurkitu zuten, salbide bat. Baina ez zioten errentagarritasunik atera.

Hala berean, Konpainia Gipuzkoarrak ez zuen atzera egiten egoerak gerra gorrian sartzea eskatzen bazuen. Horrela hartu zuen esku hainbat batailatan, ingelesek Karibean egindako oldarrak hautsiz eta bere akziodunen interesak babestuz. Buruzpide hau garbiro ikusi ahal izan zen *Guerra del Asiento* edo Jenkisen Belarriaren Gerra esan ohi zaion gatazkan, bere negozioa lehiatzaile zituzten ingelesen eskura utzi gabe. Gatazka honek 1739tik 1748ra iraun zuen, baina 1742tik aurrera Europan lehertua zen beste gerra baten luzapena baino ez zela izan diote historialariek, Austriako Suzesio Gerrarena. Cartagena de Indias, Portobelo, La Guaira edo Kubaren kontra ingelesek egindako jazarrek eta Georgiako batailak dira gerra honen zedarrietako batzuk.

Gure ikerketa honi dagozkionetan sartzen da La Guairaren aurkako bigarren erasoa, 1743ko martxoaren 2an. Hiru ordu eta erdiko bonbardaketa elkarri kostako bateriek eta bi lerrotan ainguratutako itsasontzi ingelesek, lehorreratzeko asmoz. Jazarra ezin bururuturik, Knowles ingeles komandanteak Puerto Cabellora jo zuen, Konpainia Gipuzkoarraren beste kokaleku garrantzitsu bat zenez. Hemen ere ezin izan zuen apurtu Hondarribian jaiotako Gabriel Zuloaga gobernadore berriak antolatua zeukan defentsa. Haren ondoan Iturriaga azpeitiarra nabarmendu zen, 1741ean zaildua Habanako defentsan. Lotura estua zeukan Iturriagak Konpainiarekin. Aurreneko zuzendaria izan zen, eta haren alde egin zuen sutsu Madrilen, Juan Francisco de Leonen aipatu altxamenduaren ondorioz. Konpainia barruan zeukan lanaz gainera, Mugen Espedizioaren buru izan zen, kolonizazioa Orinoco eta La Guayanaren aldera finkatuz eta hedatuz.

Esan dugun bezala, ingelesen jazarrei atzera eraginik eta Juan Francisco de Leonen altxamenduari buru egin ondoren, berritu egin zituzten Konpainiaren estatutuak, Venezuelako kapitalari sarrera emanez akzioetan. Ramon Aizpuruak dioen bezala, Caracastarrek berek egina zioten uko eta boikota ordea, Venezuelara heldu zeneko, Gipuzkoarraren partzuer izateari. Alde batetik bertakoen izen ona, hiritarren harrotasuna min hartua zen, beraien iritzia eskatu gabe sortu zelako merkatari konpainia hori, eta beste alde batetik akzioak erosteko premiarik ez, kontrolpean zeukatenez diru gizenak ematen zizkien kakao tratua Veracruzekin (Mexiko).

Aipatutako Iturriagak estatutuen berrikuntza ekarriko zuten salaketak faltsuak zirela dio[XII], Konpainiaren jokabidearen defentsan. Horren froga hiru alor dakartza gogora, Konpainiaren sorrerako helburuekin bat egiten dutenak. Lehenik, Errege Ogasunari dakarzkion diru sarrerak; bigarrenik, merkataritza kolonialean lehiatzen zaizkion Europako beste potentzien aurka indartzea lurraldez eta estrategiaz; eta hirugarrenik, bistan da, kakaoaren merkataritzaren arrakasta, baina baita urre eta zilar meategiena ere. Iturriagak alderatu egin zuen 1728az geroztikako egoera eta aurrekoa, 1706tik 1721era ez zela ontzi bakar bat abiatu penintsulara helburu komertzialekin argituz. Era berean, kalkulatua zeukan 1700 eta 1730 artean merkatura atera zen kakaoa 642.023 anegakoa izan zela, eta Konpainiari esker, 1730 eta 1748 artean kopuru askoz handiagoa merkaturatu zela, 858.978 anega. Beraz, handiagoa zen Konpainiak hemezortzi urtez fakturatutako kakao kopurua, aurreko hogeita hamarretan fakturatutakoa baino.

Ahaleginok arren, ezinezkoa egin zitzaien Konpainiaren berrikuntza eragoztea, eta Madrilen zuela egoitza iraun zuen lanean 1784-85ean desegin zen arte Filipinetako Konpainiari legezko bizia emanez. Konpainia berri hau Gipuzkoarraren zorren eta ondasunen jabe egin zen, eta Asiarekiko merkataritza erantsi zion Pasaia-La Guaira trafikoari. Konpainia honen antolaketan herritasun espainiarra ere bazeukan François Cabarrus baionarra nabarmentzen da, ilustrazioko seme ezaguna, besteak beste, Espainiako lehen bankua sortu zuelako, emaitza on askorik gabea baina. Abizena oso ezaguna zen Pasaian, bertan baitzeukan, ongi errotua, merkataritzarako egoitza.

Zer dela eta, horrelako aldakuntza? Hauxe, trinkoa arrazoia: Konpainiak ez zuela jada mozkinik banatzen akziodunen

artean. Nola iritsi ote zen horretara? Juan Bautista Goizuetak, Konpainiaren zuzendari 1781ean, ezin hobeki esplikatu zuen ezohiko batzarrean aurkeztutako deskarguan, proiektuak bideragarritasunik ez zeukalako ustea zabaldua zenez iritzi publikoan[XIII].

Aurrena, ohartemanan behar dugu zein zen nazioarteko egoera une hartan: Ingalaterrak buru egin behar zien Iparramerikan zituen kolonien matxinadari, Estatu Batuak sortzeko oinarriak ezarri ziren gatazkan. Horretan, gainerako potentziek beren interesen eta aliantzen arabera jokatu zuten. Espainiako Koroa iparramerikarren alde kokatu zen, alegia, britainiarren aurkako gerran.

Goizuetak hamazazpi urte txar eta hogeita hamabi urte on bereizi zituen 1730-1779 aldian. Txarren artean, Konpainia sortu eta Venezuelan finkatu arteko bostak eta beste hamar urte zenbait gerra direla kausa 1740-1762 artean, hamalau ontzi galtzeraino. Gainerako bi urteak, 1749-1751, arestian aipatutako matxinadei erantsi behar zaizkie, faktore edo agenteak kanporatu eta merkataritza bertan behera utzi zituztenekoak. Bake aroan, berriz, beste bost ontzi hondoratu zitzaizkien 1753 eta 1767 artean

Dena dela, ongiroak iraun zuen hogeita hamabi urteetan, ezarritako dirua %325ean banatzera heldu zen, eta %200etik gora kapitala handitzean egin zen akzioen bikoizketan eta hirukoizketan. Errege Ogasunari zergetan emandakoa ere, %75ean handitu zen.

Joanak dira ordea ongiroko egun eder haiek. Monopolioen azkenak ekarri duen prezioen beherapenak lur joarazi du merkataritza. Gerren eskutik eta ondotik ideia berriak gailendu dira: merkataritza librea edonon eta edonorentzat. Prezioek ezin dute alde aurrez finkatuak egon, eta honek zuzenean kaltetzen du Konpainia Gipuzkoarraren negozioa. Trabak traba, Goizuetak badu esperantzarik Konpainiaren jakinean eta antolamenduan: “Etorkizuna nolanahi datorrela ere, preziso da Konpainiaren indarrak goitik egotea maila askoan merkatari partikularrenetatik egiten den komertzioaren lehian; zeren elkargo honek, bere funtsetan eta Amerikan duen kredituan, hango etxe lantegi eta biltegietan, gaiaren, guretarren eta hangotarren izaeraren eta portaeraren guztizko ezagutzan, baditu inongo zamatzaile partikularrek ezin berdinduko eta are ezin gailenduko erabideak, baldin eta Konpainiaren beraren zuzendaritzak eta kargudunek jokatzen badute, espero litekeen bezala, bizi dugun kinkak eskatzen duen ekonomiaz eta zentzuaz”.

Goizueta sinetsia dago Konpainiak berreskuratuko duela galdutako sendotasunaren puska bat Caracasen dauzkaten sei ontziak okerrik gabe heltzen badira.

Huts egin zuen Goizuetak diagnostikoan. Gerraren zamaz gain, Konpainiaren desegitea zekarten merkataritza libreari buruzko ideiek talka gogorra egiten zutenez gipuzkoarrek Caracasen finkatua zuten ezarpena bezalakoekin. Irtenbide batzuk aurkeztu ziren 1784ko batzarrean, bost urte daramatzate mozkinik banatu gabe, alegia, Amerikako gerra hasi zenez geroztik[XIV]. Beti erosle seguruak zeuzkaten akzio salduerraz haiek ez dute inor kitzikatzen. Eskertzen zaio Konpainiari Venezuelaren garapenean jokatu duen papera, baina eztabaidagarria da eredu horri eustea. Sistemaren aurkakoek diotenez merkataritza konpainiak beharrezkoak dira lurralde bat antolatzeko eta tratua abiatzeko, baina ez gero, aberastasuna ateratakoan edo sortzen duen egitura ezarritakoan. Ikuspuntu horren arabera, konpainiek, handik aurrera, desegin egin behar lukete negozioa esku pribatuetan uzteko. Beraz, Konpainia Gipuzkoarrak eratu zuen bezalako antolamendua lortuta, onena lurralde berriak ikertzea eta ustiatzea izango litzateke, Estatuak eta akziodunek ahalegina egitea batera, bien onuraz: “Ez ote daude oraindik merkataritza ezagutzen ez duten eta Konpainia baten premia duten mugarik gabeko lurralde zabalak, sortzeko eta antolatzeko? Ez gara hain xaloak, perfekzio politiko eta merkatari hau gure gogoan da, ez gure esperoan, eta hainbeste dira guk abiatzeko zain dauden alorrak non huts handia, erratu barkaezina izango bailitzateke halako laguntza ematen digun makina porrokatzea”.

Hain zuzen, ikuspuntu honek egiten du ulergarri, gure ustez, Caracaskoa desegiteari Filipinetakoaren sorrerak ematea segida, honen helburua aurrekoak ezarritako antolamenduak eta merkataritzako zirkuituak Filipinetaraino baliatzea baitzen. Horrela, lurralde berri hau Estatuaren eta bere akziodunen aldeko merkataritzarik ez zutenen multzoan baitzegoen, bideragarria zirudien Europan saltzen ahal ziren ekaietan oinarritutako kolonizazio bat.

## 1.3 Konpainiaren eragina gure gizartean

Manuel Larramendik ematen digu Konpainiaren ekinen ondorio sozialen berri 1756 aldera. Bertatik beratarako lekukotza dugu, Konpainia Gipuzkoatik urrundu zuen berritzearen ondoko emaitza, XVIII. mendeak Gipuzkoak eman zituen pentsalari nagusienetako baten aburuan[XV]. Arrakasta komertziala goratzen du Larramendik, Venezuelako kakaoaren kalitatea laudatuz, andeatu eta nahastu gabe ekarria zenez Europaraino. Aurrenetako bidaietan abiatutakoen patua ere gogoan dauka. Zuzendariak aberastu izana zilegi egingo litzaioke, halako lana egin eta halako trabak gainditu baitzituzten, baina ez zen horrelakorik gertatu, ez dira zuzendariak izan kakaoaren tratuan aberastu direnak, beren izen onak lohitu izan dituzten arren. Noski, ohar hau egiteko ez dauka Larramendik ahaztua 1733an bezala zuzendarien aurka egin ziren salaketak, alegia, Venezuelarekikoa abiatu zenetik bertatik[XVI]. Salaketa hauek, agidanez, Andaluzian kokatuak zeuden merkatarien aldetik zetozen, Gipuzkoarraren monopolioak kaltetuko zituelakoan. Zuzendarien adimena zalantzan jarriz edo agintearen legezkotasuna aurkatuz, paradoxikoa dirudi salaketak, aldi berean jotzen baitituzte bigarreneko saltzailetzat, espekulatzailetzat eta gares-



Panga, jendea garraiatzeko Manilan erabiltzen zuten ontzi mota. Manuel Agoteren egunerokoa, 1787. *Untzi Museoa, Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia.*



Panga, jendea garraiatzeko Manilan erabiltzen zuten ontzi mota. *Manuel Agoteren egunerokoa, 1787. Untzi Museoa, Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia.*

*Paraoa, zama eta jendea garraiatzeko Manilan eta inguruetan erabiltzen zuten ontzi mota. Manuel Agoteren egunerokoa, 1787. Untzi Museoa, Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia.*

ti osotzat. Eta proposatzen duten irtenbidea ere harrigarria da, probintzia izan dadila eskatzen baitute gaia menderatzen duten lauzpasei zaldun izendatuko dituena, kexak ez ugaritzeko. Proposamenak, noski, ez zuen aurrera egin.

Larramendik dioenez, aberastu ordezkariak aberastu ziren, baina lege barruan hala ere, ez direnez haraino joan pobreago itzultzeko. Gisa berean oharrarazten du aberaste hau ez dela egin Konpainiaren edo Probintziaren kaltean, eta frogak erakustea eskatzen die amarruak eta zilegi ez diren tratuak egin dituztela diotenei. Konpainiak zerbitzu handia egin du, Larramendiren hitzetan, kapitainek, ofizialeek, marinelek eta itsas-alorreko langileek txirotasuna utzi eta txukun bizi ahal izateko ere.

Honetaz aipatzekoa da Pasaiako Arrantzaleen Kofradiaren kexa 1791n, esanez Konpainiaren urte ilunak halakoxeak direla beraientzat ere, bien gorabeherak uztartuak daudenez. Hainbesteraino non, alturako merkatarien flotaren sokorri atera behar denean ekaitzen baten mendean delako, edo ontzi horietakoren bat atoian ekarri behar denean, arrantzaleak berak baitira horrelakoak egiten dituztenak, biziak eta materialak arriskuan jarriz.

Zuzendari, ordezkari eta langileenganako begirunea erakusten duen arren, Larramendik ez du horrelako iritzi gozoa akziodunez, salaketa gogorra egiten die akzioen balioak atertu gabe handitzeko amorruaz, irabazia lehenestea oroz gain etika edo usadioko morala kontuan hartu gabe. Jarrera horri erantsi behar litzaioke akziodunak ez direla ontziratzen eta ez dutela zuzenean lan egiten enpresa barruan. Astigarragak berriro jasotzen duenez, era horretan kexatu zen probintziako Errege Ordezkaria, Pedro Cano korrejidorea 1756an. Canok garbi dio errentetatik bizi den dozena bat pertsonen esku geratu dela Venezuelak emandako aberastasuna, eta horrenbestez, koloniarekiko merkataritzak ez duela bertako salerosketa ez zoriontasun publikoa sustatzen.

Bestalde, Larramendik badu esatekorik bakailaotara eta baleatara ez ateratzearen errua Konpainiarena dela uste dutenei; dirua negozio horietan ezartzeko aholkatzen die, malkarrot egiteko beldurrak egon gabe. Dela dela, Larramendik onartzen du baxurako arrantzaleak desagertu egin direla, eta horrekin batera bisigu, mikela, legatz eta bestelako espezieen esportazioa. Hala berean, baxurako arrantzaleak kortsari bihurtu izanak gizonen kanpoaldi luzeak eta etxe zabartzeak ekarri ditu. Gainera, arrantzaren aldian aldiko ohiturak galdurik, arrain sasoitik kanpo hartzen zituzten beste lanbideak galdu dira. Eta horrela, "Caracastarrarena joz" nagitu, lehorreko lanean berandutu… Arazobide dira.

Interesgarria da, gure ustez, geroko lanetan ere aztarna ateratzea Konpainiak sortu zuen aberastasun hau dena zenbateraino izan zen badiaren inguruko bizimodua hobetzeko, edo hobekuntza hau ba ote zen, bizi kalitatean irabazteko lain izan bazitekeen ere, mailadi sozialean gorantz egin ahal izateko adinakoa.




Viet-Nameko Annam erresumako gobernari matxinatu batek Mariano Olea kapitainari emandako estandartea, Txinatik eta Filipinetatik merkataritza esklusiboan jardun ahal izateko baimenarekin bertako itsasertzean. *Manuel Agoteren egunerokoa, 1787. Untzi Museoa, Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia.*

Itzuliko gara aurrerago Larramendik aipatzen dituen arazo hauetara. Orain, azaldu duguna Venezuelan nola gauzatu zen ikusi behar dugu. Alegia, nola antolatu zen Pasaiako badiaren inguruko gizartea Caracaseko Errege Konpainia Gipuzkoarrean parte izateko?



# VENEZUELAKO BIDAIA




La Guaira, Caracasen portua. J. N. Bellin. *[1764]gallica.bnf.fr / Bibliothèque nationale de France*

Gizakiaren pausoek ustera edo ustelera jo dezakete, gauza jakina da. "Gizakiaren erakunde sozialek" ere antzeko ibiliak izaten dituzte. Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarrak, noski, antzeko zuzen-okerretan egin zuen bide, eta areago hatsa eman ziotenek, bereziki ontziak tripulatzen zituzten marinelek eta Konpainia merkataritzako enpresa sendoa izatera eraman zutenek, bakana Hispanoamerikako garai kolonialetan.

Enpresa horrek bildu eta erabili zuen jendetzan, gehienak Amerikan aldi labur edo luze baten ondoan itzultzen ziren, joan-etorrian aritzen ziren, itsasbazter bietan bizi ziren baina Gipuzkoan "finkatuak" nolabait; beste multzo bat, txikia baina jendetsua hala ere, Amerikan geratu zen bizitzen, Venezuelan nagusiki, Venezuelako probintzian zehazki, biztanle gehien zituelako eta "aberastasun" gizenena ematen zielako batetik Koroari zein Konpainiari, eta bestetik ekonomian "eragiten" zuten hariak mugitzen zituen eliteari. Ikuspuntu honetatik saiatuko gara lerro eta berezitasun batzuk eskaintzen, ezaugarri batzuk nabarmentzen eta bi itsasertzetako "Gizpuzkoarraren gizonen" bizimoduaren argazkia egin ahal izateko datu batzuk jasotzen[4].

Asmo hori burutzeko ez dugu joko azken artxiboko azken orriraino. Konpainiari buruz dagoen dokumentazioa txol ugaria da, ezinezkoa litzateke dena ikertzea. Aitzitik, agiri aurkibideen eta bakan erabilitako bibliografiaren erabilera zenbateko-nolako lehenetsiko dugu, baina, hori bai, xeheki eta azken orriraino aztertuz.

## 2.1 Marinelak eta Caracasko Konpainia

Landu nahi dugun gaia ulertzeko ezinbestekoa da Caracasko Konpainiaren ontzien arruta edo itsasketa jarraitzea. Iraun zuen berrogeita hamabost urtean, berrehun eta hirurogeita hamar bidai egin zituen, hor nonbait, joan-etorrikoak gehienak. Ontziak Pasaiatik irteten ziren harantzakoan La Guaira jotzeko lehenik, gero Maracaibo eta Cumana. Honantzakoan Cadiz jotzen zuten aurrena, kolonietan jasotako zama preziatuaren zati bat lehorreratzeko Pasaiara baino lehen. Hemen uzten zuten gero gainerako zama guztia.

Itsasketak derrigor behar du, besteak beste, eskifaiako marinelak trebeak izatea ontziko lanetan, baina jende honi erantsi behar zaizkio txotxo edo marierdikoak (marea-erdikoak, partila edo soldata erdia irabazten zutenak), ontzietako mutiko laguntzaileak alegia, baita halako ibili luzean



Konpainiaren faktoria Puerto Cabellon.

bizitza bermatzeko langileak ere, hala nola sukaldariak, okinak eta ontziaren egitura zaintzeko arduradunak, zurginak eta bestelako teknikariak.

Bidaiari bezala ontziratzen zirenen kopuruak gain hartzen zion ontziak berak behar zituen marinel, ofiziale eta bestelako enplegatuen kopuruari, Konpainiaren zerbitzura zihoazen lehorreko kargulantak ere abiatu behar izaten baitzuten Amerikara. Ez dira ahaztekoak ere agintariak, merkatariak, Amerikan zeudenen ahaideak, apaizak… Ezta polizoiak ere, arduradunen gordean ontziratuak, baina ez ordea, seguru aski, marinelekin traturik egin gabe[XVII].

Bidaia hauetako batzuk ontzi txiki samarretan egin behar izan zituzten, jebekeetan eta fragata txikitan, ontziok berak baitziren iritsitakoan Karibeko bazterrak babestuko zituztenak kostazain lanetan, Venezuelako itsasertzetik Puerto Rikokoetaraino, gutxi gorabehera. Baina berrehun eta hirurogeita hamar bidai haiek egin zituzten gehienak merkataritzako ontziak izan ziren, Atlantikoaren bi aldeetara salerosketako ekaiak garraiatzen zituzten urgaineko biltegi handiak, ongi armatuak joan-etorri luze haietan topatzen ahal zituzten piratei aurre egiteko. Olioa, ardoa, burdinkiak, iltzeteria eramaten zuten Gipuzkoatik Venezuelara, eta Europa Atlantiarretik irina eta oihalak. Koloniatik hona, jakina, kakao preziatu hura zen ekartzen zutena batez ere, "Caracasko kakao karua", nazioarteko merkatuan esaten zitzaion bezala, eta kopuru murritzagotan bidaltzen zen tabakoa Herbehereetara, eta larrua norako zehatzik gabe. Hondar bezala, tropikoak ematen zituen beste zenbait produktu.

Ontzi hauek, babes neurri gisa eta hasierako proiektuaren logikan, marinelez eta ofizialez beteriko nomina zeramaten Venezuelako itsasketan. Izan ere, Atlantikoa zeharkatzeko lanak kudeatu behar zituzten era berean zeuden behartuak Venezuelako bazterrak zaintzera, hala zegoen ezarria Konpainiaren sorrerako hitzarmenean, 1728an[XVIII].

4 - Vicente de Amezaga Arestiren liburu baten erreplika egiten dugu horrenbestez, *Hombres de la Guipuzcoana*, baina "gizon" kontzeptua zabalduz: Amezagak "gizon handiak" dauzka gogoan, guk kontzeptuaren adiera nagusi eta orokorra hartu dugu aintzakotzat.




Filipinetako Errege Konpainiaren egoitza-biltegiaren planoak. *Archivo General de Indias: MP-VENEZUELA, 226*




"La Pura y Limpia Concepción" Fragata

Bidaian ontzi etsairen bat harrapatzen bazuten, Atlantikoan izan edo Karibean izan, bigarren eskifaia bat antolatu behar zen, ez bakarrik ofizialetan, baita marineletan eta tropan ere, huraxe onik eramateko eta legez eskatu ahal izateko bahitura egiteagatik zegozkien eskubideak. Bahitutako ontzi hauek benetako "urre ontziak" ziren sarritan, eta harraparien eskifaia eta Konpainia bera ez ezik, Espainiako Errege Ogasuna ere gizentzen zuten. Horretatik zetorren arrantzaleak kortsari bihurtzearen arrakasta, eta baserrien utzikeria[XIX].

Ontzietan bazihoazen "legezko" pasaiariak ere, garai hartan "Indietarako igarobidea" esaten zitzaion baimenarekin. Espainiako agintariek zorrotz kontrolatzen zuten Ameriketara joan-etorrian zebilen jendea. Ez osorik eta ikertzeko zailak, baina badaude bidaiari hauen zerrendak[XX].

Eta "legezateko" pasaiariak ere bazihoazen, hots, polizoiak, ontziaren barrunbeetan gorderik, kukuturik (marinelekin elkar adituta, noski), Venezuelan nola-halako etorkizun hobeago bat aurkituko zutelakoan. Gerardo Vivasen arabera, badirudi polizoien kopurua marinelen %10 adinakoa izatea, frogatzen samurra ez bada ere[XXI].

Jakitekoa litzateke zenbat gipuzkoar eta bereziki zenbat pasaitar batu ote ziren Konpainiaren ontzietara. Begi bistakoa da kontratatutako marinelak handik eta hemendik helduko zirela, baina ez genuke txaldankeriatzat hartuko gehienak gipuzkoarrak izango zirela esatea, eta haietako ez gutxi Pasaiako portu ingurukoak eta gainerako arrantza portuetakoak, Hondarribitik Mutrikuraino Gipuzkoako kostan eta baita haratagokoak ere bi alderdietara, Lapurdirantz eta Bizkairantz.

Bere bizi osoan (1728-1784) Konpainiak zenbat marinel behar izan zituen, ez da erraz argitzen ahal den kontua: autore batzuek, aipamen okerrak eginez, 12.000 marinel izan zirela diote[XXII]; beste batzuen ustez 2.500 izan ziren, baina ez digute ematen kopuru horren nondikakoa. Zaila da zehaztea, baina halako gutxi gorabeherako bat egin genezake kalkulu xume batzuk eginez aurreneko kopurua hartuta, 12.000 marinelena: bidaia bakoitzean 150 eta 250 bitarteko marinelak behar izan ezkero, jakinik Konpainiak guztira 270 bidai egin zituela, 40.500 eta 67.500 marinel edukiko genituzke urte horietan Atlantikoan zehar ontzietan, eta horrek launa edo seina bidaia suposatuko lituzke, alegia, beste horrenbeste urte Konpainiari lotua marinel bakoitza[XXIII].

Alabaina, 2.500 marineleko kopurua hartzen baldin badugu, hamasei edo hamazazpina bidai egingo lituzkete, eta beraz, beste horrenbeste urte Konpainiaren barruan. Egiazki, sobera luze ematen du. Agian batez besteko kopururen batekin, eman dezagun 5.000 eta 7.000 bitarteko marinelekin, osa genezake egiantza handiagoa eduki lezakeen hipotesirik. Kontuan hartu behar litzateke, nola ez, portuetan zein merkataritzan Konpainiak erabiltzen zuen ontziteria eta ontzi egitura guztia: merkatuan ipintzen zituen ekaien tratalariak, zamaketarako batelak eta Kantaurian barrena eta Europako Atlantikoan gora Amsterdam bezalako portuetaraino joan- etorrian zebiltzan ontziak.

Ontziak marinelok erabiltzen zituztenez, zentzu onekoa da Konpainiak hartzen zuen jende gehiena "kostarra" izatea, itsasturiak eta marinelak, nolabait bereiztearren ontzietan izaten zen jerarkia (goi agintariak gehi ofizialak, zamaren itsasketaren arduradunen multzoa alegia), eta eskifaia osatzen zutenena, ontziko maniobra guztietarako eskulana. Baina merkataritzako enpresa zenez, "lehorreko jendea" ere behar zuen, administratzaileak, ordezkariak, agenteak, laguntzaileak, kontadoreak, biltegietakoak…

Bi polo zituen Konpainiak, bata Pasaia/Donostia (eta penintsulan Cadiz nagusi), bestea Caracas, La Guaira eta Puerto Cabello, eta gaur egun Venezuelarenak diren Espainiaren manupeko zenbait probintzia[5]. Bikoiztasun hori hainbat mailatan errepikatzen zen, eta horrela hedatzen zen giza-ekinaren eta erakundearen eragin eremua. Ez da honetan amaitzen sare nahasi samar hau. Gehienak itsasora emanak baldin baziren ere, "Atlantikoko itsasketa" egiten zutenen multzo puska batek (bereziki Amerikarekiko tratuan zerikusia zutenek osatua), Karibeko uretan egiten zen kontrabandoa apurtzeko erabiltzen zuen, "Gipuzkoarraren kortsoa" esaten zitzaion "Karibeko itsasketan".

Atlantikoa zeharkatzen zuen jendetza horretan, multzorik handiena, "Amerikak egin" edo ez, itzuli egiten zen, batean eta bestean egonaldi desberdinak eginez, Atlantikoaren bi ertzetako biztanleak izanik baina Gipuzkoan "finkatuak" nolabait. Multzo txiki batek, berriz, Amerikan antolatu zuen bere bizimodua, Venezuelan batik bat, eta izen bereko probintziako lurretan zehazki: biztanle gehien zituena zenez "aberastasuna" ausarki ematen zien Koroari, Konpainiari, eta bertan bizi eta "makina mugitzen zuten hariak" eskutik zituzten eliteei.

## 2.2 Venezuelako bizipena

Ontziek, Venezuela jotakoan, negu egiten zuten La Guairan, edo Puerto Cabellon gehienbat, itzuliaren zain. Zama lehorreratu ondoren, Ofizialen eta marinelen puska on bat kostazain lanetara destinatzen zuten, Venezuelako ertza zatika ikertzeko ontzi txikiago eta arinagotan, "Karibeko itzulia" ere esan genezakeena eginez, zaintzako itsasketa honek biribil bat osatzen baitzuen, Ekialdeko Karibea inguratuz. Ibili horietan, Espainiaren mende zeuden kostalde osoan kontrabandoan ari ziren ontziak harrapatzen zituzten. Lanbide bikoiztasuna hemen ere, hala komeni gainera harrapatutakoa osorik eraman ahal izateko "legezko harrapaketa" bezala hartuko zuten portuetara.

Noski, lehen itsasketan, Venezuelako kostaldekoan, txalupek eta jekebineek osatzen zuten armada, ontzi txiki eta arinek alegia, arraunez eta oihalez eramatekoak, eta garai hartan esaten zen bezala, "kontserban" zihoazenak beti: ez bakarrik, multzoan bizik, elkarren babesean zainketa hobea egin ahal izateko.

Bigarren itsasketan ere, Karibekoan, kontserban aritzen ziren, baina zamatasun handiagoko ontzitan, jabeketan eta balandratan. Ikertua dagoenez, ibili hauetan zeharo handiak ziren aberasteko aukerak, mordoa baitziren kontrabando egiten edo horrelakoa egiten zutelako susmopean harrapatutako ontziak, eta zama osoa eta ontziaren balioa hiru zatitan banatu ohi zen: Konpainia, marinelak eta Errege Ogasuna. Mila ontzi baino gehiago harrapatu zituzten Konpainiaren kostazainek, eta batzuk "izugarrizko aberastasuna zeramatenak". Halako mahukaren lurrinak kortsari bihurtu zuen marinel asko, lanbide estimatua zen. Euskal marinel-arrantzaleek Venezuelara egindako txangoa, errentagarria zenez, luzerakoa eta errepikatua izaten zen, eta etenik ez zeukan dirubidea. Horrela, ofiziale nahiz okin edo bikeztatzaile, marinelen soldatek eta legezkotzat emandako harrapaketen partilek diru korronte bat osatu zuten Pasaiarantz eta Gipuzkoarantz oro har.

Bada beste alderdi bat kontratatutako langileetan. Marinel batzu-batzuk, eta kargulant asko, Amerikako lurretan errotu ziren, koloniak zeuzkan portu eta hiri bakanetan bereziki, Konpainiak berak emandako aterpe ekonomikoan merkataritza txikia garatuz eta, zenbaitetan, "goragokoak" ziren familietan txertatuz. Venezuelako lurraldearen luzezabalean egindako merkataritzaren zati handi bat, euskaldunak aipatzeko erabiltzen zen terminoa erabiliz, "bizkaitarren esku" zegoen, eta hauek, apurka, ahaideak eta ezagunak ekarri ohi zituzten negozioetan laguntzeko, aurrerago ikusiko dugun moduan.

Venezuelarako ontziratzen zirenean, Pasaian eta Gipuzkoan uzten zituzten emazteak, seme-alabak, gurasoak eta gainerako ahaideak, eta askotan hauen guztien mantenua hartzen zuten bere gain, dirua eta botere edo ahalgo agiriak utziz haien izenean jarduteko. Agiri hauek ezinbestekoak ziren ontziek etorreran zekartzaten "Caracasko bidaliak" jaso eta baliatzeko. Auziak eta arazoak ere uzten zituzten hemen Venezuelarakoan, eta horretarako apoderatua zeritzona izendatu ohi zen, ahalduna. Apoderatzeak, ahalmen emateak

5 - Venezuela, estatu gisa, XIX. mendeko eraikuntza politiko-administratiboa dugu. Zazpi probintziak Venezuelako Kapitaintza Nagusia esan zaion batasunean lotu zirenean sortu zen XVIII. mende amaieran (1776-1789), armen poderioz.




Filipinetako Errege Konpainiaren La Guairako okindegiaren planoak. Archivo General de Indias: MP-VENEZUELA, 227.

eta ahalmen hartzeak, beharrezko lege-tresnak izaten ziren bidaia lasai antzean egiteko.

Itsasgizon haien etorkizuna, hala ere, adurraren araberakoa zen, segurtasunik gabea, eta luze jotzen zuen sorlekutik kanpoko eginkizunak. Lehorrean geratzen ziren ahaideen oreka nolabait bermatzearren, hitzarmenak eta negozioak egiten zituzten Atlantikoaren bi bazterretan, eta honek gisa guztietako auzi nahasi eta azkenbako ugari sortzen zuen. Esan liteke Victor Hugoren *Miserableak* halako bi idazten ahal direla Konpainiako marinelek, ahaideek eta ahaldunek izan zituzten auziekin, hain izan ziren ugariak, desberdinak eta matazak.

Bidaia antolatzeko protokolo batzuk bete behar dira aurrena. Ontziratu aitzin lege neurriak hartzea komeni da ezbeharrik edo heriotzarik gertatzen bada ere, eta baita Konpainiarekin berarekin edo bitartekariekin desadostasunik sortu ezkero dena garbi dadin auzira jo behar izan gabe; baina jo behar balitz, hobe froga agiriak uztea haien esku. Gure lanerako, ordea, auzitegian amaitu zuten desadostasun hauek ditugu, hain zuzen, ahaideei zer nolako lege indarrak ematen zitzaizkien erakusten dizkigutenak, eta partikularzki, bidaiaren alderdi maskulinoa aintzat harturik, emazteei. Agiriok ez dira besterentzakoak bakarrik. Marinelak berak ere kontuz ibili behar du. Sakelan dirua izateko, adibidez, agiri bat behar du berea delako froga gisa. Bestela, dirua bahitu eta batere gabe geratzeko arriskuan da.

Diogun bezala, hau dena eskribauarenean egin beharreko paperetan gauzatzen da ontzira bezperetan. Pasaiako portualdea jendez betea begitantzen dugu, gazte mordoa alokairuan hartutako geletan apopilo eta bidaiarako behar dutenaz hornitzen. Nolanahi dela, Konpainiak eragindako irakin ekonomikoaren zati diren merkataritza bat eta zerbitzu zirkuitu bat sortu zituen ontziratzeak berak.

Zirkuitu hau geitantzeko, bidaiaren prestaketek eta ontziratzeek dakartzaten gorabeherak jakiteko, auzi agirietan oinarritu gara, egoera orokor bat isla dezaketela uste dugun liskarretan. Asmoa, emankorrak iruditu zaizkigun protagonista gehienen narrazio edo istorio amankomuna osatu ahal izatea izan da. Auzi batzuk hautatu ditugu beraz Venezuelarako itsasketan sartutako jendearen bizipenak azaltze alde, ahal izan dugun adina zentratuz protagonista pasaitarretan, beren gertaldiak gainerako bidaiarienen antzekoak direnez[XXIV].

Agiri mordo honek ontziratzeko bete beharreko prozedura argitzen digu: ahaideren bat baimentzea erabakitzeke geratu diren kontuez ardura dadin; ordainketak familiaraino iritsiko direla bermatuko duten lege neurriak hartzea; norbait ahalduntzea aurrerapenak kobra ditzan; fidagarrizko pertsonen bat aurkitzea dirua eta opariak etxeraino ekartzeko; ahalgoa ematea negozioak, maileguak, itzultzeak, herentziak burutzeko… Eta prozedura honek bidaiariak oro hartzen zituen: Ispazterko kapilauak ere, Juan Ziardak, ahalgo bana eman behar izan zien aita-anaiari, zeuzkan

negozioak kontu egin zitzaten bera itsasoan zebilen aldirako Konpainiaren *Santa Ana* ontzian (bidaiarien kapilau gisa, noski), 1763an.

Ontziratzeko derrigorrezkoa zen arren, papertza gaitz hau ez zen aski izaten, batzuetan, arazoak auzira gabe konpontzeko. Eredu, Fermin Iturregi altzotarra. Hiru bidaia egin zituen, azken honetatik itzuli ez. Bigarrenean ingelesek harrapatu 1745ean, eta Ingalaterran preso zeukatela, Exeter-en, testamentua egin zuen. Iturregi artillero zebilen San Jose bergantineko eskribauak egin zuen notariorena. Ontzira baino lehen, eta badaezpadako neurri, Iturregik izeba Madalena Arruarteren ardurapean utzia zuen diru kopuru bat. Artilleroa hildakoan, gurasoek diru horren eskabidea egin. Hala ere, Arruartek dio batean eta bestean eman izan dizkiela Iturregiri berari eta haren gurasoei arropak, zilarrezko botoiak, eskopetak…[XXV].

Auziak bidaiaren hainbat alderdi erakusten du, horregatik da interesgarria: azken nahiak idatziz jasotzearen garrantzia, ez bakarrik ontziratu aurretik, baita ondotik ere; bidaia komertziala izan edo ez, ahaideen bitartekaritza ordaintzeko; Konpainiaren osagarri gerraria, artilleroak kontratatuz; gerran preso amaitzeko arriskua; inbertsioan ezer ezarri duten guztien arteko kontaduria adostua; babes sozial baten premia eta batik bat familiarena, joana antolatzeko; hiltzea ere gerta litekeela nork bere gain hartzea.

Ikusi dugun bezala, atertu gabeko muturgoak eta eskatimak sortzen dituzte urruntasunak eta bitartekariekin izandako gaizki ulertuek. Iduri luke auzira ekartzen diren kontuak ez direla horren garrantzitsuak, baina eskatzen eta ukatzen diren diru kopuruen apalak berak erakusten du, hain zuzen, pobreziatik banantzen zuen marra zeinen mehea zen familia askotan. Adibidez, 1748an Josefa Inazia Iñurrutzunek hamaika peso eta kakao anega erdi bat erreklamatzen dizkie *Afizionatua* esaten dioten Agustin Alkaiagari eta *Amurius* esaten dioten Jose Inazio Etxeberriari. Izan ere, hauen bitartez zituen bidaliak kopuru horiek Iñurrutzunen senarrak. Eta haren gutun bat erakusten du frogatzat: Esposa eta maite neurea. Nik niretzat desio dudan osasuna izango duzulakoan hau hartutakoan. Ondo nago Jangoikoari esker manatu nahi duzun edozertarako, obligazioz dagokidan bezala konplituko dut. *Esposa neurea, badakizu ahal izan ditudan diligentziak egin ditudala etxera joateko eta ezin izandu zait, indarrez gauzkate hemen eta pazientzia eskatzen dizut hurrengoan adur hobea izan arte. Esposa neurea, hor doakizu hamaika peso Agustin Alkaiagarekin eta beste bost Frantzisko Afizionatuarekin, eta halaber doakizu kakao anega bat Amuriusek daramana, Santa Barbarako bikeztatzaileak, Azkaratek eta biok bidalia, erdi bana zuretzat eta Maria Migel Falkorena ardandegikoarentzat, eta halaber enkomenda nazazu Karmengo Andramariari eta jarri nazazu nire aitaren eta amaren esaneko eta goraintziak ugari arrebei eta ilobari eta honenbestez eta Jangoikoari erregu diot guarda zaitzala nik nahi nukeen adina urte*[6] [XXVI].

Salatuen zuribideek agerian uzten dute, mataza baten barruan, arestian aipatu dugun familiakoen arteko harreman sarea. Horrela, Amuriusek dio kakao anega erdia ez emazteari, baizik bidaltzailearen amari eman ziola. Amak, bere aldetik, bidalitako gehiena ez dagokiola bere errainari dio, berari baizik. Auzi honek balio du berehala azalduko dugun gaia aurreratzeko: emakumezkoaren egitekoak Pasaiako badiaren merkataritzan.

Kasu orokor hauek ez ezik, elemeniaka zertzeladak hartzen zuen paperbidea, gaur egun bitxiak edo konprenitzeko zail samarrak egiten zaizkigunak, ahalgoz egindako ezkontza esate baterako, alegia, kanpoan zen pertsona baten ordezko ezkontidea izatea, Venezuelara bidean edo Venezuelatik itzultzerik ez zeukan norbaiten izenean alegia. San Pedroko Manuel Indak ahalgoa utzi zion sinatua Astigarragako Pedro Larramendiri bere izenean ezkon zedin Maria Luisa Isasarekin, hau ere astigarragarra.

Ez ziren ordea aurrera ateratzen sinaturiko ezkontza hitzarmen guztiak. Kasu berezi samara gertatu zen 1748an, hirugarren bati ahalgoa eman norberaren ordezko ezkontzearren, eta hitzarmenaren aukako auzia. Oraintxe ezagutu dugun bikotea daukagu liskar honetan berriro, Pedro Inazio Iñigo eta Josefa Inazia Iñurrutzun, biak ere ahalgo bitartez ezkontzeko adostuak, Pedro Inazio Venezuelara joana zenez. Alabaina, mutilaren aitak, Pedro Angel Iñigok, uko gogorra egin zion ezkontza mota honi, esanez bere semea, agian, Caracasen ezkondua egon zitekeela ordurako, edo bazitekeela ordurako Josefa Inaziarekin ezkondu nahi ez izatea. Alferrikako nekea hartu zuen aitak, Donibaneko bikarioak ezkontza egin ahal izateko epaia jaso baitzuen. Arestian aipatu auzian ikusi dugunez, Josefa Inaziak eta Pedro Inaziok bikote gisa ziharduten aurreko auzian.

Zenbaitetan, emandako hitza edo sinaturiko hitzarmena bete ez, eta alderdietako batek erreklamazioa egin. Halaxe Ana Josefa Belokik, Donibanen bizi zen lesakarrak, Caracasko Konpainiaren agentea zen Juan Bautista Zarandia zuela ahaldun Caracasen bizi zen Manuel Antonio Aldako donostiarraren aurka auzi jotzeko. Beste batzuetan senar-emazteek Amerikan elkartzea espero zuten, beste Beloki baten, Gabrielaren kasuan bezala: baimena eman zion senar Juan Kruz Zataraini Venezuelan bizitzen jartzeko bera Konpainiaren hurrengo bidaiarako prestatzen zen bitartean. Juan Kruz Venezuelako hegoaldean dagoen Barinas probintzian zegoen Errege Ogasunaren ordezkari, Barrancas hirian hain zuzen, Konpainiak Holandara eramaten zuen tabako gehiena ematen zuen lurraldean.

6 - Jatorrian gaztelaniaz. Aipagarri da gutun hauek denak gaztelaniaz idatziak izatea, aski ziur gauden arren euskaraz diktatuak zirela. Ez horrela Lapurdira bidaltzen zirenak, horrakoak denak ziren diktatu hizkuntzan emanak, euskaraz alegia, *Dauphin* ontziaren kasuak agerrarazten duen bezala. Gutun hauek Otoi, çato etxera: *Le Dauphin itsasontziko euskarazko gutunak* (1757) lanean daukagu irakurgarri: https://lapurdum.revues.org/2528




Arrillagatarren etxea San Pedron.

Beste batzuetan, eta bestelako neurririk gabe, ezkon-hitza ematen zioten bikoteek elkarri, notario aurrean sinatua baina. Horrela egin zuten 1767an Jose Inazio Gamonek eta Teresa Inazia Noblezia donibandarrak Jose Inaziok Caracas aldera hartu aitzin Pasaiatik irteteko zegoen *San Pedro y San Pablo* ontzian. Ez dirudi pertsona bera denik 1788ko agiri batean ageri den Inazio Gamon bat ("herritasunez bizkaitarra, ez daki gaztelaniaz"[7]) *Nuestra Señora del Coro* ontzian zebilena Bizente Antonio Ikutza kortsari komandante ospetsuarekin bikeztatzaile, zurgin eta marinel soldatadun, La Guaira bidean. Ahaidea zuen agian beste Gamon bat, Juan Jose, *Nuestra Señora de Aranzazu* eta *San Antonio* jabekeen agintea Ikutzarekin partekatzen ageri dena 1766an.

Arautu beharreko beste alderdi bat zen Konpainiako ofizialeek eta marinelek itsas bazter batetik bestera sal-erosgaiak ekarri eta eramateko zeukaten eskubidea. Trafiko hau libreki ala gordean egiten zen, makutu eta bidaiko kutxetan, poltsatan, zakutan edo fardeletan katonatuak. Konpainiako marinelek eskubidea zeukaten kutxak ontziratzeko beren puskak eramatearren, beti egin ohi zen moduan. Hala ere, Konpainiaren jatorrizko araudian azaldua dago kaltegarria izan zitekeela marinelek "sal-erosgaiak" eramatea, alegia, txikikako salmenta egitea bidaiaren bazter bietan. Horrela, txikikako merkataritza hau debekatu ez ezik, "ideia zoro bat" proposatu zen: Konpainiak ehun pesoko akzioak eskaintzea geroko mozkinez interesatuak egon zitezkeen marinelei, azpikeriek ekar zitzaketen kalteak alboratzeko.

Arizabalo-Olaberriatarren edo Nobleziatarren antzera maila ekonomiko on samarrean zeudenek akzioak erosi bazituzten ere, marinelak akziodunen multzora ekartzeko ideiak ez zuen biderik egin. Horrenbestez, ohitura bihurtu zen marinelek ekaiak eta fruituak ontziratzea beren onura partikularrerako Errege Agintarien eta Konpainiako direktiboen isilean eta ontziko ofizialeen ezikusian: oihalak eta jantziak Amerikarako, kakaoa eta larruak Europarako, eta baita zilar dirua ere.

## 2.3 Itzuliko ez direnak

Zirriborroz baino azaldu ez dugun ahalgoak emateko sistema hau, funtsean, itzuli ezinaren beldurrak eragina da. Gertagarri ikusten dute urruntze luze bat, baita bidaiaren etapa ugarietakoren batean hiltzea ere.

Nolanahi dela, Venezuelako itsasertzean garatzen zen bizimoduaren berri ematea da atal honen helburua, merkataritza trafiko handi honetan nola gertatu zen Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarreko marinel, ofiziale eta bestelako pertsonalaren errotzea Amerikan. Haietako askok familia sortu zuten Venezuelan, eta Europako ahaide mordoxka abiatu zen haiekin batzera edo Amerikan inor ez edukiagatik haiek bezala merkataritzaren munduan sartzera, "kokatzera" hobe.

Hurbileko bat aipatzearren, Juan Bautista Aranburu altzatarraren kasua ekarriko dugu, 1763koa. Caracaserako ontziratu behar zuenez, Aranburuk ahalgoa eman zion Maria Bautista Zurimendiri Donibenen zeuzkan zordunetan hamahiru peso biltzeko. Marinel zebilen oraindik 1772an, Venezuelatik baitator Cadizera eta gero Pasaiara noski, Konpainiaren San Ignacio ontzian. Bitxia da, sei urte geroago, 1778an, hitzarmena sinatu zuen Manuel Iriarterekin, Errege Zerbitzuan haren ordez ibiltzeko marinel gisa, baina 1807an Juan Josefa izeneko alaba bat zeukala ageri da, sortzez eta herritarrez Caracaskoa. Venezuelan errotua zen ordurako.

Amerikan nahitara errotze hau, jatorrizko portura ez itzultzea, gure ustez, lotua dago ongitzearekin, dirutzearekin. Inazio Etxegoien oiartzuarrak Maracayra jo zuen 1789an, hogeita lau urteko zela, Venezuelako indigo kopuru handiena ematen zuen lekura, bere aitak hildakoan anil lanketan eta

7 - Egoera hori ez zen berria, lehenago ere Hondarribikoak ziren Juan Jose eta Nikolas Iriarte anaiek antzeko traba aurkitu zuten. Pertsona bakarrarena izan litezke izenok, agirien arabera biak ala biak hogeita hamazazpi urtekoak baitziren eta *San Miguel* fragatan baitzebiltzan. Baina bizkiak ere izaten ahal ziren. Kontua da Puerto Cabellon interprete baten bitartez deklaratu behar izan zutela ez zekitelako gaztelaniaz, *ignoraban el idioma español*. Alegia, euskarak ez zeukala baliorik agirietan.

aniletik ateratako tinda fabrikan utzitako ondasunez jabetzeko. Los Guayos herrian finkatu eta zor batzuk egin zituen, anilaren lanketan jarraitzeko seguruenik. Aldi berean, beste Etxegoien batek, Gabriel izenekoak, Inazioren ahaidea nonbait, anilaren ekaiak garraio ibili zen Amerikatik Europara.

Ez daukagu geroagoko belaunaldien berririk, baina badirudi Juan Bautista Iturritza mutrikuarrak ere Ameriketan geratzea erabaki zuela. Puerto Cabellon ageri da 1763an batel baten jabe eginik enkantean; hamaika urte geroago dendari daukagu Konpainiak Caracasen zeukan faktorian. Juan Jose Zuaznabarren ordezkari ahaldun gisa, zor bat kitatu zuen 1778aren azkenetan, eta 1784an Konpainiaren agentea zen Jose Amenabarren heriotza dela eta informazioak emanez ageri da 1784an. Gizon honen arrastoa 1802an ostera, ahalgoa emanez bere testamentua gauza dadin. Hila zen 1806erako.

Beste horrenbeste esan genezake Martin Oskoz donostiarrari buruz. Konpainiak La Guairan zeukan faktorian dendari dabil hau ere 1749an. Urte batzuk geroago, 1765ean, testamentua egiteko ahalgoa eman zuen, anaia Manuelek egina zuen era berean bi urte lehenago, 1763an. Baina handik urtebetera, Konpainiak Maracaibon zeukan ordezkaritzako agentea zela, Manuel Arizabalo Orobiok eta Rosa Noblezia Etxabe emazteak emandako ahalgo bat hartu zuen Manuel Susperregirekin eta Inazio Gandariasekin batera, Maraicaibon bertan Antonio Otaolak utzitako ondasunetatik herentzian zegokiena kobra zezaten[8].

Berriro nabarmendu beharra dugu ezagun, adiskide, fidantzia, ahalgo eta fabore sare hau dena, argiro erakusten baitu sortzen ziren auzien gainetik bazela gizarte amaraun sozial bat elkarri laguntzeko, “Indiak egiteko”, alegia, “Amerikak egiteko” ezinbestekoa. Aipatu ditugun adibideetan era berean ikus genezake Amerikarekikoak ez zituela marinelak bakarrik behar, merkataritzarekin lotutako molde guztietako lanpostuak betetzeko jendea ere behar zuela. Eta badirudi horrelakoak izan zirela Amerikan errotu zirenak, uka ezina baita kalkulatzen erraza ez zaigun bidaiarien zati bat Venezuelan finkatu zela, bertakoekin edo beren jatorrizkoekin uztartuz. Seguruenez, “zehar aldatutako” hauek administraziokoak ziren, dendariak, tasatzaileak, artisauak, Konpainiak behar, sortu eta mantentzen zituen lanbide ugari haietakoak. Egia da bestalde, Konpainiaren aterpean, merkataritza zurrunbilo haren abaroan, bidaiari askok sortu zituztela Venezuelako lurretan merkataletxe propioak edo ordezkaritzak esan genitzakeenak, batez ere XVIII. mendearen azken lau hamarraldietan.

Familia batzuek, gainera, Amerikan lehorreratu ez ezik, lur hartu zuten bertan, hango gizartean txertatu ziren, batik bat itsasertzetik hurbileko herrietan, itsastar eta merkatari bizimoduan, agidanez, inguruan “oligarkia” handirik ez zegoela profitatuz.

Horrelako lurraldea zen Coro, Venezuela probintziako lehen eta antzinako hiriburua. Kontrabandoa zuen ekonomiaren errota, atari lana egiten baitzuen barnealdeko ekoizpena, kakaoa, ke-orria eta larrua bereziki, Karibeko merkatari holandarren oinarri nagusia zen Curaçaora ekartzeko. Curaçaok, berriz, bitartekoa egiten zuen Venezuelako fruituak Espainiako Koroatik kanpoko lekuetan saltzeko eta, egokiera izan ezkero, baita Espainiako Inperio barruan ere.

Corotarrak bihurtu ziren familien artean, bada ahaidetasunez eta interes ekonomikoz elkarrenganatu zen multzo bat, monolitikoa ote zen ez dakigun arren: Telleria, Arkaia eta Urbinatarrek bat egin ohi zuten aldizka Zarraga eta Zabalatarren aurka. Antza denez, Jose Telleria izan zen aurrena iritsi zena eskualdera, 1734an agente baitzebilen Coro hirian bertan, Curaçaora nahian zekarten ke-orri partida baten bahituran esku hartuz[9]. Urte batzuk geroago, 1742an, Cororen mugapean zeuden lurralde batzuez jabetzeko eskabidea egin zuen. Erabili dugun agerian Inazio Luis Arkaia da azaltzen den aurreneko Arkaiatarra, Mataukokoa sortzez, Gasteiztik hurre, Coron ezkondua 1752an Maria Lezamarekin, Maracaiboko Lezama euskaldunen adarrekoa izan zitekeena, Corok duen hiririk hurbilena baita hura, eta Venezuelako mendebaldeak daukan portu -hiri handiena, Maracaibo probintziako barruan hala ere, eta hiriburu.

Zabalatarren berri urte batzuk geroago daukagu, eta azaltzen den aurrena, Antonio Zabala, Caracasen zegoen Konpainiaren faktorian dendari. Adar berekoa izan edo ez, urte batzuen buruan azaltzen zaigu, 1763an, Coroko lehen Zabala, Juan Lorenzo, Kapitain eta Alkate Carrizal-en, Corotik ekialdera egun barruko urrunean zegoen herri indigenan, eta 1767an Jose Inazio Zabala azaltzen zaigu, kakaogile bezala erroldatua. Konpainiaren negozioa kakaoa zenez nagusiki, Zabala honek antolatuak zeuzkan puntu berezi batzuk kakaoa eta bestelako fruituak bildu eta metatzearren ondoren Puerto Cabellora eta La Guairara txalupetan eramateko, portu haietan Cadizera eta Pasaiara itzultzekotan zeuden ontzi handietan zamatzearren. Eta kakaoaren hartzaile azaltzen zaizkigu Juan Inazio Ibañez de Zabala eta Mateo Zabala, 1767an.

Jose Antonio Zarragaren berri 1770ean, kanpomaisu, Coroko herritarra eta Konpainiako ahalduna. Urte haietan Telleriatar batek izan behar zuen agente San Felipen, Vene-

8 - Urteotan eta 1777 arterainokoan, Marakaiboko probintzia Nueva Granadako Erregeorderriaren barruan zegoen egon, gaur egungo Kolonbian alde-aldera.

9 - Konpainia Gipuzkoarraren lehen urteetan, “bikarioek”, lehen mailako pertsonalekoek alegia, “lehorreko guardia” moduan jardun zezaketen lurraldean egiten zen kontrabandoaren zaintzan eta kontrolean, landa lurretan bereziki. Jardun honek ez zuen luze iraun, urte bete eta zerbait, Konpianiako kargulant hauek egiten zituzten abusoak zirela-eta kexu baitziren tokian tokiko herritarrak, zurruntasun hura galera zenez kakao ekoizleentzat zein merkatarientzat.

zuelako mendebaldeak daukan kakao hiri apartan, hala jakinarazten digute bere arreba Maria Eugeniari buruzko agirietan aipatzen dutela.

Handik harat, Coroko euskaldun nukleo honek garrantzia hartu zuen hiriaren bizitzan. Alkate karguetarako izendatuko zituzten 1776az geroztik, eta Alkatea izateko, bistan da, ezinbestekoa zen errotutako herritarra izatea, eta horrelako ardurak "printzipalentzat" egoten ziren erreserbatuak, alegia, eta disimulu handirik gabe, jabetzako eta dirutzako herritarrentzat. Halakoa dugu Jose Zabala, Konpainiako agentea zen Juan Antonio Zarragaren suhia. Alkate postu bera hartu zuen hurrengo urtean itxura guztien arabera 1734an Coron bertan agente lanetan bizi zen Telleriatarraren semea zen Jose Telleriak. Bere anaia Pablok ere kargu bera hartu zuen, Prokuradore Nagusiarenarekin eta Anaidi Deunaren Alkatearenarekin txandakatuz 1778tik 1785ra, eta baita 1795ean ere. Bitartean, Juan Antonio Zarragaren anaia Jose Antoniok Alkate, Probintziako Alkate eta Bizialdiko Errejidore bezala jardun zuen 1778, 1787 eta 1793an. Jose Zabalak, 1778an, Ohorezko Errege Ofiziale, Errege Ogasuneko Birrordezkari eta, lehorreko kontrabandoari jazartzeko Coro Hiriaren Babesburu karguak zeuzkan bere gain.

Batzuetan bigarren belaunaldiko, besteetan hirugarreneko, Errege Ogasunaren eskribaua izan zen Inazio Zabala Goiena, eta aita edo osaba Bigarren Ordezkaria; Arkaiatarrak, Prokuradore Nagusia eta Alkate Ordinarioa izan zen 1787 eta 1793an Jose, eta Prokuradore Nagusia Juan Dionisio 1793an. Diego Telleria Prokuradore Nagusia eta hiriko Anaidi Deunaren Alkate 1785ean.

Berriro dauzkagu hemen uztarturik familia eta aginte politikoa, alderdi publikoa eta pribatua ezin bereizirik.

Beste funtzio eta eginbide batzuk erantsi behar genizkieke horiei guztiei: Holandako gobernuaren ordezkari, esate baterako, hurre zeukaten Curaçao uhartetik ihes egindako esklabuak harrapatzeko, edo Karibe osoan merkataritzan ibiltzeko itsasontzien jabe. Coroko eta bere eskualdeko familia nagusienetan kokatu diren multzo horiek arrunt emankorrak dira gisa guztietako gertakizunetan, baina ez ditugu oraingoz aipatuko.

Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarrarekin edo haren aterpean Venezuelara heldutako euskaldunak pixkanaka baina etenik gabe txertatu ziren bertako gizartean Venezuelako itsasertzeko hiri guztietan: Ansoategitarrak Nueva Barcelonan (gaur egun Barcelona), ekialdeko kostan; Aizpuruatarrak Maracaibon, zeharo bestera, egungo Venezuelaren mendebaldean; Etxeandiatarrak Caracasen; Mitxelenatarrak Valencian, Venezuelako hegoaldean, abeltzaintzako larreen atarian. XIX. mendeko Venezuelaren historia betea dago familia hauek eta beren kideek egindakoen datuz eta aipamenez, hala independentzia gerrak esan izan zaizkionetan nola hurrengo berrogei urteetan, 1870 arte, gerra federala amaitutakoan.

Sortzez euskalerritarrak zirenen eta hauen ondorengo lehen belaunaldiko venezuelarren artean azaltzen dira kakaogintzaz haratagoko jardunetan protagonismorik izan zuten euskal abizenak. Ansoategitarrak, adibidez, luzaz nabarmendu ziren Venezuelako bazterretan. Agustin Ansoategik eta emazte Barbara Barrolek auzira jo zuten Maria Antonia Gomez eta alaba Agustina Abaden aurka 1748an, denak ere Donibaneko biztanleak. Urte batzuk geroago, 1754an, Konpainiako agente lanetan aritzen zen Agustinek, Caracasen seguruenik. Laneko loturagatik semea izan litekeen batek, merkataria ogibidez, Cumanara jo zuen 1773an, agentetzan aritzeko, baina bi urte geroago Puerto Cabellon azaltzen zaigu agente, eta 1778an Cumanan, bertan finkatzeko. Oker handirik gabe ahaidea zuten Manuel Ansoategik dendari ziharduen 1784an, Konpainiaren faktoria nagusian, Caracasen, baina 1798an, Konpainia desegina zela eta Venezuelan sendo finkaturik, lehen mailako ofiziala dugu Armadako Lanbide Orokorrak eta Cumana probintziako Errege Ogasunean. Barcelonan jaio zen Venezuelako independentzia gerretan jeneral abertzale ospetsua izango zen bere semea, Jose Antonio Ansoategi[10].

Baina pasaitarren ikuspuntutik, eta Arizabalotarrak ahaztu gabe[XXVII], aipatzekoak ditugu XVII. mendean Pasaian erro luzeak zituzten Aizpuruatarrak. Ez da hauxe aurrekoekin antzik duen kasua, besteak beste ez zuelako lortu, edo ez zuelako errotu nahi izan multzo bezala Maracaibon. Baina badauka alderdi berezi bat: jakinduria helaraztea. Oroz gain, kostako zurginak izan ziren Aizpuruatarrak, eta Maracaibon ere bai.

Konpainiaren agirietan azaltzen den aurreneko Aizpuruatarra Nikolas dugu, agente nagusia 1736-1744 bitartean. Urtearte honetan, eta geroago ere, Manuel Aizpurua eskatiman dabil Pasaian bere herritarrekin, eta 1759an auzitan ere bai Juan Antonio Iriarte presbiteroaren oinordekoekin, *ab intestato*, alegia, testamenturik egin gabe hila zen Fernando Alduntzin bikarioarena zen etxe bateko gelaren erabileragatik.

Handik gerora, 1761ean, Nikolas Aizpurua bera dugu demandan Juan Frantzisko Zabala lezoarraren aurka hari egina zion ehun eta hamar pesoren aurrerapenagatik, sagardotan ordaintzekoa antza denez, ezinbesteko edaria itsasketa luzeetan. Urte berean, Manuel Aizpuruaren aurkako auzia ontziak egiteko zuren eta oholen ordainketa tarteko. Zurajea ez zen berak erabiltzekoa, baizik Konpainiaren ontziolarako, baina bera izan erosketa agindu zuena, eta ondorioz, ontziolako tailerretan kalkulatutakoa ordaindu behar zukeena. Ordainketaren doitasuna izeneko demanda egin zioten, baina azkenean Aizpurua irabazle.

10 - Jose Antonio Ansoategi 1789an jaio zen Nueva Barcelonan, Nueva Andalucia edo Cumana probintzian. Ausart jokatu zuen independentziaren alde, eta gaur egun probintzien pare diren Venezuelako estatuetan batek haren izena dauka, *Estado Anzoategui*.

Manuel Aizpurua hau Caracasen daukagu 1763an, hala dirudi behintzat, Manuel Abadek ahalgoa ematen baitio anaia Domingori zor dizkion ehun eta hamar pesoak kobratzeko. Aizpuruatarren estuasunak ez horretan amaitzen ordea, urte berean Felipe Sistiagak auzia jo Pasaian Martin Aizpuruaren aurka, etxebizitza bat eraikitzeagatik bere bodegako sarrera eragotziz.

Hamar urte geroago Manuelek Venezuelan segitzen zuen, Puerto Cabellon zein Maracaibon, hiriotan karenatu, konpondu eta altxatzen baitzituen bere ontziak Konpainia Gipuzkoarrak Venezuelan. Manuelek ahalgoa eman arreba Josefa Antoniari amak hildakoan berari utzitako herentziaren zatia eskura zezan. Maracaibokoa zen Agustina Sanchez Agredarekin ezkondua zela aztarrendu dugu, baina emakume hau bigarrenez ezkondu zen 1775ean Ignasi Francisco Theodoro Baralt Torrasekin, europarra, Bartzelonako Maresmen jaioa eta Maracaiboko handiki familia bateko seme.

Ontzi jabe Jose Aizpurua bat 1774an Maracaibon. Lau urte geroago ere bertan egon behar zuen noski Maria Jesus Osarekin ezkondua, ahalgoa ematen Jose Angel Agirianori, Gipuzkoako Korrejimenduko prokuradorea, berrehun eta berrogei peso zor dion Lorenzo Isasa zizurkildarraren aurkako demanda egin dezan.

Haize alde negozioak Maracaibon. Juan Antonio Aizpuruak baimena lortu zuen fragata bat erosteko Curaçaon, Pedro Navarrorekin eta Frantzisko Larrunbiderekin partxoan, ordurako ausarki zerbitzatzen zuen Veracruzera kakaoa eramateko, gaur egungo Mexikon.



Aizpuruatarren etxea San Pedron.

Aizpuruatarren aferak Gipuzkoarraren eremuaz goitikoak ziren. Manuelen seme Ramon Aizpurua aipatua ageri da Filipinetako Konpainiarako ontzigile gisa, *La Buena Union* izeneko kexemarin bat saldu ziolako 1786an beste negozioen artean Filipinetako Konpainiarekin lotura zeukan Cabarrusi.

Urte hamarraldi honen amaieran, 1788an, Ramon Aizpurua San Pedron, ontziak egiteko Juan Antonio Apalategi ataundarrak ekarri zituen sei mila haritz ukondoren jabe, Herrerako Jose Antonio Altunarekin partxoan. Urte batzuk geroago ere, 1793an, Pasaian Ramon, Juan Ansabornori erositako kexemarin bat erosten Juan Ansabornori mila peso inguruko prezioan.

Hala ere, 1799an, beste agiri batek, data bereko eta leku berean, Nikolas Manuel izendatzen duen Juan Nikolas Aizpurua eta Ramon Aizpurua, biak ere anaiak eta hila dela oharrarazten zaigun Manuelen semeak eta aurreneko Nikolas Aizpuruaren bilobak, Maracaibon daude hiru kanoi-txalupa egiten probintziako gobernadorearentzat "ontzien bikaintasuna areagotzen duen sistema berri batez".

Baliteke adar bereko beste Aizpurua batzuk egotea Maracaibon. Hurrengo urtean, 1800ean, Nikolas Aizpuruak, Maracaiboko merkataritzakoak, *Nuestra Señora del Pilar* bergantina saldu zion ogibide bereko Sebastian Ezpondari sei mila pesotan. Bergantin hori, ezizenez *El Volante* esaten ziotena, Cayos de San Luisen erosia zuen, gaur egun Haiti eta orduan Frantziaren kolonia zen Saint Dominguen.

Amaitzeko, badakigu Ramon Aizpurua hila zela 1814rako, alargunak, Juana Rosa Casamayor sanpedrotarrak ahalgoa eman baitzuen Filipinetako Konpainiako ontzigilea zenez senarrari zegozkion soldata atzeratuak kobratzeko.

Maracaiboko Aizpuruatarren kasua Coroko euskaldunena bezain nabarmena ez bada ere, pasaitarrek Atlantikoaz haraindi egin zutenaren adibide izan liteke, eta Maracaiboko ontzigintzan eduki zuten garrantziagatik jakitera ematekoa.

## 2.4 Venezuela berri bat

Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarraren mahuka atlantiarraren bi poloetan, Pasaian eta Venezuelako kolonian, batik bat La Guairan, Puerto Cabellon, Coron, Maracaibon eta Cumanan zenbait marinelek eta enplegatuk egin zituzten ibiliei eta hartu zituzten jokamoldeei emandako begiratu arin honek, giza harreman sare sarri eta sasitsu bat erakusten digu. Pasaiari eta bere inguruari dagokionez,

Arrillaga, ikertu beharreko abizena Pasaian. Juan Bautista Arrillagak ematen digu lehen aztarna. Hala ere izenak badu hainbat arazo, ezin baitugu ziurtatu daukagun informazioa beti pertsona berdinari dagokion ala osoz edo zatiz izen bereko beste batzuei. Nolanahi dela, Jose Bautista Venezuelan erroak eta oinordeak egiten dituzten euskaldunetako bat. Jose Arrillaga bat 1759an Konpainiako txalupa kortsari baten patroi, eta 1764an Geronimo Zelaiaren ahaldun gisa Inazio Elizalderen aurkako auzian ontzi batzuetara eramandako kakaoaren kontaduria dela medio. Handik urtebetera La Guairako herritar azaltzen da, baina 1776an Konpainiako agente dabil Santa Ana de Coron, Venezuelako mendebaldean. Urte horretan bertan ahalgoa ematen dio San Pedroko Antonia Olaziregik, Bizente Beloki aipatuaren alargunak, Jose Benantzio Garairi zor bat kobra diezaion. Benantzio Garai merkataria zen Caracasen, aniletik sortutako indigoaren tratuari lotua. Anila urte horietan hasi zen lantzen Venezuelako lurretan, euskal nekazarien eta teknikarien ahaleginei esker, Antonio Arbide, Domingo Barrutia eta Pablo Orendain aipagarri.

Tomas Arrillaga hogeita hamar urtekoa zela ontziratu zen Caracaserako *Nuestra Señora de los Dolores*-en 1780an, lanbidez dendari, Jose Bautistak kontratatua seguru aski, Puerto Cabellon egindako bataio batean Jose Tomas Arrillaga aipatzen baita aitajaun. Juan Bautistak gurasoen azken-nahien betetzaile dihardu Venezuelan, Filipinetako Konpainiaren zerbitzuan hildako Pedro Olarriaren gurasoen alde. Hiru urte geroago, 1789an, hil berria den Jose Benantzio Garai aipatuak hildakoan Venezuelan utzitako etxe baten administratzaile.

Juan Bautista Arrillaga 1790ean hilko zen, hor nonbait, urte horretan Jose Arozenaren alargun Maria Ana Zuloagak ahalgoa eman baitzion Puerto Cabelloko Martin Goenagari behar ziren demandak jartzeko Arrillaga horrek senarrari zor zizkion seiehun eta bost pesoak kobratzearren. Juan Bautista Arrillaga, izan ere, negozio gizona izan zen, eta ez da harritzekoa auzitan azaltzea bera edo bere oinordekoak. San Pedroko Jose Joakin Villamorrek ahalgoa bidali zion Jaun Bautista Laskuraini 1790ean Juan Bautista Arrillagari zortzi mila peso kobratzeko. Ez zen nolanahiko kopurua.

Juan Bautista Arrillaga bat, beste bat alegia, 1793an Nueva Valencian. Ahaidea edo, semea ez bada. Anaidi Deuneko Alkatea da, eta bi urte geroago, 1795ean, badoa itsasoz izen bereko osabari laguntzera Jaun Bautista Arrillaga elgoibartarra, ezkonge eta ogibidez enplegatu. Luze gabe, 1797an, lizentzia eskatzen du fruituak esportatzeko, merkataritza libreko arauetan urte berean egindako berrikuntzak direla eta. Badirudi familia finkatu egin zela eskualde horretan, handizkako merkataritzari emana. Hiru legoa errege lur eskuratu zituen enkantez 1807an Mariara ibarrean, Nueva Valenciako inguruetan. Handik laster hil zen, 1812an Migel Bazterra kontadorearen agiri batean azaltzen baita hilondoan utzitako itzuli-behar batzuen kobrantzan.

marinelek eta enpresako kargulantek beren zereginetarako garrantzizkoak ziren kontu batzuei eman behar izaten zieten arreta, besteak beste hemen utziko zituzten ahaide eta hurkoei bizitzeko bermeren bat segurtatu beharra, beraiek izaten baitziren, gehienetan, dirua zekartenak etxera. Alde honetatik, aldian aldiko edo atzeratutako soldatak eta koloniatik bidalitako ekaiak jaso eta kudeatzeko baimenak eta botere edo ahalgoak dira eskuratu ditugun agirietan maizenik azaltzen zaizkigun lege tresnak. Tresna hauek ordea ezinbestekoak ziren, bestalde, zorrek, hitzarmenek edo ezkon-hitzek, baita huts egindako edo usteldutako negozioek ere sortutako auzietan.

Merkataritzako ardatz honen beste buruan, Venezuelan, gauzak nahasiagoak ziren eta nabarmendu nahi genituzkeen ideia batzuk dakarzkigute: marinelek, “jende zarpail” horrek, dirua izugarri ez baina polito egiteko aukerak izan zituen, Konpainiak zerabilen ekai hark, kakaoak, mozkin handiak ematen zituenez, bigarren dirubide oparo bat eskaintzen zielako kortsari gisa ibiliz kontrabandoa eragozten Konpainiaren beraren ontzietan Venezuelako eta Ekialdeko Karibearen itsas bazterretan. Alabaina, “Indiak egin zituztenak”, gehien dirutu zirenak, ez ziren “zarpailak” izan, administrazioko zenbait kargulanten multzoa baizik, bereziki bigarren mailako agenteak, biltegietako arduradunak eta bertako merkataritzakoak: koloniako ekaien eta Europako salgaien etenik gabeko joan-etorria erabiliz hainbat kontaktu egin ahal izan zituzten, eta horrek modua zabaldu zien kolonian finkatu eta merkataritzan bere gain hasteko, laguntzaile emaztea, seme-alabak, ilobak ekarriz, edo kargulantaren asmoen arabera, maila sozial ertaineko nahiz goialdeko venezuelarrekin uztartuz. Aldi berean, Konpainiaren negozio bikainaren babesean, ezin konta ahala dira Europatik Venezuelara heldutakoak merkataritzan jarduteko, eta hauek ere ahaideak ekarri ohi zituzten geroago, negozioan sar zitezen. Bidaiari hauetako asko ezkondu zen ondasun handiko lurdunen eta merkatarien alabekin, Venezuelan oraindik ere eten ez diren sagak sortuz, euskal abizenen ugariak erakusten duenez.

Familia eta pertsonai hauetako batzuek lortu zuten, Coro hirian bezala, tokian tokiko oligarkia esan genezakeen horren zati izatea, beren artean edo “printzipalekin” ezkonduta kalitatea hartuz, bizitza zibil, politiko eta ekonomikoan eragin zuzena izateko.

Argi samar daukagu arrakastak ez zuela ildo berdina hartzen batzuentzat eta besteentzat. Pasaiaren edo jaioterriaren muga barruan bazen ere, marinelek ongitzeko eta neurri bateraino aberasteko dirubide bat eduki bai, baina "jan egin zuten egindakoa". Venezuelan errotu eta dirutu ziren artisauek eta kargulantek, batez beste, oso gora egin zuten mailadi sozialean eta ekonomikoan, "berregin egin zuten egindakoa".

Bistan da hau dena zehatzago ikertu beharrekoa dela. Horretarako bide eman lezaketen lerro batzuk baino ez dira gureok.



3

# KONPAINIA GIPUZKOARRA PASAIAKO BADIAN



Fragata eraikitzena. *Album del Marqués de la Victoria. 1719. Untzi Museoa, Gipuzkoako Foru Aldundia. Donostia.*

Utz dezagun Venezuela eta itzul gaitezen Pasaiara ostera, ikus dezagun zer gertatu ote den gu han genbiltzan bitartean, nolako estrategiak antolatu dituzten pasaitarrek Konpainian edo Konpainiak bere inguruan sortutako ekonomian parte hartu ahal izateko, parte hartze horrek zer ordaintza sozial ekarri duen eta ekin horrek utzitako aztarnaren bat heldu ote den egundaino.

## 3.1 "Tratu gozoa" eta bere arazoen mikatza

Larramendik Konpainiari buruz idatzitakoa berreskuratutakoan, gure ikerketaren puntuetako bat aurreratu dugu: Konpainiak, Pasaiako portuan finkaturik, inguru osoan eduki zuen eragin soziala.

Konpainiaren oinarria bere partzuerren dirua da, baina akziodun hauek, Konpainiaren kapitalaren jabe diren hauek ez dira ontzietan doazenak, ezta enpresa kudeatzen dutenak ere. Pasaiatik Caracasera joan-etorrian dabiltzanak, hain zuzen, ez dira errentek emandakoez bizi, izerdi truke jasotakoaz baizik. Eta ogibide berri honetan sartzen baldin badira ez da mentura liluragarriak bizitzeko edo nolako marinel garratzak diren erakusteko, baina bai lan txukunago edo emangarriago batean aritzeko, adibidez, arrantzan baino. Atlantikoa zeharkatu behar horretan bizi baldintza gogorretatik eta itsas batailetatik onik ateratakoek, itxura guztien arabera, behin eta berriz errepikatzen dute bidaia. Mozkina, edo mozkinaren itxaropena, arrisku guztiak baino indartsuagoa da. Hainbesteraino non Konpainian enrolatzea gure portuaren inguruko eta urrunagoko gizonezkoen bizimodua bihurtzen den. Langileok ogibidea bilatzen dute, akziodunek ongibidea behar dute.

Alde honetatik, gure ikuspuntuan behintzat, bidaiaren sorburua ez zen izan "mentura". Pasaian espero zitekeen bizimoldeak ez zeuzkan Venezuelak eskaintzen zituen aukerak, eta bestetik, gureaz horren bestelakoa zen naturaren eta munduaren kontakizunek indar hartuko zuten bidaiarako kitzikagarri gisa, zer esanik ez gazteen artean. Azken finean, asmo eta kitzikagarri berdinek akuilatzen dute gaur egun jende asko Hegoaldean edo Ekialdean Mediterraneoa zeharkatzeko. Hauxe dugu hain zuzen ezarri ditugun xedeetako bat: irudikatzea, marraztea nolako harremana duen portuaren inguruko biztanleen inguru hurbilak Konpainiarekin. Irudi hori da interesatzen zaiguna, bai daukan garrantzi historiko eta kulturalagatik, bai geure mundua ulertarazteko daukakeen ahalmenagatik.

Akzio bitarteko konpainia kolonialen sistema ez dago antolamendu kapitalistek ohi dituzten liskarretatik kanpo. Hala ere, gure azterkizuna ez da izango kapitalaren eta langileen artean sortzen dena, hori Venezuelan gertatzen baitzen nagusiki, Konpainiari berez atxikitzen zaiona baizik, urruntasunak eta ordainketa moduak piztutakoa. Horrela, urruntasuna liskarbide bezala harturik errazago konpreni genitzake Konpainiaren helburu komertzialaren inguruan sortutako arazoak.

Errealitatea ezagutza galarazteraino lausotzen da urrunaldia luzatu arau. Martin Agerre hendaiarraren kasua egokitu zuen Hollywoodek *Sommersby* filma egiteko[11]. Agerrek etxetik ihesi behar izan zuen, eta handik urte batzuetara haren lekua beretu zuen beste gizon batek, antza baliatuz.

Gauza bera saiatu zen egiten Francisco Gonzalez burgostarra 1750ean. Ostatuz hartua zeukan Zarauzko erretorearen botak eta gainjantzia ebatsita Pasaiara heldu zen Jose de la Villa zela esanez, Donibanen apaiz zegoen Francisco de la Villaren iloba. Apaiz honek sinetsi egin zuen, bere ilobak hogeita bost urte zeramatzan urrundua Indietan, Amerikan alegia, eta etxean hartu zuen. Alproja itxura baldin badakar, daukan aberastasuna estaltzeko omen da. Laster iritsiko omen zaizkio bere puskak eta bere kutxak eta lau mila peso. Serorak argitu zuen iruzurra. Batelariek hartu baitzuten Herreratik Donibanera ekartzeko, aspaldian Amerikara joandako apaizaren ilobarekin zeukan antza aipatu zioten Gonzalezi, eta honek, solasean ateratako datuekin, apaizaren lepotik bizitzeko istorioa eraiki[XXVIII].

Urruntasuna, joana huts ematea, haren eskasean bizitzen ohitzea, itxaronaldian bizimolde berri bat asmatzea, jokabide sozialaren arauditik irten gabe ibiltzea, Amerikakoa datorren artean diru-murritz konpontzea, tokitara joanda ere usteak gauzatzen ez direla ikustea… egoera eta kezkabide orokorrak dira etxekojauna edo etxera dirua zekarten gizonezkoak luzerako arrantzan edo merkataritzan lekutu diren itsasertzeko gizarteetan.

Lanindar nagusia diren gizonezkoen urruntze horrek kolokan jartzen du egitura soziala, haiek lehorrean utzitako ahaideen portaerak ez dauka auzoen begiramenik. Ez da harritzekoa, beraz, urrunaldi horietan gatazkan edo liskarretan auzipetutako asko emakumezkoak izatea.

Azkenburuko kasua da baina argitasun handia egiten du hala liskar hauei buruz nola Konpainiari lotutako bizimoduaz Ramon Alardin eta Josefa Ramona Suarez senar-emazte hondarribiarrek elkarren aurka abiatu zuten auzia 1796an. Ramon kostazain kapitaina izana da Caracasko ertzean. Josefa Hondarribiko Kapitain komandantea den Jose Suarezen alaba dugu. Ramonek salaketa gogorra jarri du Josefaren aurka: ardo eta uxual edale, etxearen zabartzaile, genio petraleko, manugaitz. Josefak berriz tratu txarra ematea eta bazterrean uztea egozten dio senarrari. Herria bien arteko istiluen jakinaren gainean da, eta era berean dira ezagunak

11 - Jodie Foster eta Richard Gere protagonista dituen 1992ko filmean EEBBen Sezesio Gerran kokatzen da gertakaria. Alexandre Dumas baliatu zen istorio honetaz nobela bat osatzeko (*Les Deux Diane*, 1846), eta gure garai honetan Natalie Zemon Davis historialariak saiakera bat egin zuen (*The Return of Martin Guerre*, 1984).



Caracasko Errege Konpainiaren egoitza nagusia La Guairan.

Josefa hobera eragiteko ahaleginak, Zaragozako Errukitegian edo etxean bertan kateatuta preso edukita. Hemezortzi urte zeramatzaten elkarrekin eta Ramonak banandu egin nahi du, eta horretarako irabazi ganantzialen erdia eskatzen du gehi arrantzako batel bat eta senarrak Caracasen esklabo beltz baten salmentan irabazitakoa.

Zeharo interesgarriak dira, bitxikeria hauen gainetik, senar -emazteen arteko haserreak eta liskarrak eta bere gogoa horrela ilunduaren kausa ulertzeko Josefak ematen dituen arrazoiak. Ezkondurik eman dituzten kasik hogei urteotan, aurreneko hiruretan ingelesen preso egon zen Ramon, *La Concepcion* ontzia harrapatu zutenetik alegia, 1778 aldera. Eta beste zortzi urte bota zituen Amerikan, Konpainiako kostazain. Eta ohartxoa: senarrak, Amerikatik itzuli zenez geroztik, orain zortzi urte, ez ditu konplitzen ezkontzaren legean senar gisa dauzkan egitekoak, eta han bizi izan zen beste zortzi urtez badira hamasei urte aitorleak ez dakiela senarra gizonezkoa edo andrazkoa den, eta ez diola eman kasu honek preziso behar duen argitasunik batere, halako jokabideak sortzen dion nahigabea eztitzearren.

Laztaneza batetik, senarra Amerikan duen bitartean Ramonak kudeatu behar duen egoera ekonomikoa bestetik. Egoera hau antzekoa da sistemari lotuak dauden familia guztietan. Hasteko, senarra Ingalaterran preso zegoela ogibiderik gabe iraun behar izan zuen, familiaren harribitxiak bahituran utzita bere aitak ordaintzen zituen maileguak eskatuz. Gero, kostazain lanetan jardun zuenean, senarrak ailegarazten zizkion dirua eta bestelako gauza batzuk Amerikatik zetozen lagunen bitartez. Esaterako, aurreneko bidalketan hebilla pare bi semeak zapatetan erabili ditzan… eta loro bat. Irizpide bera hurrengo bidalketetan ere, diru kopuru batzuk eta maila sozial bat erakusteko balio dezaketen gauzak, edo saltzeko. Bestalde, Ramonak ohartarazten du nolako lanak dauzkaten ontzietan dabiltzanen emazteek, lehen urteetan, Konpainiarekin itsasoratu aitzin ofizialeek zein marinelek idatziz agindua emandako soldatak eskuratzeko.

Argi dago auzia dakarren egoera emazteak jasaten duen tratu txarra dela, baina Ramonak bere bizimodua adierazteko ematen dituen xehetasunek balio handia dute Indietara ontziratzen direnen familien bizi baldintzak ulertzeko: bakardadea, gerokoaren kezka, zorrak eta bitartekarien menpe egon beharra. Egoera horrek elikatzen ditu Konpainiaren inguruan Gipuzkoan sortzen diren istilu eta eskatima gehienak. Ez da zertan harritu emakumezkoak izatea maiz auzira jotzen dutenak, beraiek eutsi behar baitiote zutik etxeari. Gainera, eta espero zitekeena da, Konpainiaren ontzietan abiatu ziren marinel mordoxka hil zen harako edo honako bidaian, edo Venezuelako edo Karibeko itsasketetan. Horregatik, eta arlo horretan ohikoa denez, marinelen alargun ugari zegoen. Eta emakume alargun hauek lehiatu behar zuten senar zenduen soldata atzeratuen edo pentsioen gaineko eskubideak gauzatzeko, eta era berean buru egin haiek utzitako zorrei, edo beraiek egindakoei senarra edo etxera dirua ekartzen zuena urrundutakoan.

Horrela, Caracaserako eskifaietakoen emazteak maiz azaltzen dira dirua maileguan erosten. Eta, noski, gehienetan, maileguok senarren soldaten kobrantza atzeratu izanak behartuak dira. Gerta zitekeen senarra hilda ere oraindik kobratzeke zeukana eskuratzeko trabak edukitzea. Horixe gertatu zitzaion Rita Polonia Bonazategi sanpedrotarrari. *San Carlos* ontzian ibilia zen Jose Antonio Errekalde senarra zuenaren soldata atzeratuak kobratzeko eskubidea beste-




G. Calderon. http://www.growables.org

Puerto Cabello, 1761 urteko apirilak zortzi egun dituela: Santiago San Martin ene jaun gogoratuari. Osasuna dela luze berorrentzat eta honako hau eskura uzten diedan gainerako guztientzat. Hartu nituen bi dozena atorra eta beste horrenbeste zaragoila eta bost oinetako pareak, baina deus ez denez saldu ez nezake horien inportea bidali, arropa asko pilatu baitzait; *Korokoan* bidaliko dut horren pagua. Eta aurreko zorraren pagagarri bidali ditut bi anega kakao; nahiz eta amandreak bat beretzat hartu nik beti pagatuko dut haren inportea. Honakoan bidaltzen diot berorri arratz bat hirurogei dozena tabakorekin, hiru peso eta erdiko inportean. Egin beza mesede arropa gehiago ez bidaltzeko, estipendioa akabatu zait eta *San Joseph Korokoan* joatekoa gaiz gainera, esan dudan moduan berorren errealak doazen horretan bertan. Estimatuko diot, ene jaun gogoratua, nire emaztearen fabore egin dezan orain arte bezala nigandik benefiziorik batere jaso izan gabe, berorren aurrean izango naiz guztiaren pagatzaile…

rendu behar izan zuen, Donibaneko Santiago San Martini emanez zenbait ekairen zorra kitatzearren.

Beste zenbaitetan, ordea, ahalgoa baliatu behar izaten dute emakume alargunduok hildakoak utzitakoa eskuratuko badute. Donibaneko Josefa Madalena Etxeberriak ahalgoa eman zion 1785ean Filipinetako Konpainiaren *Santa Teresa* fragatan pilotu bezala Caracasera irtetekotan zen Agustin Sorondori, Konpainiaren zerbitzuan hila zen Jose Maria Urgoitia senarrak utzitako dirua kobra zezan. Diru hau Salvador Oronozen esku zegoen, Venezuelan.

Urte batzuk lehenago, 1774ko urtarrilean, Angela Inazia Juantxorenak, Jose Domingo Rodriguezen amak, ahalgoa eman zion Juan Bautista Arizabalo Orobiori bere seme honek kobratzeke zeuzkan soldatak eskura zitzan, La Guairan hila baitzen. Baina hilabete batzuen buruan, Angela Inaziak Maracaibon bizi zen Jose Manuel Rodriguez ahaldundu zuen lan honetarako. Jose Manuel, seguruenik, emakumearen ahaidea zen, bestela ulergaitza da ahalgoaren esku aldaketa: Maracaibotik La Guairarako bidaiak astebete luzea behar zuen itsasoz edo lehorrez, baina agian izan liteke Arizabalori zaila gertatzea Venezuelako gestioa. Zenbait urte lehenago, 1767an, antzeko zerbait gertatu zen, iruntzira baina, Josefa Antonia Enparan lezoarrak ahalgoa sinatu zuenean Jaun Bautista Arizabaloren alde, Venezuelan zor zizkioten hirurehun eta laurogeita sei errealak eskuratzeko. Eta bitxikeria berri bat 1774 hartan ostera: Juan Bautista honek berak, bere anaia Manuel Arizabalo Orobiok eta Juan Inazio Gamon Errenteriako apaiz benefiziatuak, hirurak ere Domingo Abaden herentziaren hartzekodun gisa, ahalgoa eman zuten ondare, tresna, kopuru eta eskubideak oro eskura zitezen Abadek La Guairan utzitakotik[12].

Bitxikeriak direla esan dugu egoerok azaltzerakoan, eta halakoak izan litezke banaka ikusita, baina zabalago hartuta, Konpainiaren inguruko harreman sare bat osatzen dute bidaia onik egin ahal izateko eta txukun bizi ahal izateko bai Amerikan bai Pasaian, harremanon giza kalitateak bermatzen baitu dirua bere helburura iristea.

Arras argigarria da 1674an Juan Antonio Riovaldes eta Donibaneko Maria Katalina Maritougaritz senar-emazteek eta Santiago San Martinek izan zuten harremana[XXIX]. Rio-

12 - Pertsonaia hau Lau Guairan ageri zaigu XVIII. mendeko azken urteetan, portu hartan (Caracaseko atea) sortu zen zimarku errepublikazale batean, Venezuelako probintzia menpean zuten Errege Agintarien aurka. Zimarku edo konspirazio honek hainbat alorretako jendea bildu zuen mataza nahasi samarrean: merkatari eta errege ofiziale ziren euskaldun batzuk, abeldun apalak eta militar "eskoladunak", eta biztanlegoaren gehiengoa eta txiroena osatzen zuten "nabarrak", alegia, mestizoak ziren "artisau ilustratuak". Gatazka politiko-sozial honi *Conspiración de Gual y España* esan izan zaio, eta hartan ibili ziren euskaldunez irakutzekoa da Ramon Aizpurua Aguirreren "La Conspiración por dentro: un análisis de las declaraciones de la Conspiración de La Guaira de 1797". *Gual y España. La independencia frustrada. Fundación Polar, 2007. 213-344.*

valdesek Venezuelara jo eta lau urte eman zituen Puerto Cabellon. Etxetik lekore dagoen aldirako, emaztea eta semea anpara diezazkiola eskatzen dio amandrea duen Maria Teresa Abadi, baina San Martinekin egina zeukan tratuan beste horrenbeste eskatzen dio. San Martin honek arropa bidaltzen dio batez ere Riovaldesi, Venezuelan saltzeko; ordainez, kakao zakuak eta bestelako ekai kolonial batzuk jasotzen ditu, tabakoa bezala. Europara itzulitakoan doituko dituzte zorrak eta hartzekoak.

Baina beste zenbaitetan, diru honen egitekoa merkataritzarekin lotutako negozioren bat abiatzea izaten zen. Horrela erakusten du Pasaiako Isabela Antonia Sanzberrok eta Oiartzungo Juan Manuel Riberak izan zuten auziak. Liskarraren sorburua, Riberak Sanzberrori maileguan emandakoa itzuli ez izana. Alabaina, mailegatutako dirua ez zen Sanzberroren gastuak ordaintzeko, biek ere iloba zuten Bizente Benito Riberaren Caracaserako bidaia finanziatzea baizik. Atlantikoa zeharkatzeak zeuzkan ezaugarrietako batzuk azaltzen zaizkigu oraingo honetan, ezaugarriak baino derrigorrez bete beharreko ezinbestekoak zirenak "Amerikako ametsa" gauzatzeko. Eta berriro datorkigu akordura gure iragana zenbateraino izan litekeen lagungarri "Europako ametsa" gauzatzeko gaur egungo migratzaileek dauzkaten zioak eta trabak ulertzeko. Dena dela, argi geratzen da aztertzen ari garen bidaiotan emakumezkoek zeukaten garrantzia kudeatzaile ekonomiko gisa.

Ilobak Caracasera egin behar duen bidaia honetan, Sanzberrok negozioa egiteko aukera ikusten du, baina batez ere iloba hori txirotasunetik ateratzekoa. Horretarako, zenbait ezagunen bitartez egokitasuna bideratuz eta lekukoak dituela lagun, Riberarengana jotzen du bien ilobak bidaiarako behar lukeen diruaz solastatzeko. Riberak bostehuna peso jartzea proposatzen ditu negozioek mozkin apur bat eman dezaten; Sanzberroren ustez nahikoak lirateke berrehuna, iloba negozioetan eskarmenturik gabekoa denez. Azkenean hirurehuna peso jartzeko adosten dira, %28ko gainkinarekin itzultzekotan. Negozioaren funtsa, hirurehun peso horiekin zenbait genero erostea Baionan, gero Venezuelan birsaltzeko. Venezuelako salmenta honetatik aterako da negoziaren irabazia eta 1768an itzuli beharren maileguaren adinakoa bere gainkinarekin. Baina ez da mozkinik inon azaltzen, eta horrek dakar Riberak Sanzberrori jotako auzia[XXX].

## 3.2 Ez bakarrik batelari

Emakumezkoen rola Konpainiak bere inguruan sortu zuen ekonomian, beraz, ez da erreklamazioei eta ahalgoei lotutakoa bakarrik. Auzietako agirietan behin eta berriz azaltzen zaizkigu emakumezkoak ardura hartzen badiaren inguruko merkataritza xehean.

Horretan murgildua begitantzen dugu Brigida Abad, oldartasun handiko emakumea, sobera handikoa, Hondarribiko Antonio Silva zirujauarekin auzian[XXXI]. Silvak manatua zion *Nuestra Señora del Coro*-ko Migel Idiazabal ontzimaisuarengana joateko bi anega kakao jasotzera, eta agidanez, larru, oihal eta ontzikutxa bat ere bai. Brigida Abadek jasoa zuen bidalitako hori dena, baina Silvari abisu eman ez eta dena saldu bere gain. Demandari aurre egiteko, emakumearen ondasunak hartu zituzten bahituran. Aulki, mahai, plater, eltze, galdara, zartagin eta oheko arropen ondoan nabarmentzen dira txokolatea egiteko bi lapiko, kobrezko kafetera bat, ispiluak, koadroak eta, oroz gain, Txinako murko bat. Tresneria honek halako konfort maila bat iradokitzen digu, eta mundu-ekonomiako ekaien kontsumitzaile erakusten dizkigu xeheko birsaltzaileak.

Alderdi asko ditu Caracasekin lotutako negozioetan dabiltzan emakumeen protagonismoak. Batelariak, esate baterako, leku egokian daude beste merkataritza molde batean jarduteko. Maria Kruz Abadek hogeita bat urte ditu eta Konpainian enrolatutako marinel baten emaztea dugu. Senarraren arropa itsasontzian laja behar duelako aitzakian, Juan Bautista Iririarteren bateleko txabetaren giltza eskuratu eta lau arratz ardo eta uxual saiatzen da sartzen Caracaserako dauden bi ontzitan, beste bi neskarekin eta herriko atabalariarekin.

Kakao zakuak aduanatik pasatu gabe lehorreratzeko amarruetako bat Maria Frantziska Aldaik eta *Arretxe* esaten zioten Gabriel Auritzeneak eduki zuten auziak ekartzen digu argitara. Aldairen senarra zen Ramon Mateuk zaku bat eman Caracasen Arretxeri. Zakuak jabearen inizialekin markatu, Mateurenak RM, Arretxerena ARE. Itsasketan, nonbait, ARE marka ARMCHE bihurtu (Arreche, noski) eta zakua Venezuelakoak birsaltzen aritzen zen *Basate* ezizena zeukan Josefa Antonia Cerezo donibanetarraren esku geratu. Baina zakuak nola iristen diren da interesatzen zaiguna, hainbat pertsonek hartzen baitute parte bitartekaritzan. Arretxek, zakuak Migel Agirreri pasatu lehorreratu aitzin. Honela diosku Agirrek: Hamabi lagunekin salida eginda arrantzara, ontzia ikusi zuten portutik hiru legoatara eta… ontzi hartan zetozenek haibat gauza eman zieten portura ekartzeko eta… Gabriel Arretxek, ontzi hartan zegoen marinelak, Hondarribikoa bera, dei egin zion deklaratzaileari oihuka eskuineko eskuko hiru atzamarrekin keinu eginez adierazteko "Migel, hor doaz nire hiru", eta lekukoak konprenitu zuen harenak zirela hiru zaku kakao. Eta hurrengo eguneko gauean portua jota goizeko hiruretan… eta bere kontu utzitako hiru zakuak miatzen hasita bi besterik ez zituen aurkitu, alde batean ARECHE marka zutenak, beste aldean bestelako markarik zeukaten erreparatu gabe, eta hauetatik bat Josefa Cerezoren alaba ezkongeei eman zien, zaku bat beren etxera eraman behar zutela esan ziotelako deklaratzaileari[XXXII].

Kontuan hartzekoa da Mateuk adierazten duen etxera etortzeko debekua, eskabidea behar bezala egin arren. Balegoke zer aztertua ontziratuen "askatasunaz". Hala berean da interesgarria portuan sartu baino lehen ontziak eta txa-

lupak egiten duten topada, eta Caracasetik dakartzatena txaluparatzea: Amerikatik ekarritako ekaiak deklaratu gabe lehorreratzeko metodoa[13].

Ekaiak ontzia portuan sartu baino lehen lehorreratzea debekatua zegoen 1749az geroztik, deklaratu gabekoak sartzea eragoztearren eta Gipuzkoan egiten zen merkataritzari buruzko marmarra isiltzearren. Aipatutako ekaien artean dauzkagu Potugalgo azukrea eta gozokiak, Marañongo kakaoa, Txinako eta oro har Asiako kotoizkoak, oihal margotuak, zetak eta ehunduak. Gipuzkoa mundu-ekonomiarekin lotzen duten ekaien katalogoa[XXXIII].

Bistan da deklaratu gabeko ekai hauen trafikoa iruntzira ere badabilela, badauzkagu datuak Amerikan saltzeko Pasaian lege azpitik ontziratzen ziren ekaiei buruz[XXXIV]. Maila apaleko gertakariak dira hauek Konpainiaren historian, baina horrek berak argitzen digu zeinen garrantzizkoa zen badiaren inguruan garatua zegoen ilunpeko ekonomia. Adibidetzat har genezake *Santo Cristo* eta *San Sebastian* ontzietatik Fermin Etxarri pasaitarrak sartu nahi izan zituen lau arratzak. Etxarri hau ontzi hornitzailea zen, ontzietara bidaiarako elikagaiak ekartzeko baimena zutenetako bat. Auziak baditu alde interesgarri zenbait. Gehien interesatzen zaiguna, bidaian abiatu ahal izateko zenbat lantxo egin behar zen ikustea. Kate luzea osatzen du auzi honek: Etxarrik lau kintal bakailao erosi Felipe Argoterenean; bere etxera eramanarazi; Felipe Arritegi eta Jose Arkaiaga betetzaileek bakailaoa manipulatu sei arratzetan katonatzeko; ondoren, idazmutilak Etxarriren markak eta sinadura errotulatu arratzetan; azkenik, salgaia ontziratu eta gorde. Lantegia honetan guztian, olibaz betetako beste lau arratz sarrarazten zituzten bakailao eta baba beltz arratzen multzoan.

Antzeko jokabide bat atzitu zuten 1787an, *San Antonio* ontzian jasotako berrogei kapelu beltz, hari piezak eta xingolak dauzkan fardoa dela kausa[XXXV]: "…batel bat azaldu zen ontziaren kostaduan, *Calbo* esaten dioten emakumeak ekarria, Bauptista izenekoa bera, ahomentatu dugun artikulantearen galde eginez, artikulantea une horretan ontziko zubiartekoan ari zen bere puskak gobernatzen edo katonatzen… eta kubertara atera zenean non ematen dion Bauptista horrek aditzera auzi honetan kontrakoa den Juan Daubagna jaunak, bazizko fardel edo pakete bat eman diola, batelean zekarrena, berari emateko, eta arestian ahomentatutako beste Noel horrek errespuesta eman zion ez zeukanez fardel edo pakete horren berririk ez zuela hartuko, eta horretan, diogun emakume horrek nazkarazi egin zuen hartzeko eta hartzeko esanez, ez zela atzera bueltatuko karga harekin, eta Noelek, gogait eginda haserre, nahikoa zela esanik, fardela hartu eta zubiartekora bota zuen, eta horretatik ateratzen da artikulanteak ez zekiela fardel edo paketeak zer eduki zezakeen". Delako fardel edo delako pakete hori aduanako agenteek bahitua zen.

Uxual, ardo, oliba eta antzeko ekaien arratzak ziren, ikusten denez, maila apaleko kontrabandoa egiteko tresnak, baina maiz egina eta jende askok. Ontzi batzuek Pasaiatik irten eta aingurak biratu orduko Baionan egiten zuten eskala teknikoak bazuen noski zerikusirik merkataritza paralerro honekin. Hain zuzen, Errenteriako jostunak, Felix Zapiainek, bere bertsioa sinesgarri egiteko epailearen aurrean, bahitu dizkioten generoak Baionatik datozela dio, eta horrela dihardeula azken zortzi urte honetan. Ez dirudi halako lanetarako direnik ordea dauzkan lanbidea eta lantokia[XXXVI].

Kontrabandorik handiena, zer duda egin, armadoreek eta ofizialek egindakoa zen. Interesgarria izango litzateke jakitea, adibidez, nolako arrazoiak izan zitzakeen lege azpiko trafikoan harrapatutako kuadrilla oso baten fidantzak ordaintzeko Esteban Cabarrus bezalako batek, Filipinetako Konpainia sortu zutenetako familia aberats eta influentzia handikoa izanik, eta endemas Marinako Inspektore kargua ukanik[XXXVII].

Ez dira eskasak auziak eta demandak, baina bereizi ditugun eredu hauek aski dira argi emateko, lehenik, badian eta inguruan emakumeek zeukaten rolaz Konpainiaren antolamenduak eragin zuen albo-merkataritzan, azpi-ekonomian. Emakumeon mozkin bolumena urrun dago goi mailako negozioek sortzen dutenarenetik, baina badute parte, eta ez txikia gure ustez, bertako ekonomian. Alegia, Caracasetik hedatutako ekonomiaz baliatzen direla Konpainiaren ontzietan edo ontzietako lanetan ibili gabe.

Bigarrenik, ahaideen arteko harremanen mundu konplexu eta ezinbestekoa irudikatzen dute auziok, bai ontziratzeko eta negozioren bat abiatzeko baliabideak eskuratzearren, bai merkatuaren kateari jarraitzearren. Arlo honetan fidantziaren sentimendua aipatu behar genuke, nahi eta nahiezkoa dirua eta ekaiak kontinente batetik bestera ekartzeko. Eta hala ere, hainbat istilu transmisio hau dela eta.

Hala berean atzeman ahal izan dugu zeinen zaila izan behar zuen alderdi hauek denak (familia, fidantzia, negozioak, urruntasuna) bizitza afektiboarekin adostea.

Azkenik, galde egin genezake maila sozial apaleko hauek asmatzen zituzten katramilak ez ote ziren inbertsore eta merkatari handiek erabiltzen zituztenen kopiak, haiek zeuzkaten ahalak eta kapitalak gabe, bistan da[XXXVIII].

13 - "Kontrabandoa" lagungarri ekonomiko handia zen marinelentzat eta beren familientzat, baina beste horrenbesteko buru-haustea zen merkataritzako ekai guztiak jotzen zituen errege eskubideen "ordainketa justua" aztertu behar zituzten ofizialeentzat. Baita konpainiako zuzendarientzat ere, kontrabandoa hain nabarmena izatera iritsi baitzen non itsasontzien segurtasuna ere arriskuan jarri izan zuen. Alegia, maniobrak astun eta itsasketak arriskutsu bihurtzen zirela kontrabandoz ontziratutakoak hartzen zuen zamaren handiaz. Arazo honetaz ikus aipatu Gerardo Vivas Pineraden *La aventura naval…* IV kapitulua batez ere, "Las cuentas que usaban sacar los tripulantes".



Kakao landarearen enbor-adarretan sortzen ziren fruituak bildu, mamia kendu, haziak atera, eguzkitan idortu, zuritu eta xehatu: horra kakao hautsa. Lan hau kakaogintzan ari ziren etxaldeetako esklaboek egiten zuten, eta berrogeita hamarren bat landareren urte osoko emaitza behar zen 90-110 librako zakua betetzeko. Venezuelako portuetan hamar eta hogei peso artean zegoen zakuaren prezioa, eta Europan laurogei eta gehiago pesotan sal zitekeen. Bistan da marinelek irabazi politak egiten ahal zituztela beren amarruekin etxeko ekonomia gizentzearren: urtebete bizitzeko adina eman zezakeen horrelako zaku biren salmentak.

*Keith Weller, USDA ARS [Public domain], via Wikimedia Commons*

## 3.3 Armadaren aurka Konpainia

Auzietan azaltzen diren liskarrek, bestalde, eskaintzen dute aztarnarik gipuzkoarren zain gerrariaz eta Gaztelako Koroari zioten leialtasunaz. Kontzeptu hauek ditu oinarri gure probintzian egindako hainbat kalek eta monumentuk, mito politiko ugariren salda. Alabaina, nabarmen samarra da leialtasun honek ez duela zer ikusirik gerora, bereziki XIX. mendeaz geroztik eraikitako mito patriotikoekin, pragmatismoarekin baizik. Konpainien aroan, atertu gabekoa da hauen eta Armadaren arteko lehia marinelen eta itsas alorreko langileen kontratazioan. Hainbesteraino non Erregearen zerbitzua egin behar ez izateko modua bihurtzen den Amerikara ontziratzea. Lehia hau arautzeko Amerikara joan ahal izateko zerrendak osatu ziren, Armadaren zerbitzuan ibiliek zeukatela lehentasuna[XXXIX].

Frantziako Iraultzaren ondotik, Espainiako Erresumaren eta Frantziako Errepublikaren arteko gerra hotsak zebiltzala 1793an, irtenbide ona zen Filipinetako Konpainiako ontzietan enrolatzea. Horixe pentsatzen zuten Mutrikuko mutil gazteek, *Placeres* izeneko fragatan abiatzeko prest Cadiz jo eta Manilara arribatzeko, alkatea aldeko ez duten arren. Lau edo bost balira ez omen luke eragozpenik jarriko, baina hogei baino gehiago gaztek alde eginda larri ibiliko liratekeela edozein arazoren aurrean, gerra izan edo beste. Kexa honetatik atera genezake, beraz, ohiko eta onartutako irtenbidea zela Konpainiaren ontzietan alde egitea. Baina kasu honetan, kopuru handixkoa izanik eta ezikusia egiteko zaila, tokian tokiko agintariek zer edo zer egin behar dute exodoa eragozteko. Azkenik, Konpainiako zuzendari Inazio Antonio Lopeola bitarteko zela, hamabost gaztek lortu zuten baimena ontziratu eta lehertzear zegoen gerratik urruntzeko[XL].

Erregearen zerbitzuarekiko interesik eza ez da marinelen kontua bakarrik, zurginak ere horretan daude. Pasaian dagoen *San Fermin* ontzia tresnatzeko ardura duen Marina Komisarioari, Bernardino Corverari, neke zaio ulertzea ez bakarrik badiaren inguruko baizik probintziako zurginen ukoa hirurogeita hamasei kanoiko makina eder honen ontzigintzan lan egiteko eskaintzari. Eta are ezin konprenitzekoa

egiten zaio, Konpainiarako ari direneko soldata bera agindutа. Corvera harri egina dago nolatan ez dituzten beren lantxo partikularrak uzten bere deialdira biltzeko. Hiru boluntario baino ez zaizkio etorri, eta Migel Zatarainek utzi dizkion beste zortzi langile. Corvera prest dago kualifikazio handirik ez duten zurginak ere hartzeko[XLI].

Ideia edo jarrera berbera, Erregenearekiko hastio berbera nabari da Caracasko Konpainiaren Santa Teresa fragatan ontziratuen artean, zerrenda egiterakoan jasoa[14]. Informeak, 1782. urtean Joaquin Gutierrez Rubalcabak sinatua, frogatutzat ematen du enrolatuen gaitasun profesionala, baina oharrarazten du ez dutela inolako gogorik besteren agindupean lan egiteko, Gutierrez Rubalcabak berak ikusi ahal izan duenez Pasaian hondoa jota zegoen ontzia urazalera ateratzeko bertakoek uko egin ziotenean, ez baitute beste aginterik onartzen ez bada marinelen kofradiarena. Hori nahikoa ez eta beraiek hautatzen dute zer lan egin, gogokoa hartuz, estimatzen duten bakarra atoian jardutea izanik: "Eta honetaz ari, on da gogoratzea jaun honek, orain bi hilabete, moila honetatik urruti gabe behea jotako ontzi bat libratu nahirik, ez zuela bere marineletan inor lotu ahal izan faena horretarako egun askoan, jornalak altuak izanagatik, eta kanpotarrak ekarri behar izan zituela. Maiz suertatzen da besterik ezin lotua, eta jornadarako ekarritako baserritarrak itsaso lanetan ikusita halako axola apurra demostratzen du jende honek ezen alferkeria osoan pasatzen duen eguna ardandegietan, mendian talaieru dabiltzanetakoren batek abisu eman arte erremolkea edo atoaia behar duen ontziren bat ageri dela, hauxe denez egiten duten faena bakarra. Eta abusu handiekin gainera… Esklusiba amorragarri horrek, ematen dien goragotasunaz gainera merkataritza gutxiagoko portuetakoak izatearen desditxa daukaten lankide zorigogorrekoen aldean, nagikeria sortzen du, atoiak edo erremolkeak kenduko dizkien inor ez daukatelako, eta esan dudan moduan tabernan botatzen dute bizitza, horrela baino garai batean egin ohi zen antzera itsasoan egon zitezkeela arrantzan eta talaieruen seinaleei erne ontzia agertzen den aldera arrimatzeko. Bi kalte datoz honetatik, bata gehienetan dagoen arrain eskasia, bestea ontzia atoiatzeko kanoiaren tiroa entzunda salida egiterako galtzen duten denbora. Ez dut abusu gehiago ahomentatuko, hala nola ahalegina egitea ontziek behar baino txalupa gehiago har ditzaten eta egunez egin zezaketena gauez ateratzea, egun argiz egindakoaren halako bi kobratzearren… Ez da gertatu zaharra, Pasaiatik Santanderrera joateko txalupa bat fletatu behar izanda Errege zerbitzuan, pauso alfer ugari eman zuela hiri honetako alkaterik errespetagarrienetako batek harakorik bilatzeko, beste edozein tokitan matrikulako txinel batek orru eginda soldaduak balira moduan azalduko zirenean trumilka, eta hala ere merkatari batek berehala topatu zituen prest zeudenak lan eta bidai berdinerako. Gertatu honetatik ateratzen da ezen, gehienetan muzin egin baldin badiote faenari, are lotsagabeago egiten diotela Errege zerbitzuari, eta horrela konprenitzen da zeinen arin ausentatzen diren jendea behar delako zurrumurrua entzun orduko"[XLII].

Garai batean bezala arraun eta arrain: iduri luke konpainia kolonialek eskaintzen zuten paradisua hemen bertan zegoela, Venezuelara edo Filipinetara gabe.

**PARTIKULARREN MANDATUETAN ARI DIREN ITSAS ZURGINEN ERROLDA.**

- **Altza:** Pedro de Elizalde, José de Larratxao, Manuel Etxarri, Marcial de Zapiain, Manuel de Anabitarte, Pedro Gorostiaga.
- **Lezo:** Estevan de Echegarai, Rafael de Agirre, José de Arretxe
- **Oiartzun:** José Ignacio Legia, Francisco Sorondo, Fermin Sorondo, Antonio Minondo.
- **Zarautz:** Francisco Albizu, Joaquin Letamendia.
- **Orio:** Xavier Antonio Lertxundi, Sebastian Manterola, Nicolas Beraziartu, Francisco Illarramendi, Andres Iturraeta, Baptista Berride, José de Okosta, Ignacio Allurralde, Baptista Allorta, Baptista Azkue, Baptista Arostegi, José Manuel Arostegi, Domingo Olaizola, José Agustín Manterola, José Eskorta, José Ignacio Ago, Ignacio Aiestaran, Francisco Ignacio Txanka, José Itxaspe, Joseph Antonio Solazabal.
- **Errenteria:** Manuel Mitxelena, Juan Antonio Txipres, José de Mitxelena, José de Otamendi.
- **Aia:** Francisco Alkorta, José Antonio de Olaskoaga.
- **Santa Katalina zubian ari direnak Juan Migel Zatarainen manupeko:** Pedro Arbiza, Baptista Ugalde, Gabriel Lertxundi, Juan de Zatarain, Joaquin de Zatarain Manuel Aldasoro, Jerónimo de Arrillaga, Francisco Azkue.
- **Usurbilen ari direnak Jose Nikolas Aizpuruaren manupeko:** José Antonio de Iparragirre, Juan de Galarraga, José Antonio Azkue, José Alzua, Agustín Zumeta, José Elgarresta, Juan Antonio Balerdi, Alexo de Atxega, José Zumeta, Felipe de Atxega, Pablo de Aldasoro, Juan el de Eitza, Juan de Arriola, Matias Maestroarena.

14 - Gaztelaniazko jatorrian, *repugnancia a servir al rey*, muzin egitea adierazteko.

Gainera, deskripzio hau bat dator Larramendik lehenago egindakoarekin: pasaitarrek ez dute kasik agintzen dienik inor itsas kontuetan, Kofradiako maiordomoa dute gorenekoa. Ontziratzeak kontrolatu eta Erregenekoan zerbitzatu dutenei lehentasuna ematearren kofradiek osatzen dituzten zerrendek ez dute zalantza handirik sortzen testigantza hauen zinezkotasunaz. Aitzitik, garbi erakusten dute arrunt desberdinak direla agintarien gogokoenen taula eta langileen gogokoenena. Errenteriako "Mareanteen matrikula liburua" arakatuz ikas genezake, adibidez, Ferrolen dagoen bat izan ezik, artillero, marinel eta marierdi guztiak Caracasen daudela 1772an[XLIII].

Egoera berdina 1781ean: badiaren inguruan ez dago lanbidez marinel, artillero edo marierdi den inor gai eta libre denik Errege zerbitzurako. Mugabarru honetako itsasgizon guztiak urrun daude… Kasu honetan arrazoi berri bat erantsi behar zaio urruntasun honi, haietako batzu-batzuk Rodney almirante ingelesak harrapatu baitzituen atxilo. Arestian aipatu dugun Mutrikukoan ere arrazoi hau gogorarazi zuen alkateak. Gerrako ontzietan izan edo Konpainiakoetan, arriskua berdin zebilen zelatan, baina aukeran erraza dirudi non nahiago. Konpainian ere Errege zerbitzuan zeuden, baina zeharbidez, interes nagusia norberarena zelako. Gerran ez.



# 4 KONPAINIAREN HERENTZIA MATERIALA PASAIAKO BADIAN



La Guairako portuak ez zeukan egitura onik negutea egiteko. Abantaila bakarra zeukan, Caracaseko sarrera-irteera zela hegoaldetik, mendi lepoa igarota. Puerto Cabello berriz, bere barne badiarekin, ezin egokiagoa zen itsasontziak babesteko Europarantz abiatu artean. Konpainiak hainbat tailer eta biltegi eraiki zituen inguruko kostaldean.

*Archivo General de Indias. MP-Venezuela, 149. (1764).*

Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarraren alderdi nabarmenetako bat dugu hauxe, haren aztarren materialik eza gure badian. Gogorra da onartzen gure bizitza sozial eta ekonomikoan hain sakon errotu zen eta mundu mailan eragina izan zuen enpresa batek utzi ez izana bere ekinaren arrastorik edo lekukotasunik inguruan. Egia da, bai, arkitekturako (etxeak, elizak, jauregiak, obrak…) eta apaingarrizko elementuak batzen baditugu (elizetako hornidurak, esate baterako), azalduko zaigula Amerikari zor diogun aberastasuna ikusteko gairik. San Pedroko eliza, Bonantzako aldarea, San Juan karrikako tunelak, etxe eta jauregi barrokoak, itsasertzeko zati puska ederren lehortzea… Horiek denak ezin dira ulertu Mexiko, Peru, Buenos Aires eta Venezuelatik heldutako dirutza gabe.

Baina Errege Konpainiaren aztarrenik ez daukagula diogunean adierazi nahi duguna da ez daukagula Konpainiaren ontziolaren puskarik, ez handirik ez txikirik, edo haren industria osagarriarenik. Eta oraingoz behintzat ez dugu aurkitu ahal izan itsasoz, marinelez eta merkatariz halako ekinaren mailako obren eta lanen berri eman liezagukeen agiririk. Garai hartako grabatuei esker bakarrik kokatzen ahal ditugu non egiten ziren lan horiek. Badaude marrazkiak ontzigintza nola egiten zen ulertzen laguntzeko, baina ez lantegi eta eraikuntza haienik. Horrela, mende bat geroago Victor Hugo harritu zuen sokategia, ozta ageri da zenbait grabatutan.

Egia esan, gogoeta eginik, ahaztura bera nagusitu da gure iragan industrial hurbilenaz ere, ez daukagu arrasto material askorik.

Bestalde, kontuan hartu behar dugu XVIII. mendeko pasaitarren behar praktikoek ez dutela zer ikusirik guk gaur ditugunekin, are gutxiago gure jakin-minarekin. Antza denez, garai hartako kezkarik handiena itsasbeheran ere badaiak portu izaten jarraitzea zen. Ezagunak dira portuaren egoera tamalgarriaren lekukotasunak, baina behin eta berriz errepikatu arren beti harrituko gaitu Konpainia lokatzez inguratua egoteak bere ekina gorenean zegoen urteetan.

Arazo garratza zen ontzien trafikoa gero eta ezinagoa egiten zuten lurreten eta hondar guztiak garbitzea. Hain zuzen, kontu jakina da txukundade falta honek eta horretatik datozen ondorio kaltegarriek eragin zutela, besteak beste, Donibane independente egitea lehenik, eta Pasaia bere gaineko udal gisa antolatzea gero. Ez da kasualitatea 1770 eta 1805 bitartean gertatu izana horrelakoak.

Ordurako, eta 1733az geroztik, portuaren gaineko mugapea Donostiaren eta Hondarribiaren artean banatua zegoenean, Konpainia hazi ahala jarrai liteke badia kontrolatzeko lehia. Adibidez, urte horretan, 1773an, Tomas Allo sanpedrotarra buru zutela, zurgin talde batek hasiak zituen Konpainia Gipuzkoarraren galera baten lema egiteko lanak, Donibaneko plazan. Plaza egin berri samarra zen, 1694an zehazki, artean ura etxeaurreetaraino iristen baitzen (gogora dezagun oinez etxeratzeko, mendian barrena etortzen zirela Santa Anatik aurrera). Datu honek garbi adierazten du antolamendu berezirik ez daukatela lanerako, nahikoa zaie leku zabal eta lehor bat. Baina zurginen jarduna ez zen izan Donibaneko errejidorearen gustukoa, hots, Hondarrabiko errejidoreari ez zitzaiola ongi iruditu, eta zurginek lanerako ipiniak zeuzkaten harriak putzura bota zituzten. Hondarribiak argitu behar izan zuen Konpainiaren eta Donostiaren aurrean halakorik egiteko arrazoia, aspalditik adostuak baitzeuden hiru parteak plazaren erabileran, eta Hondarribiaren defentsa, oraingo honetan, zurginek ez zutela baimenik eskatu. Argudio honek susmoa sortzen digu, zurginak Donostiako mugapeko biztanleak zirenez, baimena eskatu gabe aritzeak lekuaren gainerako eskubideren bat urratzen ote zuen[XLIV].

Konpainiaren presentziak portuan sortzen duen tinkadura eta portua bera gero eta lokatzatan barnago hondoratzeak dakarren egoera lastimagarria, hogei urte eta gehiagoan metatutako kexak biltzen dituen espediente luze batean daude jasoak. Argi geratzen da berriro hiru mugabarrutien talka: Konpainiako partzuerrek, Erregeneko interesek eta Aldundiak elkarri egozten diote portua garbi edukitzeko zergak biltzearen eta dirua banatu eta eralgitzearen erantzukizuna[XLV]. Horrelakoak ikusita, akordura dator Konpainiaren sorburuaz Astigarragak zioena, Donostiako merkataritzaren interesei lotua zegoela, eta ez zetozela beti probintziarenekin bat.

Zentzuz uler ezin litekeen egoera daukagu 1747an: Aldundiak geldiarazi egiten du itsasertza hobetzeko eta hondar eta material astunen jausia eragozteko Frosne ingeniariak zeukan proiektua, nahiz eta Konpainiak gogor egin haren alde, obren finantziaketan parte hartzeko prest. Hain zuzen, Konpainiak planteatua zeukan urtebete lehenago Kodemastiko obra (Ondartxon), ezinbestekoa irizten ziolako portua zeharo hondatuko ez bazen[XLVI].

Utzikeria da nagusi: hondoa garbitzeko dauden hogeita hamarren bat langileak soldatak ezin kobraturik, Ondartxoko eta Alaburtzako errekek itsasora harri gehiago ekarri ez dezaten aurkeztu proiektua bertan behera, erabiltzaileen, marinelen axolagabekeria, lastako harriak hondora jaurtitzeko daukaten ohitura, uretik hurbil dauden soroak lur ekarle, hondoratutako ontziak traba egiten inork jaso eta erretiratzen ez dituelako… Ugariak dira arazoak, eta ez dago konponbide orokorrik.

Espediente honetan azaltzen denagatik, Donostiak indartu egin zuen portuaren gainean zeukan eskumena dorrezainaren figurarekin eta 1751n argitaratu zuen erabiltzeko araudiarekin (gehigarri erantsi dugu), baina Donostiak ez zuen deus ekarri portuak zingira bihurtzen jarrai ez zezan.

Egoeraren larriaz gaztigatzen zaio Donostiari Pasaiatik 1757an. Portua hodamen egoeran dago, ez du zer ikusirik

mendebete atzera zeukan itxurarekin, ehun ontzi baino gehiago aingura emanak badian, bazterretako armategietan eta ontzioletan berrogeita hamar eta ehun tonako ontziekin. Oraindik ere, diote 1757an, bertan daude Bordalaborda eta Basanoagako ontziolen aztarnak, baina bigarren leku horretan ez dago ontzirik altxatzeko aukerarik, fragata bakarra hartzen adina ahalmena besterik ez daukanez. Gauza bera gertatzen da Pasaiako Errege Ontziolekin Salbion, San Pedron, hirurogeita hamar kanoiko ontziak egiteko gauza ziren lehen… Agidanez, Oiartzun ibaiaren uholdeek eta batez ere arestian aipatu erreka biek mendian behera dakartenak horretaratu dute portua.

Galgarri daudenak ez dira ontziolak eta bazterrak bakarrik. Bokaleko eta badia barruko joan-etorria ere trabatu egiten dute itsasaldiek mugitzen dituzten lokatzek eta hondarrek, dela kanalaren erdira, dela Bordalaborda aldera, eta honi erretiratu gabe dauden hondoratutako ontziak gehitu behar zaizkio:

"Horren zabaldua da desgrazia hau ezen ditxo edo ainguraleku seguruenetara ailegatzen den, eta halako suertez non orain hogeita hamar urte ontziek launako errenkadan egiten bazuten salida maria beherean ere, gaur hainbeste ageri da hondartza maria bizietan ezen oinez ibili litekeen bertan, eta hau da kausa ontzien lehen lerroa hastearena Bokalearen erdirago berrogei besabete, gaur ikusten den moduan Errege Konpainiaren *San Juan* eta *San Sevastian* bi fragata txikiekin".

Itsasaldiek baldintzatu gabeko itsasketa bermatzea eskatzen duena Diego Otazu dugu, besteak beste Donibaneren independentziaren protagonista nagusietako bat. Kexa honetan kritikatzen dena ez da Aldundiaren utzikeria bakarrik, baita Konpainiaren beraren ganora eskasa ere portuaren egoera orokorraz, itsasgora aski zaien ezkero bere biltegietara iristeko. Otazuri helduko zitzaion erantzuna Konpainiak berak egina zen, egoera ez zela ona onartuz baina agerrarazi nahi den bezain txarra ez, ontziak hondoratzearen zergatia pilotuen trebetasun ezari eta badiaren inguruko baratzeetatik euriak putzura ekartzen duen lur eta lokatzari egotziz, portua ez artatzeari baino.

Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarrak Pasaian zituen instalakuntzei dagokienez, garaiko irudietara jo behar dugu paisaia edo aurkintza hura berreraikitzeko. Kexa eta eztabaida hauek denek portuaren kartografia aberats bat sortu zuten, XVIII. mendean zeukan egoera ikusi ahal izateko. Plano hauek behin eta berriz ekartzen dituzte argira badiaren mugak itsasbeheran, kasik Dorrerainoko lupetza, basadi edo lohitegi handi bat ikusten ahal dela. Honek dakar, adibidez, ontziolak eta biltegiak lehorrean egotea maiz, kanal estu batzuen bitartez irisgarri. Baina plano hauei eta auzietan erabiltzen ziren ontziolen inguruko bestelako irudiei esker kokatzen ahal ditugu, eta ikasi, Caracasko Konpainiak aurrena eta Filipinetakoak hurrena gure bazterretan eragin zituzten aldakuntzak portuaren erabileran.



Faktoria, labea, sutegia, ospitalea, bulegoak eta biltegia zeuzkan Konpainiak Puerto Cabellon. Faktoriaren egoitza zena Aduanarena bihurtu zen aurrerago. *Henrique Neum. Album de Caracas y Venezuela. (1877 -1878).*

Horrela, eta irudi hauek lagungarri dauzkaten testuetan oinarriturik[15], honako sekuentzia hau ezar genezake:

· 1671, Villalobos eta Olariagaren planoa.

· Errege Ontziolak aipatzen dira Bordalabordan, eta Errenteriako Udalarenak, gaur egun Iztietako zubia dagoen horretan.

· 1636, Gandolfo, Soto eta Texeiraren mapa.

· Oraingo Donibaneko plaza ontzien atrakalekua da eta aipatzen den ontziola bakarra Basanoaga da.

· 1744, Vicente Giner Armadako delineantearen planoa.

Xehetasun handikoa da, Konpainiaren azpiegitura zehatz adierazia dago, Errege zerbitzuetako enplegatuek kudeatutako instalakuntzak ditu ondoan, eta zalantzak sortzen ditu zenbait espazioren jabetzak. Honelakoak irakurtzen ahal ditugu:

· Zentral termikoa zegoen Koxtapeko horretan: Bere Maiestatearen etxe propioa sokategirako erabilia; beste… Ainguren Errege Fabrika izana.

· Bordalabordan, orain Zamakona ontziolak hartzen duen lekuan: Caracasko Errege Konpainiak erabiltzen zuen hemezortzi zutabeko etxea, eguzkitik eta euritik babesteko estalpeduna; Martin Boyer ontzigilea bizi izan zen Erregearen etxe propioa; Errege konpainiak berak egindako hesia eraikuntzako oholak babesteko (ontziak egiteko zura uretan uzten zen, sare edo hesi barruan).

· Bordalaborda eta Bizkaia artean: *Santa Teresa* izeneko Errege fragata egin zen lekua.

· Bizkaia: *Ruvi* eta *Guipuzcoana* izeneko Errege ontziak egin ziren ola. Hemen ere uretan gordetzen zen ontzigintzako zura.

· Salbio: Errege Konpainiak berak erabiltzen zuen ontziola, bertan egin ziren *Andalucia* eta *Castilla* izeneko ontziak; olan dagoen etxea, Simon Zelarain ontzigileak aurkeztu

15 -Mapa eta irudi hauek bilduma honetako aurreko aleetan argitaratu dira.






Puerto Cabelloko kaiak, Caracaseko Probintziako kostazainetan tenientea den Xabier Emasabelek 1784an jasoa eta delineatua.

*Archivo General de Indias. MP-Venezuela, 194.*

zituen kontuan arabera, etxe honen, ondoan dituen sutegien eta ontziolaren gastuak Bere Maiestatearen gain egon ziren[16].

1760-61, Felipe Crame ingeniariaren ikusgarrizko planoa[17].

Ontziolen kokapena honetan ere. Plataforma handi bat Salbion, hango nasetan eta ontzioletan egiten dira Caracasko Konpainiaren barkuak; ontzigilearen etxea; sutegiak. Hau dena bat dator 1741ean egindako leku honen deskribapenarekin, baina oraingoan honakoa eransten zaio:

"Bordalabordan eta ontziola zaharretan itsasbideko ontzi ugari egin da azken berrogeita bost urte honetan (Simon Zelarainen garaia da noski), baina gaur ez litzateke posible kanalak ebaki gabe, ura eskas delako".

Bestalde, Bizkaia auzoan ontziola zahar saila markatzen du, Bordalabordan lanean dihardutenak Konpainiarako, eta instalakuntza osatzen duten bestelako eraikinak ere bai. Kolore bereziz markatzen du hau dena mapan, mugatzen duten eta "RI" letrak ageri dituzten zedarri batzuen berri emanez, errege lurrak zirela alegia.

Ikusi dugun bezala, mapok beti leku berean kokatzen dizkigute ontziolak: Basanoaga, Salbio, Bizkaia, Bordalaborda. Baina, urtearen arabera, aldatu egiten da titularra, edo ontzigilea behintzat: Errege Armada eta Caracasko Konpainia txandaka.

Izatez ere, 1761ean Cramek Bizkaian utzitakotzat jotzen dituen ontziolak arian azalduko dira ostera, leku horretan dagoen etxearen berrikuntza dela medio Arizabalok eta Gilisastik sortu zuten auziari atxikitako akuarela eder batean. Akuarelan Errege Ontziolak aipatzen dira, lekua zehazturik oholez eta aingurez.

1766an Errege Agindu bat aipatzen da, Caracasko Konpainiaretzat hain zuzen, baimena emanez Pasaiako portuan kai edo nasa bat eraikitzeko. Baina ez dakigu non eta nolakoa[XLVII].

1777, Odriozolak sinatutako mapa.

Ez da gainerakoak bezain zaindua marraz eta margoz, baina garrantzizko xehetasunak dakartza, hala marrazkietan nola testuan. Lehenik, bi mailadi aipatzen ditu Salbion, Errege Ontziola eraikitzeko. Bordalabordak jarraitzen du izaten Konpainiak bere ontziak lantzen dituen lekua, eta antolamendu goratu bat kokatzen du bertan. Mapa honek obrak egiteko zenbait proposamen azaltzen du, uraren etorria bideratzea, uhin-harresiak jasotzea… eta Bordalabordako ontziola pareta batekin babestea Bizkaiaraino, berdindutako lurrean lehorpe bat eraikiz biltegirako eta mastadura lantzeko. Lekune berri hau ordurako independentea zen Donibaneko Udal Ontziolarekin batuko litzateke, ontziak karenatzeko.

1776, Girauden mapa.

Ez dakar berrikuntzarik.

1788, Exarchen mapa.

Honek ere ez dakar berrikuntzarik irudietan, baina oharrarazten du portuaren egoera txarrean nolako eragina duten txirbilek, zaborrek eta Konpainiaren ontzigintza eta karenatze lanetan uretara botatzen diren gainerako materialek.

Aitzitik, Caracasko Errege Konpainia Filipinetakoak ordezkatzearekin, aldatu egiten dira gure informazio iturburuak. Alderdi grafikoa murriztu egiten zaigu eta idatzitakoa zabaldu, Filipinetakoak obra handi samarra egin baitzuen bere ontzigintza bermatzeko. Obra hau Bizkaia auzoan egiten zuten, eta lehorgunea handitzea ekarri zuen. Horrela, 1785eko abenduak hamaika egun zituela, Udalak eta Filipinetako Errege Konpainiak hitzarmena sinatu zuten aipatu lehorgune berriaren erabileraz. Bi erakundeek egin zuten neurketa adostuan argiro aipatzen da mailadiak eraiki beharra ontziak eta gainerako lanak egiteko. Besteak beste, ontziak artatu eta garbitu edo bikeztatu (oholen tarteak iztupaz, kalamuz eta pikaz iragazi-ezindu). Lanerako eremua Arizabalotik hasi eta garai hartan Konpainiako biltegietako guarda gisa Manuel Suertegaraik okupatzen zuen Bordalaborda etxearen aurreko zurezko zubiraino hedatu zen. Eremuak zortzi golde hartzen zituen osora, berrehun eta berrogeita hamaseiren bat hektarea:

"Aipatu den lekuari dagozkion mugak edo lindeak honakoak dira justuki: kosta aldetik, itsasoaren goraldiek eta beheraldiek lehorrari kentzen eta ematen dioten guztia, eta aurre aldetik, On Matheo Martiarena Barranko zenaren etxeetako espaloi osoa, eta Bordandia etxeko sagastia, Bordalabordako mugaraino".

Udalaren eta Konpainiaren artekoa 1786ko urtarrilean sinatu zen, Konpainiak urtean laurehun eta berrogeita hamar erreal ordaintzekotan[XLVIII].

Donibaneko Udalak eta Konpainiak itxuraz elkarrengana zuten kidetasuna etenbehar batean egon zen 1793an. Izan ere, plataformari egindako ikerraldian, gainbehera erortzeko arriskuan zegoela azaldu zen. Bat datoz bi aldeetako perituek, zarpailkeria hutsa da egindako erantsi berria, langileek ahalmen teknikorik ez zutelako edo, besterik gabe, zabar aritu zirelako. Nasa gaizki finkatua zegoen arroka

16 - Javier Sadak, *Historia de San Sebastián a través de sus personajes* liburuan, gure hauxe dela suposatzen dugun Zelarain bat dakar, zazpi ontzi ari baitzen egiten 1719an, Berwickeko Dukeak itsasertzeko herriak suntsitu zitenean. Baliteke, beraz, testuan aipatzen diren kopuruak jazar hartan pairatutako kalteenak izatea. Serapio Mujicak berriz Pasaian kokatu zuen Zelarain armadore 1697an (*El libro de los fueros*).

17 - Ez da nahastu behar hau bezala ingeniaria zen Agustin Cramerekin. Agustinek Venezuelako itsasertz osoan jardun zuen 1776az geroztik, La Guairan eta Cumanan batez ere, Konpainiaren ekinaren epizentroan.

baten gainean, mailadien eta karelen zamak mando eginarazia zion eta itsasoak urpean hartua zeukan ondoko bidea:

"Zierto dakigu eta egiaz, nasak mugituaren hala nola hurrengo gertatuen kausa dela jakin eskaseko edo ezagutza apurreko ofizaleek egin dutela, edo taxu handirik gabe aritu direla, gaur ageri diren desegokitasunak aurrez kontuan hartu gabe, eta beste horrenbeste iturri publikoa eta miradorera doan bidea urpean edukitzearen kausa, zeina den aipatu dugun aztura gaizto hori".

Bi erakundeen arteko tenkadura handitu egin zen Konpainiak lehorguneagatik urtekoa ordaintzeari uko egin ziolako, eta Udalak instalakuntzen giltzak kendu zizkion, bortxaz.

Esan liteke ekaitzak atertzera egin zuela 1797an, estalpe luzearen pean sokategi handi bat egiteko proiektua azaltzen baita, Martiarena Barrankoren etxetik (urte gutxi da desmuntatu zela gutxi gorabehera gaur egungo bidetaloan zegoen jauregia) Bordalabordaraino. Proiektu hau zantzu edo erakusle fidagarria iruditzen zaigu une hartan ontziolak zertan ziren jakiteko, kalamuzko sokak ezinbestekoak zirenez ontzigintzan[18]. Bestalde, antolamendu berriarekin eremua ere birmoldatu egingo zen, oinezkoentzat erosoago bihurtuz.

Hala ere, 1801-1806 urtealdian ontziolako kaiak puska jario ageri dira, bidea ibili ezina, karrika eta ontziola bereizten dituzten hesiak askatuak, auzoen kexak areagotu egin zaizkie… Etorkizunaren haizea ari da jotzen, industria eta bizitegia adosteko arazoak sortuko dira beti Pasaia bezalako eremu urrietan.

Eremuaren urriak eta muntatutako azpiegituren arinak osagarri ezin egokiagoak dira gure inguruan Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarraren aztarrenik ez uzteko.

18 - Eta baliteke hauxe izatea Pasaiara heldu zen egunean bertan Victor Hugok ikusi zuen etxea, pasadizo barregarri baten sorburu.

5



# CARACASKO KONPAINIA ETA PASAIA




Jan Pieterszoon Coen izan zuen gobernadore Ekialdeko Indietako Konpainia Herbeheretarrak. Bere sorterrian, Hoornen, estatua bat jaso zuten haren oroiz. Ez da aspaldi eztabaida interesgarri bat sortu zela bertan gisa honetako monumentu publiko batek suposatzen eta adierazten duenaz, eta halako Konpainiaren historia era laudagarrian derrigor oroitu beharraz.

Eztabaida publikoak ez zuen Coenen estatua erretiratzea lortu, baina plaka bat erantsi zioten, halakoaren egokitasuna zalantzan jarriz.

Gai hau, ondarearen interpretazioarena eta monumentuen bitartez eraikitzen den errealitate ideologikoarena, Lisa Johnsonek landu du: "Renegotiating dissonant heritage: the statue of J.P. Coen". *International Journal of Heritage Studies*. *20-6 (2014)*.

Jan Pieterszoon Coen. GerardM at Dutch Wikipedia.

XVI. mendean galdutako merkataritza bikaintasunaren puska bat berreskuratzea lortu zuen Pasaiak XVIII.ean, eta katebegi garrantzitsua izan zen ostera nazioarteko itsasketan. Antzinean bezalaxe, gerrak baldintzatu zuen onerako aldaketa, baina ikusia dugu gerra eta merkataritza txanpon beraren bi aldeak direla konpainien politikan.

Jakinean gaude Pasaiak Caracasekin eta Filipenekin osatu zuen historiaren alderdi bakan batzuei eman diegula arreta. Uste dugu, batetik, landuak daudela alderdi orokor asko, eta horietan Pasaiak ez daukala halako gailentasunik, konpainien antolamenduan ukaezineko garrantzia duen arren; bestetik, ez direlako badia eta bere ingurua bakarrik suntsitu direnak enpresa hauen historiatik, pasaitarrak berak eta oro har gure putzubueltako biztanle guztiak ere suntsituak daude, ezabatuak, deuseztuak. Zer esanik ez pasaitar horiek, biztanle horiek emakumezkoak baldin badira.

Bestalde, auzietako agiriei eman diegu lehentasuna, orain arte behintzat jaramonik egin ez zaion baina bazela sumatzen genuen problematika batera hurbiltzeko. Agian, zoritxarrez eta sarritan, gure Historia etenik gabeko eta atzera-aurrerarik gabeko narrazioan kontatu izan zaigulako. Gorabeherarik ez, arazorik ez. Beti kasta berdina protagonista, “gure gizon handiak”.

Beraz, asmoa ez da izan “konpainien historia” egitea, faltetsi egiten genuen zenbait alderdi eranstea baizik, lotura zuzena dutelako Pasaiarekin. Eta ongi bereizi nahi izan ditugu gertatu historikoak eta gure mundua hobeki ulertzeko haietatik atera litezkeen irakurketak edo irakaspenak.

Historia txundigarri hau sakonkiago ezagutu nahi duenak obra zerrenda bat dauka liburu honen eranskinetan.

Direnak diren bezalakoak baitira denak, Jose Aranbururen emazteak eta amak sinatu zutenak, alegia, Jose zenaren ondasunak Gabriel Elizaberaren eta Frantzisko Azaldegiren eskutik jaso zituztelako agiriak, errealitate gordin baten aurrean jartzen gaitu: Zer geratzen da bidaian gertatutako heriotzaren ostean? Zer lortu zuen Jose Aranburuk bere izerdiarekin? Cadizen hil zen Caracasetik honantzakoan, eta hauxe da haren ondasuna: bi jaka, paparreko hegal bat, bost pare zaragoila, sei alkandora, bi galtzerdi pare, polaina pare bat, oinetako pare bat, gainjantzi bat, hamaka bat, bi brosa, gubia bat, burdinazko bi estugailu, lau eraztun eta ehun eta berrogeita zortzi peso[XLIX].

Asko ote da? Gutxi ote da? Liburua irakurri ahala espero genuena ote da? Nolanahi dela ere, horixe izan zen haren “Indiak egitea”. Adibide xume bat da egiazki, ez ikerketa estadistiko bat. Baina jende multzo haren gehiena batez besteko honetan ibili zelakoan gaude. Bidaiaren irabazia



Abordaia ohikoa zen kortsarien artean, eta sarritan bihurtzen ziren benetako pirata eta gerra egitadak. Grabatuan, Hassard kortsarioak “Triton” ontzia hartu zuenekoa. *Ambroise Louis Garneray (1783-1857), kortsarioa, margolaria*.

izan zitekeen bizimodu arrunt bat egin ahal izateko lain ateratzea. Sarritan, "indiano" edo "amerikano" dirutuaren irudia erakutsi izan zaigu, garaileen galeria, baita gure bertsoetan eta gure literaturan ere. Aipatu ditugu eta ekarri ditugu aberastu eta Amerikan errotutako caracastarren ereduak eta lekukotzak. Horretatik dator, preseski, beste ikuspegi honi ematen diogun garrantzia, gure bidaiari haiek laguntzen ahal digutelako gizalegez joka dezagun egungo bidaiari migratzaileekin. Eta, horretaz gain, XX. mendeko Pasaia eraiki zuten familien akordua ekartzen digutelako hagitz.

Gure aburuan, historiagilearen lanaren barruan dago gogoetarako gomita egitea, endemas historiaz eman izan zaigun irakurketan iraganeko gertatuak oro ezin handiagoak, errepikagaitzak, paregabeak bihurtu dizkigutenean, kontuan hartu gabe Euskal Herriaren historia ez dela unibertsala bitxiena izateagatik, era identifikagarrian hartzen duelako esku baizik gertatu historikoetan, partzuerrek osatutako konpainietan bezala. Gogoeta eginik, beraz, Amerikarako txangoa urrun dago ipuin liluragarrietatik edo mentura atsegingarrietatik, baina izan liteke migratze bat, jende xeheak zeukan aukera bizimodua hobetzeko.

Ikuspegi murritz berdintsuan, Caracasekiko merkataritza beti eman ohi zaigu gizonezkoen lanbidetzat, eta halaxe da ontzietan, baina emakumezkoen rola argitara ekartzeko zegoen, Caracasko Errege Konpainiari lotutako ekonomiaren zati etenezina baita. Honetan ere, irudi erromantiko betiberatik urrun dauden nekeak eta gertakariak dauzkagu. Eta ahaztutako alderdien ildoan, interesgarria deritzogu badiaren garrantzia eskualde oso batean kokatzeari, ez bakarrik pasaitarren eremuan, inguruan zeuzkan hirietan ere bai: Donostia, Hondarribia, Baiona. Bestalde, Pasaia ez da eta ez zen Donibane eta San Pedro bi itsasbazterrekoa, bada hirugarren bat, naturak edo gogoak emana, garai hartan Lezo eta Errenteriaraino iristen zena. Eta muga kontuetan sartuta, ez dira albora uztekoak nazioarteko merkataritza hark sortzen zituen irabazien kontrolaren gaineko lehiak, portuan agintzeko auziak eta, ondorioz, udalaren beraren sorrera 1770 eta 1805 bitartean.

Azkenik, ohikoa izan zen lapurtarrak azaltzea Konpainiaren ontzietan marinel eta Baionako merkataletxeen ordezkari sal-erosketan. Baiona bidaiaren zirkuituan egoteak garbi erakusten du bi portuen arteko osagarritasuna eta gureak Lapurdiko kostaldearekin izan duen harreman sarria. Bitxia da, Baiona dugu, kakaoa dela eta, txokolategintzaren erreferentzia gaur egun, eta ez Pasaia.

Ondare materialari dagokionez, alferrik ahalegindu gara Salbion kokatua zegoen ontziola handiari buruzko agiri berriak bilatzen. Aurkitu dugu ordea Bizkaia auzoan zegoen Filipinetako Konpainiaren ontziolari dagokionik. Hala ere, interesgarria da Donibaneko eta San Pedroko ondare arkitektonikoa ikuspuntu amerikanotik. Alegia, gure udalerriaren berpizte historikoetan, Amerikatik heldutako aberastasunari zor zaiola berpizterik nabarmenena. Aberastasun hori hirigintza bihurtu zenean sortu ziren gerora Pasaia tradizionala irudikatuko zituzten etxeak eta elizak, Pasaia ikusgarri eta maitagarri hori. Eta, esana dugun bezala, Caracasko eta Filipinetako konpainien garaian sortu zuten udalerri batu eta modernoa bi itsasbazterrek, hirugarrenak lagundurik.

Orokorrean hartuta, Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarrak ahalmen handia izan zuen era kolonialeko politika ekonomiko bat antolatzeko luxuzkoak edo erdi luxuzkoak ziren ondasunak ekoiztearren, bertako demanda sustatuz. Aldi berean, elkargo estatal edo aurre-estatal bat antolatu zuen, eta elkargo horretan mugabarruak eta boterea gauzatzeko legezkotasuna ez zen egon esku bakarrean, estatuarenean alegia, elkargoko indar edo sektore desberdinen eskuetan baizik. Horrenbestez, bere aferak gobernatzeko era propio bat sortu zuen Konpainiak Venezuelan, Errege boterearen izenean beti, eta horrek berak ekarri zituen ohiko erakunde kolonialekiko talkak. Konpainiaren jokabidea, hain zuzen, lehendik zegoen agintaritzaz gaineko botere bikun batena gertatzen zitzaien.

Egungo irizpide politikoetan, Konpainiaren antolakuntza hau ulergaitza egiten zaigu, enplegu arauketa, lan baldintzak, ekaiaren kalitatea eta antzekoetan merkatalgoek eta erakunde militarrek ezin baitute, teorian behintzat, estatutik kanpo jardun. Garai hartan ez zen horrela gertatzen, baina orain ere esan genezake, gogoeta handirik egin behar izan gabe, ezagutu dugun arauketa hori guztia suntsitzen ari dela: Konpainiaren hasiberriko kapitalismoak badu antzik egunotako neoliberalismoarekin. Talde baten merkataritzako interesek (enpresa, agentzia, akziodunak…) ongizate orokorraz gaineko lehentasuna daukate, baita estatuen arauketen gainean ere, neurri batean.

Hala berean eta ikuspegi zabal batean esan genezake, ikerketa zehatzagoek gaiari eransten dioten ñabardurak bazter utzi gabe, kolonietako administrazioaren eta Konpainiako administrazioaren arteko etendura hori azken hau desegin zenean baino ez zela amaitu. Orduan bai, Venezuelako bi oligarkiok harreman estuan batu ziren ezkontza bitarteko aliantzetan, elite indartsu bat sortuz, jokari politiko berri bat Espainiako Koroatik at: Venezuelako estatua.

Jokaleku berri honetan, Bolibarren aldarriaren aurka altxatu zirenen artean bada Casacasko Errege Konpainia Gipuzkoarra barrutik ezagutzen zuen pertsonaia bat, Konpainiako partzuerren artean zegoen familia batekoa izateaz bat bertatik bertara baitzeuzkan ontziak, biltegiak eta ontziolak, gaur egun Pasaiako udaletxea den jauregi aurrean. Pertsonaia, jakina, Juan Bautista Arizabalo da[19]. Abizen honek bide

19 - Arizabalo honek amor eman behar izan zuen Paez Bustillosen aurrean 1829an, otoi eskatuz bere gizonen eskubideak aintzat har zitzala, bereziki gainerako tropa elikatzearren lurlanean eta abeltzantzan ari izandako seirehunenak, beltz, mulato eta nabarren herri bat sortzeko aukera emanez, zigorretik libre. Halako eskaerak ez zuen lehengorik.

ematen digu oharrarazteko gure lan honetan historia liburuek ageri ez dituzten protagonista xumeak, konpainiaren inguruan hain garrantzi handikoak izan ziren haiek hartu ditugula kontakizunaren haria eramateko eta, nolabait esanda, protagonista nagusiek badituztela beren biografiak, eta ez badituzte erraz samar osa litezkeela.

Horixe izan liteke badiaren historiak daukan erronketatik bat, bertako familien sagak berreraikitzea eta ahaideekin lotzea, beren ordezkariekin, gure ingurukoak ez ziren beren kideekin, partzuerrekin. Aurreratu dugu zer edo zer Aizpuruatarrez. Ezer gutxi Abadtarrez. Burura datozkigu Cabarrustarrak, ilustratuen errokoak eta proiekzio handikoak Frantziako Iraultzan, eta zehazki Esteban Cabarrus, Filipinetako Konpainiaren sortzaileetako bat, orrialdeotan aipatua[L].

Atlantikoaren itsasketak eduki zuen alderdi zientifikoa ere aipatzeke geratu da, edo ez behar adina ikertua Konpainiaren bibliografian. Izan ere, halako bidaiek ezinbestekoa zuten prestakuntza teknikoa. Honetaz nabarmentzekoa da Bizente Lardizabal medikuaren idatzia, “Gogoeta mediku-politikoak itsasgizonen osasunaren gainean…”, Konpainiak berak eskatua bidaietako eritasunei aurrea hartzeko eta eskifaian beti zihoazen barberu edo osamaisuek eskuliburu bat edukitzeko. Ildo honetan ezin albora uztekoa zaigu Joakin Maria Ferrer astronomo pasaitarren oroitza: mundu mailako ospea izan zuen bere garaian eta beste herritar askoren antzeko lotura zeukan merkataritza konpainiekin.

Liburu honen eranskinetan eman dugu Ferrerren biografia, haren lana eredu on eta hats berri izan litekeelakoan badia egoki bat, portu moderno bat eraikitzeko asmoan.

Horixe nahi baikenuke, Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarrak Pasaian garatu zuen historia ez dadila izan nostalgiarako bide, gure oraingo gizartearen eta gure oraingo premien irakurketa baino.

6

# ERANSKINAK


CONSIDERACIONES
POLITICO-MEDICAS
SOBRE LA SALUD
DE LOS NAVEGANTES,
EN QUE SE EXPONEN LAS CAUSAS
de sus mas frecuentes enfermedades, modo
de precaverlas, y curarlas.
CON LAS CONDUCENTES INSTRUCCIONES
para el mejor régimen de los Cirujanos de Navíos, que
hacen viage à la América, especialmente para los de
la Real Compañia Guipuzcoana de Caracas, à fin de
que con mayor acierto se conduzcan, asi en el méthodo
curativo de los enfermos, como en el manejo de
los Botiquines de su cargo.
SU AUTOR
EL DOCTOR D. VICENTE DE LARDIZABAL,
Medico de la Ciudad de San Sebastian.
QUIEN LAS DEDICA
A LA DIRECCION
DE LA MISMA REAL COMPAÑIA.
CON LAS LICENCIAS NECESARIAS.
EN MADRID: Por Don Antonio Sanz, Impresor del Rey nuestro Señor,
y de su Real Consejo. Año de MDCCLXIX.

Bizente Lardizabal doktoreak Konpainiaren marinelak zaindu eta sendatzeko argitaratu liburuaren azala. 1788. urtean, berriz, *Memoria sobre las utilidades del chocolate* argitaratu zuen.

## 1: Ferrer astronomoa[LI].

Jose Joakin Ferrer astronomoak (Pasaia 1763 - Bilbo 1818) XVIII. mendeko Gipuzkoaren Historia puska baten irudia dugu, probintziako elite ilustratuaren adibidea hezur-mamitan. Eredu bikaina ere bai Caracasko Errege Konpainia gauzatzen den garaiarena eta haren inguruabar politiko, ekonomiko eta ideologikoena.

Azken urteotan behin eta berriz aipatu izan dugu, gure iritzian behintzat, Pasaiak oroigarriz, eredugarriz daukan premia, ez gertakari historikoak omen ditugun horiek sinbolotzat hartzeko edo aurkitzailearen lustre premiarako, baizik badia honen eta bertako biztanleen etorkizuna nolakoa izan litekeen begitantzeko. Gardenago esanik, alde batetik gertakari historikoak dauzkagu, eta oso bestetik, interpretazioen arabera nola islatzen dugun haietan geure burua. Batera zein bestera, Ferrer astronomoa lehen mailako pertsonaia historikoa dugu Pasaian eredutzat edo mitotzat hartzeko. Lotura zeukan Caracasko Errege Konpainiarekin ez ezik beste konpainia batzuekin ere, baina nazioartean hartu zuen ospea alderdi askotatik bakana eta aitzinatzailea den bere jardun zientifikoak eman zion.

Ferrertarrak Pasaian agertzea Errege Ontziolei zor zaie, eta noski, Errege Konpainiari. Ferrer anaien aitak hainbat ardura zeuzkan 1781ean San Pedroko Salbion zegoen ontziolan, guarda, biltegizain eta tailerretako horniduren eta Errege Ontzietako ofizialeen zerrendari, eta 1791n ere azaltzen da zerrendari gisa. Antonio Alcala Galiano biografoak armadako kontatzaile dela aipatzen du, eta aitaren lanbide honi egozten dio Jose Joakin Ferrerrek, letretan eta hizkuntzetan zeukan formakuntza menostu gabe, zenbakietarako eta zientziarako hartu zuen zaletasuna.

Jose Joakin hamasei edo hamazazpi urtekoa zela, Venezuelara deitu ahaide batek. Baita mutikoa abiatu ere 1780an *Asuncion* fragatan, Konpainiaren beste sei ontziko konboia zaindu behar zuen ontzian alegia. Datak badu bere zera, Estatu Batuetako gerra bere gorienean zen, eta esana dugun bezala, Espainiako Koroia, funtsean, amerikarren alde jarria zen kolonietan lehian ari zitzaion Ingalaterraren indarra ahultzearren.

Ferrerren biografia ofizialak dioenez bidaiak ozta iraun zuen astebete, Rodney almirantea irten baitzitzaion arruta hautsiz. Gerrako presoa Jose Joakin gaztea. Presondegia halakoa izaki, izurrite galgarri bat sortu eta presoak metaka hil. Onik irtendako bakanetan Jose Joakin. Berriro Gipuzkoa osoa zainean hunkitu zuen pasartearen aipamena. Historiaren galernak irentsi zituen bidaia honetan abiatutako pasaitar eta gipuzkoar gehienak, arrastorik utzi gabe. Hildakoen kopurua horren handia izan zen non Kaputxinoen komentuari eman zioten albiste beltza ahaideei jakinarazteko enkargua (Matxingon zegoen komentua, hartaz ez da gelditzen Matxingo izen jatorra ordezkatu zuen fraideen izendapena baizik).

Jose Joakinen aitak, Bizente Ferrerrek, Nikolas Gandasegirengana jo zuen, merkatari ospetsua eta gerrako presoekikoa egiten zuen diplomatikoa. Ferrerrek ahaidea zuen Gandasegi hau Manuela Cafranga Bilabaso emaztearen aldetik, hots, Jose Joakinen amarenetik. Negoziaketek haize ona hartu eta preso gaztea ikastetxe batera aldatu zuten presondegi usteletik. Horrela, itxitura utzi eta hiriko bizimodua eginez, mugatua noski eta seguruenez ere fidantzia emanik eta zin eginik ez zuela ihes egingo, sei urtez egon zen Ingalaterran ikasten, hizkuntzan trebatzen eta matematika hutsetan eta matematikek astronomian zeukaten aplikazioetan sakontzen. Bistan da, ikaskideekin harreman sozialak lotzen ere bai.

Gorabehera hauek agerian uzten dute XVIII. mendean ahaidetasunean oinarritutako sare sozialen garrantzia. Maila ekonomikoa ez da aski munduan barrena mugitzeko. Sareak bermatzen ditu pertsonaren osasuna eta osotasuna, ez Estatuak, artean egituratu gabea baitzegoen Estatu-Nazio gisa, are gutxiago Ongizatearen Estatu gisa.

Gure astronomo gaztearen pasarte biografiko honek koherentea dirudien arren, bat ez datorkion datua jaso dugu, 1782an *Santa Teresa* fragatan ontziratutakoen zerrendan Jose Joakin Ferrer bat azaltzen baita, hemeretzi urtekoa, marinel soil eta soldatapeko gisa[LII].

Edo asko izan litzake gertakariak. Edo anaiak zein biografoak ez dira ongi oroitzen datez eta Ingalaterrako kartzelaldia ez zen horren luzea izan, edo protagonistaren gaztealdia edertu eta mitifikatzeko luzatu zuten jakinaren gainean, edo "etsaiaren lurraldean" egon izana justifikatu behar zuten.

Nolanahi dela, gerra amaitu eta Amerikako kolonia ingelesak bere buruaren jabe egindakoan aukera on bat ikusi zuen Jose Joakinek bakealdia baliatzeko, eta halaxe ontziratu zen Peru aldera Cadiz barrena 1787an. Bidai honetan gaur egun ere garrantzi berezikoa den Aricako portuaren mapa egin zuen (Txile), eta zenbakietan eta kalkuluetan itsutu gabe inkek egiten zituzten ehorzketak aztertu zituen, gerora ere erabiliko zuen jokamoldean: negozioa eta zientzia uztarturik.

Iaiotasun honek ekarri zion Jose Joakin Ferrerri *Torre Hermanos y Compañia* merkataletxearen kontratua, Veracruzen (Mexiko, gaur egun) abiatzeko asmoa dauzkaten negozioen ardura hartzeko. Zientzialari-dirugile bikotasunari zor dio, biografoaren esanetan, Amerikarako itsasketaren ardura teknikoa ere berea izatea. Han egin zuen lanaz, eragin handiko arduraduna dela dioskute kronikek, astialdietan ikerketara emana: mendien goratasuna, portuen kokapen geografikoa, intereseko lekuneak, urruntasun taulak…

Cadizera itzulirik Errege Armadarekin kolaboratu zuen, esku hartu zuen izarbegirategia San Fernandora aldatzeko

completed. I have seen the First and Second parts, which were printed at Petersburgh, in 1786, and 1789. Neither the African nor American languages have any place in these volumes. My own labours have now put me in possession of good specimens of at least one hundred American dialects, and several African ones. These may, at some future period, be offered to the public, as a supplement to the work begun by Catherine and Pallas.

---

## No. XXIX.

*Astronomical Observations made by Jose Joaquin de Ferrer, chiefly for the Purpose of determining the Geographical Position of various Places in the United States, and other Parts of North America. Communicated by the Author.*

Translated from the Spanish, and read at different times.

### GEOGRAPHICAL POSITIONS ON THE ATLANTIC BORDER OF THE UNITED STATES.

| | | Latitudes. | | | Longitudes W. of Greenwich. | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | ° | ′ | ″ | ° | ′ | ″ | |
| Cape Hatteras. | † | 35 | 14 | 30 | 75 | 38 | 15 | § |
| Cape Henlopen light-house. | ‡ | 38 | 47 | 16 | 75 | 10 | 03 | § |
| Cape May. | † | 38 | 56 | 46 | 74 | 56 | 54 | § |
| Germantown market-house. | * | 40 | 02 | 29 | | | | |
| Coast to the North of Cape-May. | ‡ | 39 | 39 | 00 | 74 | 16 | 35 | § |
| Idem. | ‡ | 39 | 52 | 40 | 74 | 12 | 15 | § |
| Idem. | ‡ | 40 | 07 | 30 | 74 | 12 | 15 | § |
| Highlands. | | | | | 74 | 07 | 24 | § |
| Town of New-Haven. | ‡ | 41 | 17 | 07 | 73 | 4 | 53 | § |
| Town of Gilford. | † | 41 | 18 | 16 | 72 | 51 | 00 | § |
| (Falcon) Fal-land-Island. | ‡ | 41 | 14 | 50 | 72 | 30 | 15 | § |
| New-London, Light-house. | ‡ | 41 | 21 | 08 | 72 | 12 | 15 | § |
| Light house, on the Easternmost point of Long-Island. | † | 41 | 04 | 30 | 71 | 53 | 39 | § |
| E. Hampton, in Long-Island. | † | 41 | 00 | 00 | 72 | 15 | 30 | § |
| Rocky Way in Idem. | † | 40 | 28 | 00 | 73 | 12 | 55 | § |
| Battery at New-York. | * | 40 | 42 | 06 | 74 | 07 | 45 | |

† Latitude observed at sea, at some distance from the parallel, and calculated from a course of 4 or 5 hours from the time of observing.

‡ Latitude observed at sea, upon which dependence may be placed, and not differing ½ of a minute from the true lat.

* Longitude determined by astronomical observations; by the emersions of the first satellite of Jupiter compared with the corresponding ones made in Europe, and by the occultation of stars by the moon's disk.

§ Longitude as referred to New-York, by a chronometer of Arnold.


COSTA DE CANTABRIA.
Punta de Arando Grande
Cala de Bueno
Sta Ysabel
Cala de Condemario
Punta de las C
Peña de las Brujas
Punta de Arando Chico
PLANO
DE PASAGES Y SU
Escala de varas Castella
100.




"Behatokia", XVIII. Halako aipuak, Fererrek San Pedron behatoki bat zeukala adierazten ote du?

lanetan… eta uko egin zion Armadan sartzeari, nahiago izan zuen *Torres Hermanos*-ekin jarraitu. Hurrengo helmuga… New York, 1799. Handik, Kuba eta Ertamerika. Ikertzeari laga gabe. Ez da harritzekoa Estatu Batuetako Filosofia Elkargoko kide izendatu izana[20]. *American Philophical Society* hau Benjamin Franklinek sortu zuen 1743an, eta esan genezake ilustrazioaren sorburua izan zela eta, hein batean, Estatu batuen independentziarena. Hamahiru Kolonien Indenpendentzia Gerrak, zeharbidez, kartzelara eraman bazuen, merezimenduzko lanek eraman zuten zuzen gertakari harekin lotura estua zuen erakundera.

Agerian geratu zen nazioarteko komunitate zientifikoak Jose Joakin Ferrerri zion begiramena Alemanian, Italian, Frantzian, Ingalaterran, Estatu Batuetan… Horrenbesteraino non beste astronomo batek, eta ez edonork, Jerome Lalandek alegia, ez duen batere dudarik egiten Ferrer dela Estatu Batuetako aipagarrizko astronomoa. Aitor du, gainera, Ferrerri esker zuzendu ahal izan zuela ilargiaren erradioaz egina zeukan neurketa.

Ez da Lalande Ferrerrek daukan posta-lagun bakarra, Delambre, Arago, Volney, Humboldt, Zach bezalakoak ere gutunketan ari zaizkio. Francisco Aragoren esku utzi baitzituen bere datuak eta memoriak, Parisko Izarbegirategiak argitara eman zituen. Laplaceko Markesak ere aipatzen du gure herritarra Newton osatu eta ikerketa ildo berriak irekitzen dituen "Zeruko Mekanika" obra garrantzizkoan.

Zientzian murgildu izanak salbatu zuen, seguruenik, bere anaiek eta bere lagunek bezala erbestera jo behar izatetik.

Antonio Alcala Galianori jarraituz jakin genezake zerbait gure astronomoaren bizimoduaz:

"Joera narrasik gabekoa izanik, eta adimena lantzea nahiago zuela atsegintasun fisikoa baino, ez zen gizon zabarra edo ganorabakoa bere legezko eta bidezko irabazietan. Horrela, ikerketetan nagitu gabe, nolabaiteko mozkina eskuratu arteko arreta eman zien bere interesei, izatez beharrizan urriak eta apalak zituen gizon batek bizi tankera ona izateko moduan, jakinaren gainean baitzen gizarte kultuan eskatzen diren erosotasunez eta jasotasunez, baita apaintasunez ere".

Munduko beharrizanak neke handirik gabe burutzeko lain zeukala, ikerketa zientifikoak argitaratzeari eman zion. Garai horretakoa du berak Habanan ikusia zuen Kometa Handia edo Napoleonen Kometari buruzko lana, 1811koa.

*San Pedro de Alcantara* ontzian heldu zen 1813an Jose Joakin Ferrer Europara, Cadizera zehazki, Veracruzetik Habanan barrena. Komandanteak, bidaiari ospetsuaren trebetasunen jakile, ontziaren agintea eman zion.

Ingalaterrara jo zuen 1815ean, *Diana* korbetan. Itsasketa honetan ezagutu zuen bere biografoa izatekoa zen Antonio Alcala Galiano gaztea, inoiz lankide izana zuen Dionisio Alcala Galiano militar eta kartografoaren semea. Tamalgarri samarra bidaia. Zenbakiz, kalkuluz eta tresnez ateratako aholkuak eman zizkion Ferrerrek kapitainari, baina honek jaramonik egin ez eta hondoratzeko arriskuan ibili.

Ingalaterran Greenwicheko Izarbegirategia bisitatu zuen, Troughtonekin lan egiteko. Handik Parisera, Luzeren Batzordekoekin batzera, Arago, Delambre, Laplace eta gainerakoekin eztabaidatzeko… Eta Frantziako Institutu Nagusiko kide izendatu behar zutelako.

Noizbait, lau Ferrertar anaietatik hiruk merkataritza proiektu batean elkartzea erabaki zuten. Juan Bautista eta Joakin Maria hartu zituen partzuer Jose Joakinek. Juan Bautista dugu ezezagunena hirurotan "Rio de la Platako apostaderoko ministro nagusia" izan zen arren, hots, eskualde hartako agintari gorena itsas kontuetan. Joakin Maria, berriz, Espainiako Ministro Kontseiluko Lehendakaria izatera helduko zen 1841ean. Senatari zela ezagutu zituen Antonio Alcala Galiano eta Vargas Ponce, eta harremanetan jarraitu zuen azken honekin Pasaia udalerri bideragarria bihurtzeko ahaleginean. Erbestera hartu behar izan zuen eta Goya margolariaren adiskide eta euskarri izan zen, baita egoitza gure portuan zeukan Asturiasko Errege Meategi Konpainiako partzuer ere. Laugarren anaia, Juan Manuel, Sombrereten zegoen (Zacatecas, Mexiko), urre meategiek sona handikoa egina zuten hirian[21].

Badirudi merkataletxearen egoitza Donostian kokatzeko asmoa izan zutela, baina hiria erre eta lurrarekin berdindu berria zuten liberatzaileek 1813an, eta Bilbo hautatu zuten. Lekutze hau ez zen oharkabean pasatu gure portualdean, eta 1818ko otsailak zortzi egun zituela, Jose Joakin Ferrer lehen botoko alkatea izan zedila erabaki eta eskatu zuen udalak batzarrean. Jose Joakinek onartu egin zuen izendapena, baina ezin izango omen zuen jarduneango alkatea izan bertaratzeko moduan izan arte. Luze gabe azaldu zen, apirilean, anaia Juan Bautista lagun. Zoritxarrez, hilabete eskas baten buruan hil zen Bilbon, anaiak eta koinata ondoan zituela[22].

20 - Antonio Alcala Galianok ohartua utzi zuen elkargo honen barruan egin zituen lanak bertako Hartu-eman Fislosofikoen VI. alean daudela argitaratuak, 1809an. Eta irakurgarri hementxe:ww.biodiversitylibrary.org/item/80827#page/222/mode/1up (pg 158).

21 - Berari zor diogu Donibanen horrenbesteko gurtza duen Santa Faustina.

22 - Juan Bautistak hartu zuen ondoren ohorezko kargu hau. Eta hurrena Juan Manuelek. Jaioterriari halako aitormena eta laguntza eman baitzioten, Pasaiak lau anaiok ondratzea erabaki zuen 1819an, erretratu bana eginez. Lan honek suposatzen zuen diru kopurua bildu bitartean, lau figurak goratuko zituen idazki batzuk eginaraztea erabaki zen, udalak zituen bi egoitzetan ikusgarri paratzeko. Alabaina, 1820an Joakin Mariaren aurkako paskinak azaldu ziren herrian: politiko liberal nabarmena zen orduko.

Berrogeita hamabost urteko zela, proiektuz betea eraman zuen heriotzak. Hain zuzen, Euskal Herriko itsasertzaren geografia zeukan orduan esku arteko lana, gero San Fernandoko Izarbegirategian gordea. Antonio Alcala Galianok aipatu biografiarako erantsi zuen xeheki deskribatutako autopsian esan genezake islatu zela Jose Joakin Ferrerren arretasun zientifikoa.

Urradura handi bat haren galera adiskide eta laguntzaileen bihotzean. Joakin Maria anaiarengana egin zuten haietako askok. Pasaia ere atsekabetu zuen halako herritarraren heriotzak. Astronomoak bere jaioterrian lurpera zezatela utzi baitzuen agindua, hilobien berrantolaketa bat eragin zuen Donibaneko parrokian, leku egin ahal izateko merezia zeukan panteoia eraikitzearren, Jose Joakin Ferrerren oroitza betikotzearren laneko tresnak apaingarri: astrolabioa, teleskopioa, lurraren globoa, ipar-orratza…[23].

Gure astronomoaren oroitzak bizirik iraun zuen Pasaian, baita haren anaiena ere, neurri batez. Horrela, 1858an, lerro hauek josteko erabili dugun biografia eskaini zion anaiak udalari argitara zezan, eta hala berean jakinarazi zion astronomoaren erretratua Madrilgo Itsas Museoan eskegi zutela. Udalak eskertu egin zuen detailea, aitortuz ohore handia zela astronomoaren gorpuak bere sorterrian atseden hartzea.

Bestetik, 1963ko abuztuaren hogeian astronomoa jaio zeneko berrehungarren urtemuga zela eta “Unidad” egunkarian agertutako artikulu batek kezka edo asmoa ekarri zuen udalera ospakizunen bat antolatzeko, baina ezin izan dugu jakin gauzatu zen edo ez.

Begiraldi biografiko hau bukatzeko, eta lan honi ere buru emateko, Ferrertarrrak Filipinekin lotzen dituen bitxikeria bat. Astronomoaren ilobetako bat, Joakin Maria anaiaren alaba, Flora Ferrer Alvarez, 1862an Filipinetako Gobernadorea izango zen Jose Nikolas Frantzisko Pablo Emery Ibarrola Ney Gonzalezekin ezkondu zen. Ferrertarrek ere lagundu egiten digute konpainien garaiko konplexutasuna ulertzen, Caracaskoarekin hasi eta Filipinetakoarekin amaituz.

23 - Joakin Mariaren heriotzaren ondoren kapera bat eraiki zen San Pedroko elizaren mugante. Hilerrira aldatu zen kaia eta errepidea bertaraino luzatzearekin.

## 2. Lafayette: bi munduetako heroia.

Nola esnatu ote zen, zer gorputzaldiz, zer bihotzoldarrez, kontinente baten liberatzera ontziratu aitzin? Zer espero ote zuen partidako portuan? Izan ote zuen astirik mendi, bokale, dorre, ontziolak begiz hartzeko? Mira egin ote zuen herriko kale bakarraz, beste bisitari batzuek moriskoa zela esango zuten hartaz? Begiratu ote zien etxeetako armarriei? Edo atzeman ote zuen, bera bezain bestelakoa zela hemen noblezia? Ezin jakin, egia esan, horrelako pentsamenduak ibili ote zituen buruan Lafayette ezizenez mundu sona hartuko zuen Gilbert de Motier-ek, 1777ko apirilaren 26 hartan.

Lafayettek artoski antolatu zuen bidaia. Ongi ezagutzen zuen laguntzera zihoan kausa, eta txangoa egin zuen Londresera, laster etsaigoan edukiko zituen haiei pultsua hartzeko, irri gaiztoa egiten zuela noski bere kolkorako. Zeuzkan asmoak hedatuak baitziren zenbait belarritara, ontzia hartu zuen Frantzia utziz base bat muntatzeko Pasaian. Ontzia zenbait boluntariorekin fusilez betea utzi eta Bordelera itzuli zen. Handik Marseillera jo zuen. Atzera egin zuen Atlantiko aldera postako mutil gisa mozorroturik. Lohitzunen larri ibili zen eta azkenik lortu zuen Pasaiatik abiatzea zain zeuzkanekin *La Victoire* ontzian. Amerikako Indenpendentziaren Gerran (1775-1783) "bi mundutako heroia" izendatua izateko.

Hemeretzi urte baino ez. Amarruz eta zuhurtziaz heldu da Pasaiara Lafayette, bigarrenez, 1777ko apirilaren 26an, Ameriketara ontziratzeko. Jo du Atlantikoaren beste bazterra. Harrituak utzi dituzte amerikarrak gazte europar honek gerrarako dauzkan dohainek. Miresgarria zaie. Su zelaian irabazitako ospeari gaitasun politikoa erantsita, sortzear diren Estatu Batuen heroia bihurtuko da Lafayette, eta haien enbaxadore Frantzian. Bi munduetako heroiak, ordea, ideia politiko berriak barneratu eta kontinente zaharrera ekarri zituen.

Hautatua zuen bideari lotu zen Frantzian: iraultzan murgildu zen, eta progresoaren ideia landu zuen nobleziakoa izanagatik. Iraultza, kontrairaultza, Napoleon, errestaurazioa, gerrak, intrigak… Lafayettek ez zuen meritu makala izan bizirik ateratzea hainbat gatazkatan. Baztertua egonik ere, ekintzaile politikoa izaten segitu zuen luzaroan.

Frantziak itota, Amerikara jauzi berriro, eta berriro esker onez hartua izateko. Bolibarrekin harremanetan jarri zen, bi Ameriken arteko zubi eginez.

Amerikara egin zituen hiru bidaietako lehena, Pasaiatik abiatu zenekoa, ez zen izan aberaskume baten kapritxoa, umotzen ari zen giro ideologiko zehatz batek eragina baizik: esklabotzaren aurkako jarrera, gizakiaren eskubideak…

Pasaiako portua aukeratzeak ere badu bere zergatia. Badia basatza bihurtzen zen arren itsabeheran, 1777erako aski ezagunak ziren gure portuak Europa Atlantikoarekin eta Amerikarekin zeuzkan harremanak. Horiei zor die Pasaiak badiaren inguruko ondasun historikoaren puska bat. Bestalde, Ferroletik Cherbourgerainoko porturik seguruena zen, eta geldialdi eta geltokia kontinente batetik besterainoko itsasketa egiteko Caracasko Errege Konpainia Gipuzkoarrak emana zion estatusarekin. Konpainiak, hain zuzen, bazeukan beste negozio bat kakaoarenaz gain, Soraluzeko Errege Arma Fabrikaren ekoizpena kudeatzen baitzuen. Bistan da, han egindako armak ontziratu ahal izan zituen Lafayettek lasai gure portuan.

Hartuko zion tankera Amerikak emandako aberastasuna jauregitan (gaur udaletxea den Arizabalo, Martiarena-Barranco…) eta eraikin zibil eta Elizarenetan gauzatzen zela (San Pedroko eliza berria, Donibaneko aldareen urreztatua…). Uste izatekoa da ez zuela jakin Villaviciosatarren jauregiaren ondoan ontziratzen zela, bere oroigarria ezarria dagoen horretan. Ezta zazpi urte lehenago pasaitarrak ere beren mentura berezian ontziratuak zirela, inguruko hirietatik libro eta bitartekaririk gabe administratu ahal izateko portu eder hura.

Horrela, bitxia da zinez, Pasaiako herriak eta bi mundutako heroia izango zen markesak antzeko partidak egin zituzten. Horrez gainera, Lafayettek bidea urratu zuen kezka sozial eta politikoak zekartzan beste frantses ospetsu batek, Victor Hugok, bisita egin ziezagun eta horren gauza ederrak idatzi zitzan gutaz (museo bat daukagu honen omenez).

Oroz gain, ordea, ideien etengabeko debatea, jarreren talka, teoria eta praktika, debate eta praxi politikoa, kontraesanak, borroka sutsuak (odoltsuak ere bai)… Lafayettek gure munduaren sortzaileetariko bat izan zen. Horregatik ikusten dugu sinbolo bat harengan, Pasaia berri bat irudikatzen eta munduan kokatzen lagun dugun sinboloa.

Pasaia Lafayetteren gisako aitzindari baten ibilian eskala garrantzitsua izana, harrotzeko moduko ohorea da pasaitarrontzat. Gizartea hobera aldatzeko ideietan txertatzen gaitu. Historia handian, nolabait. Ez ote du merezi leku bat gure memorian?



## 3. Montevideorat joaleak

*piarres Topet Etxahun, 1853*

Bi bertseten ontzeko denbora dut hartzen
Uskal Herri guzian nahiz kanta ditzen:
Montevideorat dira anitz abiatzen
bere kartiel ona beitie kitatzen
eta gaiztoagoan fortuna txerkatzen.

Hau da uskaldunaren sistima tristia
urrunean beitie bere sinestia
ustez aisago egin han aberastia
deus ez dien lekuan zer aperentzia
hori da arrantzura larrerat joatia.

Sujet faltsu eli bat jiten zitze hanti
nahiz jende erostez zerbait irabazi
gero haiek laudatzen herria azkarki
nahiz ahal bezainbat eraman hementi
bere fortunak behar hek egin sinpleki.

Aita eta amer deitze haurrak galerazten
hasten zaitzen puntuan zerbaiten egiten
ustez fortunen txerka dutie igorten
beren etxen beharrak baiteitze emaiten:
haurren gaizki ezartez berak gaizki jarten.

Aitama onak dira ezarten nigarrez
haurrak aboro ikus ez ditzen beldurrez
trete hek hitz emaiten kontu hartzera hez
lehen ez zeizkitzenak salarazi urrez
salerazitzen deitze orduan gezurrez.

Haur gaixo hurak dira itsasoan sartzen
bere galerazleak gidatako hartzen
Montevideora ordun gero hek kitatzen
orduan hasten dira bihotz min egiten
zeren bere aitamak kitatu zutien:

Gure aita eztia zure haurregati
odola isurtera zunikina utzi
guk dugun estatea ontsa bazeneki
fin gaizto egiteko bazunuke aski
gu traditu gutien traidore hek gati.

Gure ama trendea guk utzia etxen
gure abiatzean bihotz mina egiten
egun gure plaineak bazuntu entzuten
nola zure utzia dugun deitoratzen
nahiago guntukezu ikusi ehorzten.

Ezin bizi girade jarririk esklabo
etxen guntialarik guk beharrak oro
anaiak girade ezarri soldado
arreben estatea aldiz tristeago
haren aipatzea zait haien partez laido.

## 4: Portuaren erabilerako araudia, Donostian emana 1751eko urriaren 21ean.

Donostiako Hiriaren bando eta probidentziak, ontziek eta San Pedroko auzotarrek bete beharrekoak portua zaindu eta garbi edukitzeko. Donibaneko errejidorearen aurkatasunarekin, ekarriko lituzketen galerak direla kausa.

1. Zeren aurretiazko kuidado eta ardura gabe ez bailiteke erraz ezagutu eta jakin, dela gauez dela egunez arau hau hautsita, nork botatzen dituen puskantzak eta lohikeriak itsasora eta itsasertzetara, agintzen dugu eta manatzen, Pasaiako bazter bietako etxe, leku edo lur jabeek, arauok argitara eman eta sei hilabeteko epean, beren ondasunen aurrean dauden parajeak aitzurka ditzatela oinbeteko sakonean eta bi deztatuko luzean pareta tinkotik bokaleraino, eta aurkitzen dituzten harri, legar, teilapuska, adreilu eta bestelako hondakinak Alkate Errejidoreak aginduko duen hartara ditzatela eraman. Eta errudunei lau dukaten zigorra ezarriko die Alkate Errejidoreak, bokale hartako obretan erabiltzekoak.

2. Zeren arrunt estuak eta meharrak baitira nasak, eta zabor eta errauts hondakinak non utzi ez dagoela bokalera lerratzen baitira beti portu hura hondatzeko arriskuan, agintzen dugu eta manatzen, ez dadila inor ere lanean ari bokalearen ondoko aroztegietan.

3. Zeren, ikusi denez, lekua estua eta meharra izanik, bokalera lerratuko balira bankua osatuko luketen hondakinak non metatu ez baitaukate dorre eta gotorleku haren inguruan lanean ari diren krikalari, zurgin eta gardaintzaileek, agintzen dugu eta manatzen, gertatuko liratekeen kalte larriak eragoztearren, ez dadila inor paraje haietan lan horietan ari, ezta egur zerratzen ere.

4. Agintzen dugu eta manatzen, ez dezala inongo arotzek ez beste inork, sutegirako behar duela edo bestelako aitzakian, lokatzarik atera edo lurrik mugitu portuaren bokale osoan, alde batetik Dorreatzeko bihurgunea eta gotorlekua bitartean; eta bestetik San Juan Bautista parrokia bitartean, bokalea hobetzeko hamar dukateko zigorpean.

5. Zeren Pasaiako bazter bietan baitaude nasak lardastuak eta hondoratzeko arriskuan, eta hala berean bokaleko harri batzuk lokatuak eta atereak, agintzen dugu eta manatzen, sakabanatutako guztia bildu eta porrokatutako guztia konpon dezatela jabeek Alkate Errejidoreak oniritzia emateko gisan, gaztigatuz edo jakinaraziz arauok argitara eman eta urtebeteko epean egiten ez badute galdu egingo dutela orain daukaten jabetzaren eskubidea, leku horiek denak Hiri honek utziak baitira usufruktuan edo etekinerako hartu dituztenek ondo zainduak edukitzekotan, bokalearen kalteko gabe.

6. Zeren hartarako eskubiderik ez zeukatela eta ondorio txarrak ekarriz eraikitzen saiatu ziren dorrerako baliatutakoak baitira, agintzen dugu eta manatzen, Hondarribia aldeko Pasaiako kargudunek jaso ditzatela bokalean sakabanatuak geratutako harri solteak eta halaber delako dorrearen oinarrian daudenak, zama handiko ontziek aingura bota lezaketen leku eroso bakarra delako eta gorabehera edo erresaka den aldietan hantxe uzten duelako itsasoak banku egiten duen hondarra, eta hori dena buka dezatela arauok argitara eman eta urtebeteko epean, bokalea garbitzeko ehun dukaten zigorpean eta lege zorrotzenen auzipean.

7. Zeren Donostiako hiriaren mugabarruan baitago Hondarribia aldeko Pasaiako plaza, eta ertzeetan zurrun, karkaba edo etxarte bana daukanez haietara botatzen baitituzte auzoek hondakinak eta bestelako lohikeriak gero ontzietan itsaso zabalera ateratzeko aitzakian, eta ikusiak irakatsi baitigunez euri urek eta itsasoaren goraldiek bokalerantz eramaten dituztela, agintzen dugu eta manatzen, hemendik aurrera horrelako kalterik egin ez dadin eta arauok argitara eman eta hiru hilabeteko epean nasak eraiki ditzatela plaza haren lerroan eta ondoan leku haien jabeek, oinarriak zulatzerako jakinean daukatela Alkate Errejidorea, berak aukeratutako perituarekin egon dadin bertan kordela luzatzean, eta aipatu den Justizia Errejimentuak salgarri jarriko ditu epe horretan bukatzen ez dituztenen eremuak, eroslearen gain utziz adierazitako nasak jasotzea.

8. Zeren leku biotako nasa asko batu gabe baitaude pasabide eginez goraldietan itsasoa etxeetako komunetara iritsi dadin, eta aitzakia horretan bertakoek mota guztietako zakarrak eta puskailak botatzen baitituzte, agintzen dugu eta manatzen, leku edo eremu huts hauekin muga egiten duten etxeen jabeek itxi ditzatela beren gain zurrun edo etxarte horiek arauok argitara eman eta urtebeteko epean, jakinaren gainean jartzen ditugula adierazitako epean egiten ez badute legez behartuko ditugula eta bosna dukat kenduko zaiela interesatuei, azaldua dagoen eran erabiltzekoak.

9. Agintzen dugu eta manatzen, bokale hura bi bazterretatik babesten eta gotortzen duten muino eta mendietako auzo, biztanle edo herritarrik ez dadila ibili harri ateratzen, ezta beste inongo inor ere, bokalearen muturretik hasi eta Salinas deritzan etxerainokoan bazter batean, eta Bordalaborda deritzan lekurainokoan beste bazterrean, berrogeita hamar dukaten zigorpean. Igual bereko zigorpean agintzen dugu eta manatzen, mugabarruko jabedunek ez dezatela harrobirik urra bokalea eta portua inguratzen dituzten mendietan, Hiri honek horretarako lizentzia edo baimena eman eta bere perituek aztertu izan gabe, galduan atera edo ez.

10. Agintzen dugu eta manatzen, bokalearen muturretik hasi eta honako bazterrean Dorrea eta gotorlekurainokoan eta hango bazterrean San Juan Bautista parrokiarainokoan, lurra harresiz eutsia daukaten parajeetan izan ezik inork ez dezala lurra landu ezta ongarritu ere bokalearekin muga egiten duten beste mendien magaletan hamalau deztatuko aldean, bokalera lerra ez dadin.

11. Agintzen dugu eta manatzen, ainguralekua bitarteko parajean inork ez dezala egurra bokalearen ertzean eduki, erresakak bokalean barrena eraman dezakeenez eta egurra dakarten ontziak honda litzakeen zedena sortzen ahal duenez.

12. Zeren bazter bietako txalupamaisuek harriak eraman ohi baitituzte atoaiarako eta arrantzarako, agintzen dugu eta manatzen, portura itzulitakoan nasa gainean utz ditzatela eta ez uretan edo kostapean, lau dukaten zigorpean araua betetzen ez duten bakoitzeko.

13. Agintzen dugu eta manatzen, ohi den bezala Hiriaren lizentzia edo baimena hartutako kapitainek eta ontzimaisuek ontziak haizeberritu nahi dituztenean, Alkate Errejidoreari eman diezaiotela parte hondarrezko lasta baldin badute, zaintzaile bat jar dezan halako ontzimaisu eta kapitainen gain, deskargan hondarrik batere eror ez dadin uretara, eta gero, arautu dugun moduan bokalera itzul ez dadin, puntetatik aurrera eramanda itsaso zabaleko iparekialdean bota dadila, eta agindutakoa hausten duten bakoitzeko hogei dukateko zigorra ezarriko die kapitain eta ontzimaisuei Alkate Errejidoreak, lege zorrotzenen auzipean jarriz.

14. Agintzen dugu eta manatzen, Alkate Errejidorearen lizentziaz eta baimenaz eta hark izendatutako pertsonaren aurrean deskargatu behar dela lasta saskitan edo otarretan, eskuz esku pasatuz lasta uzten duen ontzitik hartzen duenera, zer gerta ere ontzien artean ipini izan diren haize-oihalen inolako babesik gabe. Eta lasta harri bakarrekoa baldin bada, eraman dadila Molinao deritzan parajera, handik beste ontziren batek hartu ahal izan dezan behar izan ezkero, Alkate Errejidorearen lizentzia eta baimenarekin.

15. Agintzen dugu eta manatzen, leku biotan itsasbazterrean dauden etxeetako auzotarrek edo biztanleek ez dezatela atera gorotzik, zakarrik, lurrik edo gisa honetako beste ezer inolako ontzitara, eta ez dezatela ontzietatik jaso teilarik, adreilurik, karerik edo harririk Alkate Errejidorearen jakinean ez bada, zamaketa eta deskarga zainduz bokaleari kalterik ekarri gabe, hamar dukaten zigorpean.

16. Agintzen dugu eta manatzen, jabea Hiri honen mugabarruko auzo edo biztanlea izan edo Erresuma honetakoa izan edo kanpokoa eta atzerrikoa, ez dadila karenan ipini ontzirik edo txaluparik ez bada Alkate Errejidorearen hartarako lizentziarekin, eta kapitainaren edo jabearen gain izendatuko duen pertsonak zainduko du ez dadin

suterik sortu eta ez dadin ota-bikerik, zakarrik eta bestelako hondakinik erori uretara, eta bai Alkate Errejidoreak esandako lekura eraman.

17. Agintzen dugu eta manatzen Alkate Errejidoreak, bere ministroen bitartez, har dezala kontu ilunduz geroztik eta argitu arterainokoan ez dadin kandelarik piztu ontzietan eta txalupetan, eta barruan inork ez dezan bikea berotu, eta behar izatekotan galdarak eraman ditzaten ontzietatik eta etxeetatik aski urrun suterik sortzeko arriskurik gabe, hamar dukateko zigorpean araua hautsi bakoitzeko.

18. Agintzen dugu eta manatzen, Alkate Errejidoreak kontu eta arreta har dezala gauez eta egunez guardia egon dadin bokale hartan ainguratutako ontzi bakoitzean, eta haietakoren batean ez balego jar dezala guarda jabeen edo interesatuen gain, eta axola gutxiko edo alde egina den kasuetan hamar dukateko zigorra ezar diezaiela, kanaleko obretan erabiltzekoak.

19. Agintzen dugu eta manatzen, Alkate Errejidoreak kontu eta arreta har dezala bokalean ez dezaten negu egin hondatutako edo itsasketan ezindutako ontziek, eta halakorik ikusi ezkero, Sableo deritzan parajera eramanda desegin edo erre dezala, halako eran eta tankeran non etxeek eta portuak berak ez dezaten kalterik izan. Eta aspaldi karenatu gabeko ontziak ikusten baditu, mana dezala Hiri honen Kontsulatuko Tailerrek aztertzea, eta itsasketarako gauza ez direla erabaki ezkero, mana dezala gorago adierazi dena.

20. Agintzen dugu eta manatzen, portu eta bokale hartan ontziren bat hondoratuko balitz ezusteko istripuz, Alkate Errejidoreak behar dezala kapitaina edo ontzimaisua ardura dadin, galdutzat eman gabe, osorik edo puskatan ateratzera, bokalearen kalteko izan baino lehen gainerako ontzien eta merkataritzaren galeran.

21. Zeren noiz edo noiz ikusi izan baita galernak behartutako ontziak eta txalupak sartzen direnean aurretiaz atrakatuak daudenen guardek muzin egiten diotela estatxak korritu eta luzatzeari, agintzen dugu eta manatzen, Alkate Errejidoreak mana dezala, aspaldi arautua eta ohiturakoa den bezala, aurretiaz lotuak dauden ontzietako guardek, diru eta kartzela zigorpean, itsasotik datozen ontziei estatxak luzatu eta esteka ditzatela, eta behar adinako jenderik ez balute faena horretarako, Alkate Errejidoreak berak ekar dezala porturatzen denaren kapitain edo ontzimaisuaren gain.

22. Agintzen dugu eta manatzen, Alkate Errejidoreak ikuska ditzala lotuak dauden ontzien estatxak aldian behin, eta janak edo sendotasuna galduak ikusiko balitu, estatxa berriekin estekatzera behar ditzala, hamar dukaten zigorpean berehala ez egitera.

23. Zeren ikusi izan baita jendea eramaten eta Pasaiako bazter batetik bestera igarotzen ibiltzen diren batelariek, batela segurtatzeko, harria bilatzen dutela eta gero bazterrean uzten dutela igaroaldi bakoitzean eta erresakak bokalera daramala, horrelakorik gerta ez dadin agintzen dugu eta manatzen, batel guztiek eduki beharko dutela txinget lana egingo duen kako bat lehorrera tinkatzeko.

24. Agintzen dugu eta manatzen, Alkate Errejidoreak eta lanbide honetan ordezkatuko dutenek, bakoitzak bere aldian, zuhurki, zehazki eta hutsik egin gabe betearaz dezatela hogeita hiru arauotan esana Pasaiako bazter bietan oihuka eta atabal joka zabaldu eta kargudunei paper kopia bana eman ondoren, beren erruz edo ezjakinez bokaleak inolako kalterik izan ez dezan, eta halakorik gertatuko balitz kendu egingo da lanbidetik eta legez dagokion eran joko zaio auzi.

I Linebaugh; Rediker: *La hidra de la revolución: marineros, esclavos y campesinos en la historia oculta del Atlántico*. Barcelona, Crítica, 2005.

II Zavala Etxeko artxiboa. Olaso. Velez de Ulibarri. Ondarearen administrazioa- 265-5.

III Jatorrizkoa gazteleraz.

IV Amerika Hispanikoarekiko ingeles merkataritza honen balioa zehatz emana dauka Gonzalo Pontonek. Bestalde, bere obra ezinbestekoa da garai hartan ez ezik gure egunotan dituen oinarri ekonomiko eta ideologikoak ulertzeko. Pontón, Gonzalo: *La lucha por la desigualdad*. Barcelona: Pasado & Presente, 2016.

V Astigarraga, Jesus: "Sociedades económicas y comercio privilegiado. La Sociedad Bascongada, la Compañía de Caracas y la vertiente marítima de la ilustración vasca". *Itsas memoria*, 6 (2009). 669-688.

VI Kakaogintzan ziharduten etxaldeak, 558 ziren 1745ean, 5.132.921 zuhaitzekin.

VII Langue, F: "Orígenes y desarrollo de una élite regional. Aristocracia y cacao en la provincia de Caracas, siglos XVI-XVIII". *Nuevo Mundo Mundos Nuevos*. http://nuevomundo.revues.org/769 (2005ean saretua, 2017ko apirilaren 3an kontsultatua).

VIII Lege-hausteen eta zigorren inguruko eztabaiden nolakoetarako Gipuzkoan: Zapirain Karrika, David: *Mikeleteak eta bidelapurrak: gizarte kontrolaren aldaketak Gipuzkoa tradizionalean*, 1688-1808. Deustuko Unibertsitatea, 2007.

IX Artxibo Historiko Nazionala (Espainia) (AHN): Suprimidos, Causas civiles y criminales, 6145-6; Expedientes de gobierno y oficio, 49990.
Azkoitiko Udal Artxiboa (AzUA): Azpifunts historikoa – Zavala. Papeles tocantes a la villa. Papeles de la provincia. 30 leg. 41 zenb.

X Migel Larrazabalen epaiketa izan zen 1732ko eskaeraren sorburua. Hala ere Larrazabalek lau urte eman behar izan zituen morroilope bestelako etorkizunik gabe. Azkenik, 1737an, onartu egin zuten zigorra betetzeko behar zituen urteak Konpainiaren ontzietako batean eman zitzan.

XI Gipuzkoako Artxibategia Orokorra (GAO): JD IM 2 21 49.

XII Espainiako Liburutegi Nazionala: VE/1617712.

XIII Gipuzkoako Protokolo Historikoen Artxibategia (GPHA): AU18/20.

XIV Pasaiako Udal Artxiboa (PUA): 1629, 1.

XV Larramendi, Manuel: "Real Compañía de Caracas". *Euskal-Erria*. http://meta.gipuzkoakultura.net/handle/10690/73435 (2017ko apirilaren 7an kontsultatua).

XVI Sancho el Sabio Fundazioa. Marqués de la Alamedaren Artxiboa: Urbina. C.54 - N. 27: D. 19, leg. 01363; D.9, leg. 01353.

XVII Gai honi buruzko gogoeta orokorraren zati batzuetan, Gerardo Vivas Pinedaren zenbait maisulan hartu ditugu abiapuntu, bereziki *La aventura naval de la Compañía Guipuzcoana de Caracas*. Caracas: Fundación Polar, 1998.

XVIII "Reglas que se discurren favorables...". GAO-AGG: JD IM 2 22 72.

XIX Ikus, adibidez:
Ramon Aizpurua: *Curazao y la Costa de Caracas. Introducción al estudio del contrabando en la Provincia de Venezuela en tiempos de la Compañía Guipuzcoana, 1730-1780*. Caracas: Academia Nacional de la Historia, 1993.
–-- "El corso de la Compañía Guipuzcoana: los casos de la lancha San Fernando y de la balandra Nuestra Señora de Aránzazu". *Itsas Memoria*, 5 (2006). 379-392.

XX Ramon Aizpurua: *Los viajeros vascos a la Venezuela colonial: algunos comentarios. 50 aniversario*. Centro Vasco de Caracas, datarik gabekoa, 44-49.

XXI Aipatutako La aventura naval de la Compañía Guipuzcoana de Caracas horretan, bi adibide dakartza. Bata 1763koa, *San Judas Tadeo* fragatan hamahiru polizoi atzeman zituztenean, bestea 1766koa, *San Ignacio* ontziko kapitainak A Coruñan, eta arrantzako txalupetan, lauhogei polizoi lehorreratu zituela jakin zenekoa.

XXII Vicente Amezaga y Aresti: Vicente Antonio de Icuza..., 10 orr., kopurua emanez Joseph Townsend aipatzen duela: *A journey through Spain in the year 1786 and 1787*, 401-405 orr. Townsendek 2.500 marinelen kopurua dakar, eta, hala berean, Jose de Campomanesenetik hartu dela dio: *Educación Popular*... Edizio desberdinaten miaka saiatu garen arren, ez dugu horrelako daturik aurkitu ahal izan.

XXIII Konpainiak berak, enpresaren ekina antolatzeko kalkuluak egiten dituelarik zenbateraino zamatzen ahal diren Venezuelarako ontziak, 250 gizonen eskifaia ematen du ontziko. "Reglas que se discurren favorables...". GAO-AGG: JD IM 2 22 72.

XXIV Besteak beste, Pasaiako Udalarentzat *Ereiten*-ek osaturiko Gipuzkoako artxiboen datu-aurkibide biltegi bat erabili dugu informazio bide, agirietan emandako argitasunak ekartzearren. Honetaz gain:
- Archivo General de la Nación, Caracas. Colección Colonia: Sección Compañía Guipuzcoana; Sección Intendencia del Ejército y Real Hacienda; Sección Diversos.
- Archivo del Registro Principal, Caracas: Colección Civiles; Colección Judiciales.
- Los censos en la Iglesia colonial Venezolana, Recopilación de Ermila Troconis de Veracoechea, Gladis Veracoechea y Euclides Fuguett. Caracas, 1982.
Horietara jo dugu signatura zehatzik ageri ez direnetan.

XXV Archivo de la Real Chancilleria de Valladolid (ARChV:) Pleitos. Civiles. Escribanía Quevedo. Fenecidos. C 2366/3. L 517.

XXVI GAO-AGG: CO MCI 3276.

XXVII Mora Afán, Juan Carlos: La familia Arizabalo: tiempos de cambio en Pasaia. Pasaia: Udala, 2008. Abadtarrak bezala, Pasaiako beste familia batzuk ere ikertzeko daude.

XXVIII Hondarribiko Udal Artxiboa (HUA): E 7 II 38-12.

XXIX GAO-AGG: CO MCI 3862.

XXX ARChV: Pleitos. Civiles. Escribanía Zarandona y Wals. Olvidados. C 2760/6. L 1042.

XXXI HUA: E 7 III 14 1.

XXXII Gaztelaniaz jatorrian

XXXIII GAO-AGG: JD IM 1 7 82.

XXXIV Kontrabandoaren gaia bere sakonean aztertzeko ezinbestekoak dira Alberto Angulo irakaslearen lanak, besteak beste: «El sistema aduanero y el contrabando en el País Vasco: entre la negociación y el conflicto (siglos XVI-XVIII)», *Notitia Vasconiae 2, (2003), 97-129; Las puertas de la vida y la muerte: la administración aduanera en las Provincias Vascas* (1690-1780). EHU, 1995.

XXXV ARChV: Pleitos. Civiles. Escribanía Zarandona y Wals. Olvidados. C 2984/4. L 1114.

XXXVI GAO-AGG: CO UCI 1631.
AHN: Agrupación de Fondos Consejos Suprimidos. Consejo de Hacienda. Escribanías. Escribanía de Abuin. Leg. 34258. Exp. 8.

XXXVII APHG-GPHA: 3-3465 (1799); 67, 73.

XXXVIII Bistan da auzietan ageri diren gatazkak ez zirela negozio apalen eta familiaren ingurukoen berezitasuna bakarrik, maila handiko merkataritzan zihardutenen artean ere gertatu ohi baitziren. Merkataritza horren norainokoaren eredu izan liteke Diego Gertan merkatariak 1776an jo zuen auzia *San Miguel* y *Santiag*o ontziko ofizialeen aurka, Cadizeko *Cosme Pierini y Compañía* etxeari 37.000 errealetan taxututako ekaiak entregatu ez izateagatik. ARChV: Pleitos. Civiles. Escribanía Zarandona y Wals. Fenecidos. C 3219/4. L 686.

XXXIX GAO-AGG: JD IM 2 13 34, 42, 48, 52, 66, 85, 92, 93.

XL GAO-AGG: JD IM 2 12 114.

XLI GAO-AGG: JD IM 2 13 66. Hala berean eskatzen dio Probintziari ultimatum bat ezarri dezala, eta zigor ditzala azaltzen ez direnak.

XLII Gaztelaniaz

XLIII Errenteriako Udal Artxiboa (EUA): E 6 1 2.

XLIV HUA: C 5 I 25 3.

XLV GAO-AGG: JD IM 2 8 31. Ikus: Zapirain Karrika, David: *200 años de unidad.* Pasaiako Udala, 2005.

XLVI PUA: 1684-2.

XLVII GAO-AGG: JD IM 2 13 54.

XLVIII GPHA-APHG: 3/3461, 93; H346, 86v.

XLIX GPHA-APHG: 3/0686, 46-52. 1738.

L Biziki interesgarria da Esteban Cabarrusi buruz Pontonek egiten duen irakurketa arestian aipatutako lanean.

LI Biografia izan litekeenari gehien hurreratzen zaiona, Antonio Alcala Galiano politiko liberal, diplomatiko eta idazleak 1858an idatzi zuen opuskulua da, eta huraxe erabili dugu geure azalpideetan. Alcala Galianok bat egin zuen politikan eta adiskidantzan astronomoaren anaia zen Joakin Maria Ferrerrekin, eta Jose Joakinekin berarekin ere izan zuen traturik, ikusiko dugun bezala.
Familiaren datu biografiko gehiago: Iranzo Comas, Álvaro de: *Joaquín María de Ferrer y Cafranga: un liberal vasco en la España del siglo XIX.* Madrid: Sílex, 2015.

LII GAO-AGG: JD IM 2 11 96.

# Bibliografia


- Aizpurua, José María. *Relaciones de trabajo en la sociedad colonial venezolana*. Caracas: Centro Nacional de Historia, 2009.

- Aizpurua, Ramón: "Movimiento contra la Guipuzcoana". *Diccionario de Historia de Venezuela*. Caracas: Fundación Polar, 1988.
  ----: "El siglo XVIII en la Venezuela colonial: la sociedad colonial y su crisis."
  ----: Curazao y la costa de Caracas. Introducción al estudio del contrabando de la Provincia de Venezuela en tiempos de la Compañía Guipuzcoana 1730-1780. Caracas: Academia Nacional de la Historia, 1993.
  ----: "El comercio curazoñelo – holandés, 1700 – 1756". Anuario de estudios bolivarianos, 11 (2004). 11-88.
  ----: "El corso de la Compañía Guipuzcoana: los casos de la lancha San Fernando y de la balandra Nuestra Señora de Aranzazu". *Itsas Memoria*, 5 (2006). 379-392.
  ----: "La Conspiración por dentro: un análisis de las declaraciones de la Conspiración de La Guaira de 1797", en Gual y España. *La independencia frustrada*. Fundación Polar, 2007, pp. 213-344.
  ----: "Esclavos, cacao y contrabando: la hacienda de la Obra Pía de Chuao". *Sociedades diversas, sociedades en cambio: América Latina en Perspectiva histórica. Ponencias presentadas al XII Encuentro-debate América Latina ayer y hoy (Barcelona, 2009)*. Barcelona: Universitat de Barcelona, Sección Departamental Historia de América y África, 2011. 123-142.
  ----: "Los viajeros vascos a la Venezuela colonial: algunos comentarios", en 50 aniversario. Centro Vasco de Caracas, sin fecha, pp. 44-49.

- Alcalá Galiano, Antonio: *Biografía del astrónomo español don José Joaquín de Ferrer y Cafranga*. Madrid: Imprenta de J. Martín Alegría, 1858.

- Amezaga Aristi, Vicente: *Hombres de la Compañía de Caracas*. Bilbao: La Gran Enciclopedia Vasca, 1979.
  ----: *Vicente Antonio de Icuza*. Ediciones del Cuatricentenario de Caracas, 1966.

- Amezaga Iribarren, Arantzazu: "La Real Compañía Guipuzcoana de Caracas. Crónica sentimental con una visión historiográfica. Los años aúricos y las rebeliones (1728-1751). *Boletín Sancho el Sabio*, 23 (2005). 167-208.

- Arraiz Lucca, Rafael: "La Compañía Guipuzcoana". *Venezuela: 1728-1830*. Guipuzcoana e Independencia. *Breve historia política*. Caracas: Alfa, 2011.

- Arrue, Antonio: "San Sebastián y la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas". *Idatziak eta Hitzaldiak. Escritos y Conferencias*, Antonio Zabala (ed.). Bilbo: Euskaltzaindia, 2008. Jatorrizkoa: *Curso breve sobre la vida y milagros de una ciudad*. Donostia: [s.l.], 1965.

- Astigarraga, Jesús: "Sociedades económicas y comercio privilegiado. La Sociedad Bascongada, la Compañía de Caracas y la vertiente marítima de la ilustración vasca". *Itsas memoria, 6* (2009). 669-688.

- Basterra, Ramón. *Los navíos de la ilustración: una empresa del siglo XVIII, Real Compañía Guipuzcoana de Caracas y su influencia en los destinos de América*. Madrid: Ministerio de Relaciones Exteriores, 1987.

- Blanco Mozo, Juan Luis: *Orígenes y desarrollo de la Ilustración vasca en Madrid (1713-1793). De la Congregación de San Ignacio a la Sociedad Bascongada de los Amigos del País"*. Madrid: RSBAP, 2011.

- Borja, Marciano R. de: *Basques in the Philippines*. Reno: University of Nevada Press, 2005.

- Cardozo, Alejandro U.: "Del poder en los mares al poder en tierra firme: los oficiales de la real compañía guipuzcoana de Caracas y el nacimiento de una nueva élite". *Tiempo y espacio*, XXXIII-64 (2015). 94-113

- Carmagnani, Marcello: *Las islas del lujo: productos exóticos, nuevos consumos y cultura económica europea, 1650-1800*. Madrid: Marcial Pons, 2012.

- Crespo Solana, Ana: *América desde otra frontera: la Guayana holandesa (Surinam): 1680-1795*. Madrid: CSIC, 2006.

- Dávila, Dora: "La Compañía Guipuzcoana entre un virreinato y un juez de decomisos". *Revista Montalbán*, 25 (1994). 11-22.

- Díaz-Trechuelo, Lourdes: *La Real Compañía de Filipinas*. Sevilla : Escuela de Estudios Hispano-Americanos, 1965.
  —-: "La Real Compañía de Filipinas en Guipúzcoa". *Itsas Memoria*, 4 (2003). 369 – 381.

- Elmqvist, Jönsson, Langemar, Rydberg: *Libro de Historia*. Barcelona: César Viguera, 1977 (2. ed.)

- Felice Cardot, Carlos: *La rebelión de Andresote (Valles del Yaracuy, 1730- 1733)*. [Discurso de la recepción del doctor Corlos Felice Cardot ], Caracas: Academia Nacional de la Historia, 1952.
  ----: *Rebeliones, motines y movimientos de masas en el siglo XVIII venezolano* (1730-1781). Caracas: Academia Nacional de la Historia, 1977.

- Garate Ojanguren, Montserrat: "Las cuentas de la Real Compañía de Caracas". *Moneda y Crédito*, 153 (1980).
  ----: *La Real Compañía Guipuzcoana de Caracas*. Donostia: Sociedad guipuzcoana de publicaciones y ediciones, 1990.
  ----: *Comercio marítimo e Ilustración: La Real Compañía de la Habana*. Donostia: RSBAP, 1993.

- Gasparini, Graziano: *La Guaira, Orígenes Históricos : morfología urbana*. Caracas: Ernesto Armitano, 1981.
  ----: "Edificios de la Compañía Guipuzcoana en Venezuela". *Los Vascos y América: actas de las jornadas sobre el comercio vasco con América en el siglo XVIII y la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas*. Bilbao: Laida ; BBV, 1989. 459-466.

- Gracia Rivas, Manuel: "En torno a la biografía de Blas de Lezo". *Itsas Memoria. Revista de Estudios Marítimos del País Vasco*, 7. (2012). 487-522.

- Hussey, Roland: *The Caracas Company, 1728-1784*. Cambridge: Harvard University Press, 1934.

- Iranzo Comas, Álvaro de: *Joaquín María de Ferrer y Cafranga: un liberal vasco en la España del siglo XIX*. Madrid: Sílex, 2015.
- Izard, Miguel: "Colonizadores y colonizados: Venezuela y la Guipuzcoana". *Saioak. Revista de Estudios Vascos, 4*. (1980).
- Kelsey, Harry: *El viajero accidental: los primeros circunnavegadores en la era de los descubrimentos.* Barcelona: Pasado & Presente, 2017.
- Langue, Frédérique: "Orígenes y desarrollo de una élite regional. Aristocracia y cacao en la provincia de Caracas, siglos XVI-XVIII". Nuevo Mundo Mundos Nuevos [sarean], http://nuevomundo.revues.org/769 (2005ean saretua, 2017ko apirilaren 3an kontsultatua). Jatorrizkoa: Tierra Firme, Revista de Historia y Ciencias Sociales, 34 (1991). 143-161.
- León, Pedro: *Aspecto progresista de la Real Compañía Guipuzcoana*. Caracas: Editorial Bolívar, 1938.
- López Bohórquez, Alí Enrique: *El rescate de la autoridad colonial en Venezuela: La Real Audiencia de Caracas (1786-1810)*. Caracas: Fundación Centro Nacional de Historia, 2009.
- Mary Trojani, Cecile: *L'écriture de l'amitié dans l'Espagne des Lumières*. Toulouse: Presses Universitaires du Mirail, 2004.
- Martí Lloret, J. B.: *Vicente de Lardizábal, médico donostiarra de la Ilustración*. San Donostia: Diputación, 1970.
- Mijares Perea, Lucio: "La contribución defensiva de la Compañía Guipuzcoana de Caracas durante la guerra hispano-británica de 1739-1748". *Los Vascos y América: actas de las jornadas sobre el comercio vasco con América en el siglo XVIII y la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas*. Bilbao: Laida ; BBV, 1989.4
- Mora Afán, Juan Carlos: *La familia Arizabalo: tiempos de cambio en Pasaia*. Pasaiako Udala, 2008.
- Morales Padrón, Francisco: *Rebelión contra la Compañía de Caracas*. Sevilla : Escuela de Estudios Hispano-Americanos, 1955.
- Núñez, Enrique Bernardo: *Juan Francisco de León o el levantamiento contra la Compañía de Caracas*. Caracas: Avila Gráfica, 1949.
- Ochoa Hernández, Neller Ramón ; Flores González, Jorge: *Se acata pero no se cumple: Historia y sociedad en la provincia de Caracas (siglo XVIII)*. Caracas: Fundación Centro Nacional de Historia, 2014.
- Olaran Múgica, Inés: "Realidad versus ficción: la confusa historia de Blas de Lezo." www.revistaarcadia.com. 2017-02-24 (2017ko martxoaren 3an).
- Otoi, çato etxera: Le Dauphin itsasontziko euskarazko gutunak (1757) . https://lapurdum.revues.org/2528 (2017-VI-25ean)
- Pinto González, Teresa ; Aguiar Fagundez, Mike (comps): *Rebeliones, alzamientos y movimientos preindependentistas en Venezuela*. Caracas: Ediciones de la Presidencia de la República, 2011.
- Savoia Sylvain: *Les esclaves oubliés de Tromelin*. Dupuis, 2015.
- Snijder Ruan, Laura I.: "Reconstrucción del tercer viaje del navío San Ignacio de la Compañía Guipuzcoana (1738)". *Tiempo y espacio*, XXXIII-64 (2015). 72-93
- Socorro, Milagros: "La bendición del mar en Puerto Cabello". http://prodavinci.com 2016-12-11. (2017ko martxoaren 3an).
- Townsend, Joseph: *A journey through Spain in the year 1786 and 1787*. https://archive.org/details/ajourneythrough01towngoog.
- Vives Pineda, Gerardo: *La aventura naval de La Compañía Guipuzcoana de Caracas*. Caracas: Fundación Polar, 1998.

  ----: "La Real Compañía Guipuzcoana de Caracas: los buques y sus hombres". *Los Vascos y América: actas de las jornadas sobre el comercio vasco con América en el siglo XVIII y la Real Compañía Guipuzcoana de Caracas.* Bilbao: Laida ; BBV, 1989. 307-350.

  ----: "La resurrección del navío San Ignacio: utilidad historiográfica de un naufragio del siglo XVIII.". *Actas del IV Simposio de Historia Marítima y Naval Iberoamericana*. Madrid: Instituto de Historia y Cultura Naval, 1999. 547-562.

  ----: "Un espectáculo en su alma. Vida novelesca de un maestre guipuzcoano", *Itsas Memoria,* 4. (2003). 357-368.

  ----: "Botín a bordo. Enriquecimiento ilícito en el corso guipuzcoano de Venezuela durante el siglo XVIII". *Itsas Memoria* ,5 (2006). 357-377.